

EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

L Zenbakia

2003n.urtea

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKARAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.

Z.N.A./C.I.F. G 20/127.759

Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO

AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (Olazar´tar Martin´ek)	5
Aragoi´ko izen euskaldun zarrak Erdiaro-garaiean (Latiegi´tar Bixente´k)	6
Abizinetako berbak (gaur galdutak) (Olazatar Martin´ek).....	21
Euskal ezezkoak? Ikerketa konparatiboa (Robert Püchülük)	24
Euskaldunak eta Europa (Anes Arrinda´k)	34
Abizenetako atziztiak. (Olazar´tar Martin´ek).....	43
Izen euskaldunen idazkera Gipuzkoa´an antxiñatean (Latiegi´tar B.´k)	45
Toki-izenak eta abizenak (2n. moltzoa) (Olazar´tar Martin´ek).....	56
Euskaldunak Europa´n (Atutar´tar Paul´ek)	89
“36 ´ko gudan su-izkillatutako idazle gazteak” liburua.....	103
EUSKERAZAINTZA´ren izateko errazoa (Latiegi´tar Bixente´k).....	111

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao

ATARIKOA

Irakurle maiteok: Ona emen barriro zuen eskuetan guztiok ain maite degun EUSKERAZAINTZA ALDIZKARIA.

Urte osoa joan jaku, 2002^a, aldizkaria argitaratu bagerik. Zergaitik? Dirua urri gendualako. Eta gaur be ez daukagu diru-ugaritasun aundiagorik, baiña bai itxaropen pizka bat. Orretan oiñarrituta argitaratzen degu 50^a dan zenbaki au. Izan bedi zuentzat atsegingarri.

Gai asko ditugu zenbaki onetan eta orregaitik oi dan baiño luzeagoa gertatu da.

Gure Latiegi'tar Bixente aspertu-eziñak, lekaide-etxeetako liburu zarrak aztertzen diardu eta oraingoan Peña'ko Donibane'koak aztertzen dauz.

Nik aspaldion diardut toki-izenak eta abizenak aztertzen. Euskerearen alor zabal baten gagoz eta iru lan agertzen ditut gai oneri buruz. Lenengoa toki-izen eta abizenetan agertzen diran izen galduak: Zenbat izen dauden or, naiz lur-azalekoak, naiz bedarrenak naiz zugatzenak naiz piztienak! Ezagutu bear ditugu gure euskera aberasteko. "Internet"en datozenak ez dira egokiak gure ustez.

Ipar-aldetik Robert PütXülü'k bialdu euskun lana, "euskerearen ezezkoa" gai dala, azkenengo zenbakian agertu zan, baiña irar-uts askorekin. Orain berak disketean bialdu diguna agertzen degu.

Oraintsu egin dabez iragarpen ederrak Jakitun batzuk Euskaldunen geneai eta Europa'ko toki-izenai buruz. Gai ori aztertzen dau Arrinda'tar Anes'ek.

Urrengo nire bigarren lantxua dator, toki-izenetan eta abizenetan agertzen diran atzizkiak erakusteko. Jakingarria ta aberasgarria da.

Beste lan eder bat bialdu dauSKU Latiegi'tar Bixente idazle ugari-ugariak, itzen jatorri edo etimolojiari buruz, Gipuzkoari begira.

Nire irugarren lana da urrengo. Aurreko zenbakian 38 orrialde ziran eta orrialde bakoitzean 20 abizen izanik, guztiz 760 abizen azaldu nebazan. Eta irakurleak oso ondo artu dabela lan au ikusirik, beste emanaldi bat egiten dot. Oraingoan beste ainbeste abizen azaltzen ditut 1500 inguru dira. Asko dirala? Bai, baiña guztiak 30.000'tik gora izango litzakez. Gure euskerea aberatsa izan da orretan.

Atutxa'tar Paul'ek itzaldi eder bate egin eban Bilbao'n "Euskera-zaleak alkartea"ren Euskal astean gaia: Euskaldunak eta Europa" emen agertzen dogu.

Urrengo lanean, Donostia'n egin genduan eta "36'ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak" deritxon gure liburuaren aurkezpenaren barria emoten dogu.

Liburu orren aurkezpenerako Latiegi'tar Bixente'k izparringietan idaz-lantxu bat argitaratu eban EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA zer dan eta zertarako sortu zan argitzeko. Idaz-lan onekin amaitzen dogu zenbaki au.

Aleginduko gara urte-barruan beste bat argitaratzeko.

OLAZAR'TAR MARTIN

ARAGOI'KO IZEN EUSKALDUN ZARRAK ERDIARO GARAIEAN. I 828'ko LARRUKI BAT

*

– LENENGO OARRA. Barka bezaidate jakintsuek orain esatera noana txepelkeri bat iduritzen ba'zaie. Izan bezate bâ gogoan, nik, erriko jende gutxijakiñarentzat idazten detala.

*

Edestia, irakurle maite xumeok, laualdi luze ezberdiñetan izan da zatitua: Aro Zarra (Edad Antigua gaztelera), Erdiaroa (Edad Media), Aroberria (Edad Moderna) eta Egunotako Aroa (Edad Contemporánea).

Nere gaurko lanontan aztertuko dedan aldia, Erdiaroa izango da.

Erdiaroa ordea, V mendearen azkenalditik XV mendearen azkenaldera doan aroa da. Iru pusketan zatitu oi dute edestilariek:

– Beranduko Antziñaldia (Antigüedad Tardía: V mendean barbaroak Erroma'ren jabe egin ziranetik VIII mendean arabitarak Europa'ra sartu ziran arteko epea).

– Erdiaro Garaia (Alta Edad Media: Euskalerrian beintzat Arabitarak etorri ziranetik XI mendearen lenen urtean III Santxo Gartziarena, "Nagusia" izendatutako gure erregeak buruntza, ots, koroia jantzi zuan arteko epea).

– Bee-Erdiaroa (Baja Edad Media, Euskalerrian, III Santxo'gandik Fernando "Katolikoak", —berak asmatutako gezurrezko bulda bat erabilliz—XVI mendean Naparroa'ko Erregetza beretzat lapurtu zuan arte.

BIGARREN OARRA: Nik, Aragoi'ko euskal-izenei-buruzko saioontan Antonio Ubieta Arteta'k bere "Cartulario de San Juan de la Peña" liburuan bildu eta Balentzi'n (ango unibersitateko irakaslea bait da), 1962'an argitaratu zuan liburutxo erabilliko dut (1)

Naitanaiez, nere lanotarako, Kartulario ortan Ubieta'k dakazkian Erdiaro Garaieko larrukiak irakurri, aztertu ta aurkeztu bearko ditut, ez dugu bâ Aragoi'ko erri-izenei-buruzko larruki ziur zaaragorik.

Kartulario ortan zaarrena IX mendekoa da: 828'koa.

(1) Badu izenburu berarekin beste bigarren liburutxo bat ere, baiñan au Erdiaro Garaieko larrukiez osotua dalarik, nere lanari ipiñi diodan mugatik at gelditzen zait, oraingoz beintzat. Merezimendu ederreko azterlaria dugu Ubieta irakaslea. Gai auetaz geien dakian gizona. Peña'ko lekaidetxeaz idazki geiago ere badira. Auetan aipagarriena Manuel Magallon'ek idatzitako "Colección diplomática de San Juan de la Peña" (Madrid (1903-1904). Txit egokiak bait dira larruki bakoitzari erasten dizkion oarpenak. Erabilliko dut nik ere, sarriaski, Magallon'en lan eder ori.

IRUGARREN OARRA. Badira orain etimologia zientzi biurtu naiez dabil-tzanak. Lan gaitza artu dute. Etimologia ez bait da beiñere zientzi izango.

Filosofiaren araura jakintza batek “zientzi” izatera iristeko oiñarri ziurrak bear ditu. Etimologiak berriz, gizakumeem naimenean erroturik dagoan beste edozein jakintzak bezala, ez du sekulan sustrai ziurrik izango. Gizaku-meok “nekerik txikenaren legeari” jarraituz, errez aldatzen ditugu bâ gure mendeko gauzak oro.

Orrela aldatzen ditugu gure eztarrietatik aizera jaurti oi ditugun itzak ere. Baiñan “nekerik txikiena” ez bait da enda ta kultura ezberdiñetako eztarrien-tzat berdiña... Aregeiago, ez bait da kultura bat bereko gizakumeentzat ere denbora guztietan berdiña, mendeak zear itz batek zenbat eta nolako alda-ketak izan dituan eskier jakiterik ez dago. Ori dalata ez dezake sekulan eti-mologiak oiñarri ziurrik izan. Eta ori dalata ez da sekulan zientzi izatera iritxi-ko.

LAUGARREN OARRA. Itzen aldaketeetaz mintzatzen ari naizelarik, esan dezadan beste onoko au ere:

Euskal-etimologiari dagokionez, izen euskaldunek, larrukietan agertzen zaizkigunetik onuntz izan dituzten aldakuntzak gutxigorabera igarri dezaz-kegu, baiña ¿nork asmatu leenago, millaka ta millaka urtez, arriaro zarretik asita, ain era ta giro ezberdiñak-zear, izan zezaketen aldakuntzak?

BOSGARREN OARRA. Eta au oraingoz azkenekoa: Euskalerrriaren barruan gure itzek euskaldunen eztarrietatik irtetzean izan dituzten aldake-tak, ala-ola ezagutzeko gauza izan gindezke.

Naiz itxuraz asko aldaturik egon, beren jatorrizko euskalduntasuna, orain-dik euskeraz itzegiten dan lurretan beitzat, aurkitu aal izateko gai izan gin-dezkeala iduritzen zaigu.

Gauza, ordea, millaka aldiz zaillagoa gertatzen zaigu naiz len euskaldun izanda gero, euskera galdu duten eztarrietan lengo euskal izenak jasan aal izan dituzten aldaketak igartzea.

Ori da bâ Aragoi'ko toponimiarekin gertatuko zaiguna. Eta zaillagoa biur-tzen digu oraindik arazoa, izen oiek dokumentuetara jasotzerakoan euske-raz ez zekiten XIII mendeko lumalariiek eman eta birreman dizkieten aldake-ten ezaguera ziurki jardestea.

Olakoetan, naikoa izango dut noski —itzen euskalduntasunik aurkitzera iristen ez naizenean— itz oien euskal-usaia beintzat idoro aal izatea.

Itz oiek, naiz antz'aldaturik etorri, danak euskaldunak bait ziran IX men-dean. Aragoi Zarreko gizakumeak Erdiaro osoan, eta Aroberri guztian, eus-kaldunak bait ziran osoki! Baita, baztar batzuetan, gure aurtzarokoan ere.

*

Asi dezagun, lendabizi 828'garren urtean idatzia izan zan larruki onen azterketa. Larruki zarrrik geienak bezala, au ere gero, XI mendez gero, bein baiño geiagotan izan zan ber-idatzia. Orregaitik ainzuzen datoz orren era treketsean idatzirik, bertan agertzen zaizkigun toki-izenak.

Ikus izen oien zerrenda:

ZELLA	BUBALO	TORRENTE	RIBO SECO
SARDO	FURCALA	LAKUNALA	BERALI
SARRENSA	CORBEN	FONTELATA	BUSCITEE
FORCOS	SPINULA	TORTELLA	OPAKELLO
SECURRE DE CASTILGON			
OSCA			

*

ZELLA.- Larrukietan CELLA ta CIELLAS ere esan oi zaio. Gaur CILLAS esaten diote. Yondoni Martti'ren omenez eraikitako lekaidetxe baten izena da. Ez zegoan aragoi zar aren uriburu zan Jaka'tik urruti.

Ez zan lekaidetxe zarra. IX mendekoa baizik. Larrukia idatzierazi zuan Atilio Abata berak eraikia.

ZELLA ori ¿izen euskalduna ote da?

Bai. Bere etimologia billatzen asi aurretik oroi dezagun, latinezko ortografiaren araura idatzirik datorkigulako, izen ori ZELA irakurri bear dala. Lumalari zar aiek, ZELLA irakurtzea nai izan ba'zuten, ZILHA idatziko bait zuten. "H" a, gaur "komodiña" esan oi zaion karta bezala erabiltzen bait zuten"

Badaiteke ZILA irakurri bearra izatea ere, oso maiz ematen zuten bâ "E" baten bidez gaurko "I"ren abotsa.

Zana zala lekaidetxe aren izena, ugari agertzen zaizkigu gaurko Euskalerrian ere izen zar aren aztarnak:

Izen ori ZILA irakurri nai ba'dugo, ZILAR, ZILAU, ZILAUREN (Fobaill-zaleek atseginki oroituko duten abizena), ZILBERTI, ZILBETI, ZIHURI... (2) eta orrelako beste asko Gipuzkoa, Bizkai, Naparroa, Zuberu et Errioxa'ko abizen eta tokiizenak dira.

*

Lekaidetxe aragoitar euskaldun aren izena ZELA irakurri nai ba'dugu, ona izen orren itxurako izenak gaurko toponimian.

ZELA, ZELAA, ZELABARRIA, ZELABIZKAR, ZELADA, ZELAEDER, ZEARETA, ZELAETA, ZELAGARAN, ZELANDIA, ZELARAIN, ZELARAN... Oiek Bizkai TA Gipuzkoa'ko abizenak ta tokiizenak ditugu.

BUBALO. Mendi baten izena zan. "...*dederunt ... illum montem qui vocatur Bubalo*": "Bubalo deritzan mendi ura eman zuten".

Mendi orren euskerazko izena nolakoa zan ez dakigu. Izen ori lenengo lumalariak nola idatzi zuan ere ez. Ezta zergaitik ondorengo lumalariak lengo izena aldatuz azkenean izen ura Bubalo biurtu zuten.

Alatagutziz izen orrek euskal itxura badu eta agertzen dira, ugari, orren aztarnak gaurko euskal-izendegian.

BUBA-LO irakurtzen badugu, euskal-izenak dira Bulo-koa, Bulu-kua, Bulu-ku, Buna-gin Bucaro-koa Buz-eta, Bunu, Buno-ko, Burbu-ko (au Ara-

(2) Bada izen ortako "H ori "B" baten ordezt idatzia izan zala dionik. Baleike. Esan dugunez izki edo letra ori oso lasaiki erabiltzen bait zuten lumalari zar aiek komodiñ bezala. Baiñan oraingo ontan ez dut uste arrazoi dutenik, "H" izkia "B" izkiaren ordezt ba'lego Zihuri ori Zibiuri, ots, Zubiuri, "Población del Puente" biurtuko bait litzaiguke. Ez zuten ordezt lumalari aiek U'ren doñua emateko beñere "I"rik erabiltzen.

goi'ko lekaidetxe zarra), Buz-oo (Bureba'ko erri zaarra) Bur-ga (Baztan'go mendia), Bur-gi, Bur-gaña (Motriko'n), Burgo (¿Bur-go?), Burgo-a, Buda-aurretetxea, Bud-ar, Budo-gia (Erronkari'ko Auñamendi'n muño bat), Buegue (erdiaroan Aide Nagusien arteko borrokan ibilli zan gaizkille baten izena), Burgu, Burgi, Buzu, ta auen antzeko beste anitz, Euskalerra zar osoan dagerzkigun izenak dira.

Sustrai bezala daramaten BU oi ¿zer ote da?

BOBALO irakurri nai badugu, **Bobeda** Araba'n eta **Bocal** Naparroa'n, erri bi, eta, azkeneko au, Laburdi'n Ziburu'ko Apaiz ospetsu baten abizena, sorgiña omen zalako XVII mendearen asieran beste bi apaizekin sutan bizi-rik erre. 600 gizakume izan ziran epaiketa artan epaituak).

Bocco (Bocco Harausoa) Erromatekoan Euskalerra zarreko Akitani'n sasi-jainko baten izena. **Bokos** (¿Bokots?) abizen bizkaitarra, **Bolea**, Aragoi'ko ta Naparroa'ko abizen euskalduna). **Boleaga** (Bizkai'ko abizena).

Izen orren atzizkia, ALO, ALA, gure izkuntzan maiz dakusgun atzizkia da. **Ibernalo**, adibidez Araba'ko Kanpetzu'n malda baten — eta bertako elizaxo dotore baten— izena: Ibernalo'ko Andra Mari'ren baselizak dramen izena.

Aurrizki bezala ugari ditugu AI, ALO, ALU eta ALLO'z asten diran abizen eta toki izenak. **Aloria**, Araba'n erri bat, **Alloz**, Naparroa'n beste bat, **Aloña**, Oñate'ko mendia. Ta erdiaroan maometarren atzaparretan martiri il zan Ueska'ko neskatill euskaldun batek ere, **ALODIA** zuan izena. Nunilona ta Alodia: gure neskatil doneetan antziñakoenetakoak.

FURKALA. "...uske ad sumum Furkala": "Fukala'ren gaillurreraiño". Mendi batena bait zan itxuraz izen au ere. Izan du naiko aldakuntz, ezpairik gabe.

Beren aurrean "FUR" daramaten izenak badira gaur ere gure artean. **Fur-ira**, 1816'ean agertzen zaigun eusko-abizen giputza da **Fur-anko** Araba'n Ormijana errian mendi bat. **Furtiña-na** eta **Furunda-rena**.

"Fur" zer dan ez dakit. "*De etimología problemática*" dala dote etimologi-lariak.

Ea bâ, "arazotasun" ori zerbait argitzen diegun: **Furruturi** (Furrut-uri? Furru-iturri), lats edo erreka koxkor bat da, Araba'n. Lats ori, ordea, Urturi ize-neko erriaren memdian bait dago, Izen orren FUR aurrizkia UR izan daitekeala esango nuke nik, eta, era ortan FURRUTURI, euskera aztu duan erri batek laburtutako URTURIKOITURRI dala.

Era berean, Larrukian agertu zaigun Furkala ori ere, bearbada, noizbait "H"z jantzirik ibilli zan Hurkala'tik etorri zaigun URKALA ¿ez ote da?

Ta izen onen aurrekoan ere ikusi dugun ALA, ALO, ALLO atzizkia, oso ugaria bait da gure toponimian (**Ayala; Atallo, Irala**) atzizki tokiadierazle bat dala, esango nuke nik, eta, ondorioz, gure larruki ontako **Furcala** ori noiz-bait, agian "H"z zamaturik, **Hurkala** eta bearbada **Hurkoala** izan zala ("F" ta "H" maiz nasten bait dira), ta, laburturik, ortik etorri zaigula gaurko **URKOLA**, eta izen au Ezetasun Askoko Lekua gazteleraz Lugar Húmedo izan daitekeala: **Urola**'ren senide.

Gaur ordea, Forcala, Anso ta Etxo, Jazetani'ko Aran bien artean muga egiten duan Auñamemndiko muiño bati esaten zaio. ¿Alkarrekin ote zeuden biak? gaurko "mendia" eta larrukiaren "mendipeko lur ezea"?

RIBO SECO: "...*et de Ribo Seco usque ad sumum Spinula*". Emen zalan-tzetan ibilli bearrik ez dugu. Ribo Seco ori, esannai bereko euskal-izen baten erderaketa da. Larrukian latinez dago.

Izen ori ¿erri baten izena izan dan? Zergaitik ez? Españi'n bada izen ortako erri bat: Rioseco. Eta baita Gazteitz'en ere auzo bat. Au ordea, euskerazko izenez: ERREKALEOR, "Errekalegor"en tinkoketa.

Bâ, izen ori izango zuan lumalariak latinez idatzi zuan Jazetani'ko erri edo errekatxo ark: Errekaleor.

TORRENTE. ..."uske ad ribum de Torrente": "Latsagandiko ibaiera arte".

Argi dago au ez dala Euskerazko izena; baiña, eskierki, euskerazko izen baten itzulpena da. Aiztintxe ikusi dugu, Jazetani'ko "Ribo Seco" ura gaurko Araba'n "Errekaleor" dala. ¿LATSIBAI edo LATSERREKA esaten ote zioten euskeraz "ribun de torrente" ari? Baleike.

Gaur erabiltzen ez dan itza dugu LATS zaar ori, baiñan oraindik denbora asko ez dala euskalki guztietan erabili oi zan itza izan da. Eta ez aztu larruki auek oso zarrak dirala. Esan-berri dedan "oraindik denbora asko ez dala" ori baiño zarragoak, noski: IX mendekoak.

SARDASO: "...*et Sardaso et Fontelata*". Egin dezagun zati bi izen ori: Au izango genuke aurreneko zatiketa: "**Sar**"-"**d'Aso**", eta beste au bigarrena: "**Sarda**"-"**so**".

Bigarren zatiketa ontako, "SO" edo "TSO" edo berdin dana "TSU" ori zer dan badakigu. Atzizki ugaritasun adierazlea.

Adibidez, "menditsu", mendi askoko tokia da.

¿Zer ote da SARDA? Artajona'tik egoruntz, Naparro osoan "sarda", berez jaiotzen dan belar motzeko erdi-mendi erdi-eremuari esaten zaio. Orregatik erri askotan aurkitzen da izen ortako leku bat.

Baiñan Artojoña'tik iparreruntz ere, izen ori badagerkigu toponimiak: Naparroa'n Iruña'ren alboan, **Iza** Areneko **Erize** deritzan errian toki-izena da. Gipuzkoa'ko Aretxabaleta'n, **Sardaleta**, baserri bat; **Sarday**, Zuberor'n, lats baten izena, eta **Sardea**, Naparroa'ren erdialdeko erri bat, gaur, ezabatua, baiña XII mendean jende guztiak euskeraz itzegiten zuan tokian, Añezkar eta Oteiza erri bien artean bizirik zegoana.

Beraz, ontzat bigarren zatiketa ori artzen ba'dugu, SASTATSO'k "mendi motz ugariko lekua esan naiko luke". Gazteleraz Jaral.

Baiña SARDASO'rentzat egokitzat aurreneko zatiketa, "Sar-d'Aso ura, artzen ba'dugu ¿zer? Bâ zatiketa ortako Sardaso "Aso'ko Sar" izango litzake. ¿Zer ote dira "aso" ta "sar"? Esan dezadan aurretik, "Sardaso"ren itxura aundiko erri bat badala gaur Araba'n: **Saraso**, eta erri ori, berak bezala Saraso izen-duan lats baten alboan dagoala.

Izen oiek danak ¿ez ote dira izen bat bera?

"SAR", atzizkiarenkin nominatibu edo izen-keran "SARA" edo "SARE" pillaka abizen eta tokiizenen sustraia da. Bere esannaia gaztelerazko "dehesa", euskerazko "larra" izan daitekeala dionik bada. Ez zait oso etimologi zuzena iduritzen.

Ta "ASO"? Zer ote dugu Sar-d'Asor ebaki dugun itz ortako "aso" ori? Euskal-izenen agertzen da. Batez ere Bizkai-aldeko tokietan. Adibidez **Asola**

Eibar'ko abizena da, **Asolamendi** Mungi'ko mendia omen da. **Asona** XII mendean, Bizkaieraz itzegiten zan tokian, Gazteitz'en ondoko **Oreitia**'n toki izen bat zan. **Ason** Bizkai'ren sarkaldeko mugatik bereala, Autrigoitarrena izandako lurretan, ibai baten izena.

Ta Bizkaierak gure "aitza"ri "atxa" esaten bait dio.., nik "aso" ori "atx-o" dala, esango nuke: gazteleraz, "rocoso".

Beste batzuek "asun"dik etorri daitekeala diote. Ez dut uste, "U"tik "O"ra ez bait da biderik, "nekerik txikienaren legearen" aurkako bidea izango litza-kelako.

Nere azken-itza?

– Larrukiak damaigun "Sardaso" etimologiz "Sardatso" izan daitekeala iduritzen ba'zaigu, izen orren esannaia "lugar de monte bajo" izango litza-keala, "jaral", Naparroa'ko euskeraz, "zaraka".

– Bere etimologia Sar-d'Aso lez egokiagoa iduritzen ba'zaigu, nik au bes-terik ez nuke esango: Sardaso "Atxadiko Sar" edo "Atxadi-sar" dala esango nuke: "Sar del Rokedal", ez bait dakit "SAR" ori zer izan daitekean.

Alatagutziz, ezpairik gabe Sar(d)aso edo Sar(d)atso, Saraso edo Saratso, eta Saratxo (Saraso'ren diminutibo edo txipikera) irurak itz bera dirala diru-dialako, eta beren egiazko kera SARATXO dala uste dedalako eta "saratsa" gazteleraz "sauce" dalako beren esan naia "saratsa dagoan tokia" dala, gazteleraz "Saltzedo", dala esatera ausartzen nauzute.

BERALI: ..."*usque ad Berali*": "Berali"ra arte".

Berari gaur bertan Jazetani'ko erri bat da, Antso izeneko aranean. Badu Larrukiak damaigun Berali'ren antza.

Berasain Naparroa'n erri bat da eta **Beasain** beste bat Gipuzkoa'n. "BERA"z asten diran izenak nai aiña aurki dezazkezu gure iztegiatan.

Larruki ontako Berali au ¿**Beradi** ote da. Orrela ba'litz, bere gazteleraz-ko itzulpena "Bajuras" izan daiteke, askotan, naiz beti ez, Bera, "bee-aldea da. Dana dala, larrukiak damaigun Erri zar aren izenaren euskalduntasuna ezbaiean jartzerik ez dago.

FONTELATA. Izen au ere latíñera itzulirik datorkigu. "Fonte", euskeraz. "iturri" da, eta "lata" "zabala". Beraz toki aren jatorrizko izena ITURRIZABAL izan zala ematen du. Lumalariak, latíñez idazten zuan larrukira sartzeko latíñera itzulia: FONTELATA.

SARRENSA. "...*et illa pardina que dicitur Sarrensa*": "ta Sarrensa esaten zaion larrabill ura".

Goraxeagoko "Sardaso"n bezala emen dugu oraingo Sarrensa ontan SAR aurrizkia. Euskalduna du beintzat Sarrena'k "SA" edo "TSA atzizkia.

Esan dut SAR zer dan ez dakidala. Izan bait daiteke "OKA", "ARA", "ORO" ta beste orrelako itz batzuk bezala, beren zentzua galdua zaigun antzi-ña-antziña-antziñako itz zaar-zaar bat.

Alatagutziz, ezer esateke ez gelditzearren, eta Jazetani'ko euskaldun aien ezpaiñetan larrabill aren izena nolakoa zan ez dakigun ezkerro, zillegi bekigu, aurreneko lumalari arek larrukian SARIENSA idatzi zuala, eta geroa-go, itzaren "i" ori bigarren "r" bat zalako ustean, SARRENSA bir-idatzi zuala beste norbaitek. Zergatik diodan ori? "SARI" —izenkeran "SARIA"— "artal-

dea” dalako, gazteleraz “majada”, eta orrela, —”larrabilla” alde batetik eta “artalde” bestetik—, larruki onen azterketagintzan ardi-tartean sarturik gabiltzalako.

Baiñan, Sari-en-sa’reñ erdiko “en” ori zer izan daitekean usmatzen ez dedalako, ez naiz alde berri ontatik so egiñez ere itzaren etimologia eman aal izateko gauza.

Egia da: SARI, SARRI, SARRE eta SARE aurrizki-duten izenik naiko badugu gure toponimian. Baiña ez diot ori itzaren etimlogia azaltzeko nere gaitasunik-eza zuritzearren, Antso’ko erri zaar eren euskalduntasuna garbi ta argi uzteko baizik.

LAKUNALA. “...illa pardina de Lakunala”: “Lakunala’ko larrabill ura”: Berrido mendi bateko baztarren bat-edo-bateko toki-izena datorkigu begien aurrera.

Izen zarra dugu gure izendegian “LAKU”, Naparroa’ko Ujue’n Krist’oste-ko II mendean gurtua izan zan sasijainko euskotar batek LAKUBEGI bait zuan izena: “Laku’reñ Begia”, gazteleraz “Ojo de Laku”

Ikus zer dion Ujue’n agertutako sasijaiko orren aipua damaigun aldare-arrri zaarrak: “*Coeli (us) Tesphors et Festa et Telesinus Lakubegi ex voto*”. Euskeraz: “Zelio’k, Tesfors’ek eta Festa’k eta Telino’k Lakubegi’ri agindutakoa betez).

Sasijaikokeriaren aize orrek bultzata errez sortu daiteke gure larrukiko LAKUNALA ori bere esannaiez LAKU’N AALA dala eta orren esannaia “El Poder de Laku” izan daitekeala aldarrikatzen asteko gogoa.

Ori ordea ametsetan ibiltzea izango litzake.

“Laku”z asten diran izenak asko ditugu gaur bertan. **Lakua** adibidez Gazteitz’en, **Lakuntza** Naparroa’ko Barranka’n, **Lakorzana**, (Lako-r-tza-na), Araba’n... eta beste asko. Edozein iztegitan aurki dezazkezu.

“Laku” ori erderetako “lacus”, “lago”, “lac”, dala esan oi dute. Ez dut uste. Euskalerrian “lacus” izenik merezi dezakean putzurik ez bait dugu. Lakuntza eta Lakorzana dauden tokietan beintzat putzurik ere ez da.

¿Zer ote dan bâ zorioneko LAKU ori? Saiatuko naiz beste egun baterako erantzunaren billa, Laskuraiñ’ek eta Lakugaiñ’ek, alkarrekin aidetasunik badutela, ematen bait du.

TORTELLA: Latiñez idatzirik dagoalako bi “LL” oiek “L” irakurri bear dira. “... et dederunt illa stiva que dicitur tortella”: “Tortela esaten zaion **stiva**” ura eman zuten.

“Stiva”, latiñez “goldearen kirtena” da. Larruki onen altzoan zer ikusirik ez duan gauza. Orregaitik, “stiva” ori “lapsus calami” edo “lumaren akats” bat izango dalakoan, toki-izena ba’litz bezala aztertuko dut nik emen. Eta, ortarako, bi zati egingo dut itza: Tort-Ella edo Tor-Tella.

“Ella”, “tella”, latiñezko atzizki txipitasun adierazlea da. Euskerazko “txiki”, “ttipi”, “txo”, “tto” edo “ño”ren kidea.

“Tor” edo “Tort” zer izan daitekean ez dakit; baiñan bai, naitanaiez lumalariet trakestutako euskal-izen baten latiñeraketa dala. Ori badakit.

Orrela izan ere dalako, saia gaitezen daraman euskal-usaia argira ateratzen.

Ta aitzintze sasijaiko batez ari izan geralako, esan dagigun, asteko, **TORTO**, Gipuzkoa'ko Goierri'n leizetan bizi oi dan sasijainkotxo baten izena dala. Jainkotxo, makurra ta gaiztoa, gaztejendejakea. Euskalerriko beste baztar batzuetan Tartalo esan oi diote.

Tortoa, Naparroa'ko Irañeta'n eta Gipuzkoa'ko Zizurkill'en alor biren ize-nak dira. **Tortura** Araba'ko Kuartango'n erriska baten izena.

Esandakoa naikoa dugu noski, etimologiarik aurki ez ba'diogu ere, izen orren euskal-usaia azaldu dugula esateko.

BUSCITEE. "... *et alia (pardina) que vocatur Bescitee*": Buscitee deritzan beste (larrebill) bat". Itz oni ere, etimologiarik aurkituko ez diogun ezkerro, saia gaitezen bere jatorriz izan zezakean euskal-itxura nolabait billatzen.

Bere azkeneko TE ori, TA bezala, Ugaritasuna adierazteko euskerak erabilli oi duan atzizkia da.

"E" bi daramatza atzizki orrek, "TEE", eta ez agian arrazoirik gabe, sortalde'ko euskeraz "E" ori luze agoskatzen bait da: "-". Ta dokumentu onen jatorrizko euskera, berriz, sortaldeko euskera izaki!

"Busci" zer izan daitekean jakiten dago kokka. BUSTZI, agian. Onela ba'litz, "BUS" izango litzake izen orren enborra, bere azkeneko "tzi" ori, Araba'ko **Berro-tzi**'n bezala atzizki toki adierazlea bait da.

"Bus" zer izan daitekean ez dakit, baiñan "BUS" enbor-daramaten izenak baditugu: **Bus-a**, Naparroa'ko Ujue'n tokiizena. **Bus-andia** Naparroa'ren sortaldean Aragon ibai nagusira jausten dan errekatxoa. **Bus-ko**, an bertan erdiaroko XI mendean agertzen dan tokiizena, **Buz-unaritze**, Benaparroa'n erri bat, **Bus-i-a** orain Busto deritzan Araba'ko erri baten izena, 1025 idatzi zan Kukulla'ko burni-barren dokumentuan agertzen dana.

Busti izen bikoitz askotan, **buztiñ**'en laburpena da. Gazteitz'en **Bustinzuri** Urian-barrungo tokiizena da, eta, berdiñ Iruña'n **Bustintxuri**. Beste toki batena berriz **Bustingorri** Barakaldo'n (3).

Era ortan **Buztinte** izango litzake larrukiko BUSCITEE orren etimologia, eta bere esan naia "buztiñ-toki". Oraingo gure **Bustindui, Bustiñaga, Bustiñeta, Bustintza, Bustiñola, Bustitz, Busto**, eta **Bustioia**'ren kide. "Arcillar", gazteleraz. Baiña...

¡Ain enasa izan oi zan larruki auek birridatzi zituzten lumalari erdaldun aien baldarkeria-ta!..., baleike Larrukiko **Busci-tee** orren enborra **Busti**, ots, "Bustia", izatea ere.

Ori izatekotan, bere esannaia "mojado" izango litzake. Errezegia eta ariñegia iduritzen zaidan etimologia.

FORCOS: "...*et alio termino de illa parte aqua que vocatur Forcos*": "eta beste muga bat Forcos deritzan uraren aldetik". Zer ote da Forcos?

Orrela idatzirik ez diot euskal-kutsu aundiegirik sumatzen. Baiñan:

(3) Izen auek, eta ondorean datozenak, maiz ikusiko dituzu "Z" taz idatzirik. Baiñan, naiz neroni ere "Z" ren aldekoa izan, ez da erreza nola agoskatu eta idatzi bear diran jakitea, dokumentu zarretan, maiz agertzen bait zaigu "S", guk "Z" erabiltzen dugun tokietan.

Itz onen itxura aundikoa dan eta goraxeago aztertu dugun FURKALA'z mintzatzerakoan, esan dugu "F"k eta "H"k maiz artzen dutela batak bestearen lekua: Forcos ez ote zan noizbait, orrela idatzia izan aurretik, **Horc**os idatzia izan, larruki onek jasan dituan berridazketako batean? Orrela ba'litiz, jatorrizko ORKOS, "H" a bitarte, Forcos izatera iritxiko zitzaigun: **Orkos > Horkos > Forkos**.

Alde ontatik bai, euskal-usai gozoa dario gure larruki ontako Forkos izenak. Asko ta asko bait dira doiñu ortako euskal-izenak: **Orkolaga, Orkondona, Orkoyen, Orkorroz** (1433'an utsik zegoan gaztelu naparra. "*Non mora ninguno*", dio urte ortako dokumentu batek). **Orderiz, Ordozgoiti, Ordoz, Ordotx...**

CORBEN: "...*et de casa Corben dossum dossum usque ad Berali*: "Eta Corben'etik gaiñez-gaiñ Berali arte.

Itzaren etimologia baiño askoz garrantzi aundiagokoa zaigu "dossum-dossum" edo "gaiñez-gaiñ" ori.

"Dossum" ez da klasik-aroko latiniaren itza, ez da, ezta ere, erdiaroko latiniarena. Baiña, naitanaiaez, "goia" "gaiña" esan nai duan itza da. Mendizmendi ibilli bait ziran, larruki onek dionez, Zela'ko zenobitagiaren mugak ezartzen Atilio abata eta Gartzia erregea ta Galindo kontea.

Baiñan, alare, esaldi ortan gauzarik jakingarriena ez da "dossum" itza bera, itz orren bikoiztaketa baizik: "dosum-dossum".

Ori ez bait da klasik-aroko edo ediaroko latini, ezta, larruki ontan, beste iñongo mintzakera batekoa. Ori Euskera bakarrik bait da. Soilki Euskera! Euskera..., latinezko itzez jantzia.

Orrelako bikoizketa geiago agertzen dira Piña'ko larrukiotan, eta badut, IX eta X mendekoen ikerketa bukatzerakoan danen zerrenda bat argitaratzeko asmoa.

Larruki ontako CORBEN itzaren euskaldutasunari-buruz, esan dezadan beste ororen aurretik, CORBENS Lerida'ren iparrian, orduan euskalduna zan lekuan, Aragoi'ko I Santxo Erramiorena'k 1080'ean musulmanei kendutako gaztelu baten izena dala. Berri ori damaigun larrukiak, latinez, Corvino esaten dio.

Baditugu COR aurrizkia daramaten izen geiago. Adibidez, nere ustez, Iruña-ondoko **Cordo-billa**, Errioxa'ko **Kordo-bin**, eta onoko besteok: **Korr-a, Korra-ka, Korra-txo, Korra-di eta Korr-aiz** euskaldunak dira.

Azkeneko orrek gaiñera, naiz bera baztandarra izan, Bizkaierazko **Korta** dakarkigu burura.

Korta zer dan badakigu. Baiña beste izen guzti oietan KOR zer izan dai-tekean iñork ez daki.

Igaro gaitezen bâ beste izen batera, larruki ontako CORBEN izenak, bere euskaldun-margoa argi erakutsi bait digu.

OPAKELLO. "...*et per medio Opakello usque in Berali*: "Opakello'ren erditik Berali arte".

Berali'z len mintzatuak gera. Opaquello'z, orain, ¿zer esan?

Izen ori Opakellus dugu nominatibu edo izenkeran. Isatseko "ellus" ori latinezko atziki ttipigillea du. Orrela OPAK gelditzen zaigu itzaren gorputza

lez. Argi-argi mozturik dagoan gorputza. Nola osotu? Opake? Opako? Opaku?

Opake'k zentzurik ez du

Opako ta Opaku itz bera dira.

Opaku, izenkeran **Opaku-a**, Araba'ko Entzi-mendian Mendate bat dugu, ongi ezaguna, Agurain'dik Lizarra'ra bidean. Mendate orren oiñetan, izen bereko errixka bat dago, Agurain'di 3 bat kilometrora. 1025'ean Kuku-lla'ko burni-barren dokumentuak **OPAUKU** dasaio.

Dakusazunez, larrukiko OPAKELLO'k egiztatu du bere izenaren euskal-duntasuna.

Baiñan Opaku'ren etimologiarik iñork ez daki. Norbaitek esan du "**lugar oscuro**" dala. Ori, ordea, okerkeri aundi bat esatea da. Orrela itzezin duan, ori esatean, gaztelerazko "opaco" bait zeukan gogoan.

Opaku, ordea, ez da gaztelerazko itza. Bete-betean euskerazkoa baizik.

SPINULA: "...*uske ad sumum Spinula*": "Spinula-gaiñeraiño". Au ere latiñezko itza da. Euskerazko itz baten latiñeraketa, an ez bait zan orduan euskera besterik itzegiten.

Zer ote zan euskerazko izen ori?

Latiñezko Spinula'k, bere azkeneko "ULA" ori, len aipatu dugun "ULUS'en emakera da (ulus-ula-ulum): latindar-atzizki ttipigillea, ots, diminutibua.

"Spina", berriz, euskeraz "Arantza" da. Ortaz, "Spinula", "Arantza Txikia" edo "Arantxa". Euskeraz, izenen izki latzak goxatzea naikoa bait da, izen oiek ttipieran ipintzeko.

Orrela, ZURI, blanco da; TXURI, blanquito. ZAKUR, perro; txakur, perrito. KATU, gato; Kattu, gatito, ODOLKI, morcilla; ODDOLKI, mocillita. NESKA, muchacha; NEXKA, muchachita. AMONA, abuela, AMOÑA, abuelita. AITZURRA, azada; ATXURRA, azadita. ARANTZA, Espina; ARANTXA, espinita. *Et ita porro*, ots, *orrela beti*.

Zer ote zan bâ toki aren izena? Arantxadi? Arantxeta? Arantxaga? Edo, legun-legun, ARANTXA?

SECUREE DE CASTILGON: "...*et alio monte que vocatur Securee de Castilgon*": "Gaztelutzar'ko Seguree esaten zaion beste mendi bat".

Ez da asko jakitea, baiña, larrukiak berak dasaigu-ta, Securee ori mendi bat zala beintzat badakigu.

Ondo idatzirik ote dago? Nere ustez, ez. Seguruaki, larrukia latiñez dagoalako, jatorrizko "seguru" latiñezko "securus" biurtu zuan lumalariak.

Eta, era ontan bai, "Seguree" bezala, oso euskaldundurik gelditzen zaigu mendi arren izena: bai bait dira, gaur ere, "SEGUR" beren baitan duten euskal-izenak, "**Segura**" Gipuzkoa'ko erri bikaiñatik asita.

Izen ori: "SEGUR", "SEGURA" berez euskalduna da, naiz erregeek sortu edo arresiz jantzitako errietan "Villa" itz erdeldunaren itz laguntzaille erdalduna izan: "Villa Segura". (Izen ortako erri giputza, X Alfontso Gaztela'ko, errege eta Gipuzkoa'ko Jauna'k arresitu zuan, 1256'garren urtean. Baiña erri orrek leenagotik ere, nere iritziz, Segura zuan izena).

Segure (badu noski gure larrukiko Securee'kin antza bikaiña) 1555'an eta 1649'an Baiona'n sendi aundiki baten abizena zan. **Segurola**, Aia'n,

aitorren-etxe jatortasun-emaille baten izena da. **Seguy** Iparraldeko abizena. **Seguin** 1397'an Buradon gaztelu arabarreko buruzagiaren izena. **Segunza**, abizen naparra. **Seguate**, Dima'n zugaztia. **Segues**, abizen naparra. **Sigües**, oso berandu arte euskalduna izandako erria Salduba edo Zaragoza'ko probintzian.

“Segun”, “Segur”, “Segura”, *“de etimología problemática”* dirala esaten dute etimologilariak. Eta egia diote. Baiñan, naiz guk bere esannairik jakiñ ez, ziur, euskaldunak dira.

SECURE izenaren azkeneko “E” bikoitzari-buruz esandakoaz ez aztu. Ondo idatziak egon bait daitezke, sorkaldeko euskerak “E” oiek luzatzeko guraria baduan ezker.

OSKA: *“...et de illa Oska uske ad as casa Corben”*: “Oska artatik Corbe deritzan etxeraiño”.

Oska (“k”z idatzirik dator larrukian), gure aro ontako Ueska'ri erromarrak eman zioten izena da.

Baiñan Jaka'ren inguruko lurrari “Jazetania” eta bertako jendeari “Jacetani” esan zioten bezala, Ueska'ren inguruko lurra, “Oscitania” eta “Wescetania” ta bertako jendeak “Oscitani” ta “Wescetani” izendatu zituzten.

“Wescitania” ta “Wescitani” oietatik etorri zan Uesca izena.

Geroago, “W” izkia “GU” izan zan agoskatua — eta “G”, “H”ren bitartez emanez (errez nasten bait dira bi izkiak), sartu zioten idazleek Ueska'ri gaur daraman “H”a.

Zer ote da euskaldunagoa? OSKA? ala UESKA?.

Neretzat, biak dira berdinki euskaldunak.

Seminario'ko nere bosgarren urtean, naiz Euskalerriarekin bear bezain zintzo jardun ez, Espaiñ'k izan duan jaurlaritarik zintzoenean, ots, Errepublik-a-roan, Lekuona'ri entzuna naiz UESKA ta EUSKO —“E” “U” izkiak tokiz aldatu dituan— itz bat beraren era bi dirala.

Luzaro iraun du Euskerak Aragoi'ko iparralde guzian. Ueska Urian bertan XVII mendean itzegiten zan oraindik Euskeraz. Eta, probintziaren iparralde osoan, ots, iparralde ori osotzen duten Jazetani, Arbegaiñ (Sobrarbe) eta Gortzaran'en (Ribagorza)'n baita XIX'ean ere.

(Argitaratua dut nik, gai oni buruz idazki bat gure Aldizkari ontan, ots, “Kardaberaz”en bertan).

Arritu zaitez, irakurle XX mende ber-berean, gu umeak giñala, Arbegaiñ'en eta baita Salduba edo Zaragoza'ko probintzian aurkitzen dan Bosturieta edo “Cinco Villas”ko Uncastillo'n ere ¡Euskeraz itzegiten zan!!!

Argitaratu-berria dut, (“Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País”, 2002'ko I alean), Aragoi'ko Gotik-eraren ikus-lekurik bikaiñetakoia dan UNCASTILLO izeneko erri miresgarriki ederrean, **Jaunartze-aurretik 1923'garren urtean umeek ikasten zuten aitagurea.**

* * *

LARRUKI ONTAKO GIZA-IZEN

Idazki zar guzti auetan oiturazkoa danez, gaurko onek ere lendabizi idazkiaren sarrerakoak emango dizkigu:

“Hec est scedula scripta de cenobio que vocatur Zella, quam iuserunt scribere abbas Atilio eta domno Gondsbalbo”: “Au da Zela’ko zenobitegiari-buruz Atilio abatak eta Gondsbalbo jaunak idatzierazitako txartela”.

Bi izen agertu zaizkigu or:

ATILIO abata: Atilio, izenkeran ATILIUS erdiaro garaiaeren mendeetan oiturazkoa, itzultzaile batzuk ATILA biurtu oi dute. Beste batzuek ATILANO. Berez, Atilio ori, ATILARENA da bere esan naiez.

Beste bost aldiz agertzen da Erdiara Garaieko larruki piñatar auetan.

Izen ortako done bat bakarra damaigu “Bibliotheca Sanctorum” idaztiak: Galizi’ko Lugo’n jaio ta X mendearen asieran Zamora’ko gotzaia izana. Froilan Leon’go gotzaiaren eta Asturietako III Alfontso erregearen laguna.

GONDSAIBO Jauna. Ez dio Larrukiak beste titulorik ematen: “domno”.

Nor izan zitekean ez dakigu, baiña Atilano abataren adiskide ta lagun-tzaile aundia noski, abatarekin batera Zela’ko zenobitegiaren eraille zala bait diosku larrukiak: *“Abbas Atilio et domno Gondsbalvo qui edificaverunt ipsum monasterium”*: Euskeraz: “lekaidetxe ori Atilio abatak eta Gondsbalbo jaunak izanda eraikia”.

GONDSALBO izen ori, onela idatzirik ere ikusiko duzu larrukiotan: Gonsalbo, Gundisalbo, Gundesalbo, Gondesalbo, Gonsaldo. Gazteleraz, González esaten zaio.

Izen ortako Donerik zaarrena, 676’an ildako anakoreta edo bakarti frankiar bat dugu. Limousin’go oianetan bizitu zana. Beste guztiak gure larrukiko Gondsbalbo’ren ondorengoak dira. Onek, beraz, frankiar baten izena zeraman.

Orrek, maiz esan dugun bezala, Auñamendiaren egoaldeko jendeak iparreruntz begiratzen bazekiala adierazten digu.

Gero, urte artako agintarien izenak datozkigu: *“...sub regimine Garcia Scemenonis rege de Pampilona et comite Galindo in Aragona*: “Gartzia Jimenorena Iruña’ko erregearen eta Galindo Aragoi’ko kontearen agintaritzapean”.

Gartzia Jimenorena orrek buruaste pixko bat badamaigu. Baiñan esan dezagun aurrena, GARTZIA Euskalerrian sortutako izena dala.

Bazuentzat, “H”z idatzitako artzaren izenetik dator. Oien ustez Gartzia “H”a, “G” agoskatuz, HARTZIA da.

Baleike: Bai bait zan Euskalerrian gizakumeei abereen izenak ipintzeko oitura. Gaiñera aro zarretan “G” soiñua “H”ari ematen zitzaizkion soiñu ugarrietako bat zan. Baiñan “artzari” sekulan “hartzia”, ots, “gartzia” esan zaionik ez dakigu.

Gartzia, Artzia, oroiterazten dizkiguten izenak Euskalerrian asko izan dira. **“Hars-i”** (Har-tzi?), **“Hars-ori”**, Akitani zarrean eta, geroxeago, Akitani’n bertan, **“Arsius”** eta **“Arsias”**, ta **Haarse** Laburdi’n.

Beraz, ez naiz Gartzia Hartzia'tik datorralakoaren etsai, baiñan ori orrela dala esan aal izateko, ziurtasunik ez dut.

Ta, izen ori euskalduna ba'zan ere, ez zan beintzat oraindik 828'an izen kristaua. Izen ortako Donerik zarrena 1047'tik 1071'ra Arlantza'ko Kepa Deunaren lekaidetxean abata izandako bat bai da.

Guzti ortaz gaiñera zerbait oker dabil larruki ontan. Izan ere:

– 828'garren urtean Euskalerrian erregerik ez zan

– Aurreneko erregea 850'aren ingurukoa da: Eneko Aritza, beste izenez, Iñigo Arista.

– 828'an ENEKO ARITZA oraindik, dirudianez, soilki ipar-sortaldeko baskoien buruzagia zan.

– Ez da Gartzia Jimenorena izeneko erregerik Euskalerrian izan.

– Bost izan dira Gartzia izeneko gure erregeak:

I Gartzia Enekorena. (852-882). Eneko Aritza'ren semea.

II Gartzia Santxorena. (931-970). I Santxo Gartziaarenaren semea.

III Gartzia Santxorena (994- 999). II Santxo Gartziaarena "Abarka"ren semea.

IV Gartzia Erramirorena (1034-1054) III Santxo Gartziaarena "Nagusia"ren semea

V Gartzia Erramirorena, "Lengoratzaillea"; gazteleraz, "El Restaurador". (1134-1150). Bere aita sasi-sorkuntzez errege naparren oiñordekoa zan. Bere ama, Kristiñe, "Cid Campeador" esan oi zaion Rui Bibar'koarenaren alaba. (Bibar ori antziña Autrigoitarrena izandako lurrean zegoan. Euskalduna du bere izena. Eta euskalduna du bere ibaitxoaren izena ere: Urbel.

828'ren inguruan ba'zan Gartzia Jimenorena bat Naparroa'n. Rota'ko kartularioak aipatzen du. Baiñan ez zan erregea, Eneko Aritza'ren anaia baizik. ¿Au ote da gure 828'ko larruki ontan errege bezala agertzen zaiguna?

GALINDO. Aragoi'ko Kontea. Aurrenekoa? Bai, agian, aurreneko konte yarea. Leenagokoak, asko edo gutxi, errege frankiar karolindarren esanera ibilli bait ziran.

Galindo au ezkeru, Naparroa'rekin alkartuko zaigu Aragoi, III Santxo "Nagusia"k, aberriari izugarrizko kaltea egiñez Naparroa'gandik urratuz betirako bereiziko duan arte.

Lurralde txikia zan IX mendean, Erronkari eta Pallares artean, Aragoi'ko Konterria, bere sortaldean Arbegain eta Gortzaran, naiz biak euskaldunak, konterri yareak bait ziran. Lerida'ren iparreko Pallars bera ere euskalduna zan seguruaski IX mendean.

Esan dezagun ataltxo au bukatzeko, Galindo ez dala izen kristaua. Ez da arritzeko gauza. Kristauak ez ziran izenak ere sarri erabilli bait ziran emen, kristauen artean, antziñako aldi zar aietan.

* * *

LARRUKI ONTAKO DONE-IZENAK

IRUTASUN DONEA, lendabizi erdiaroko dokumentu guztietan bezala: “*Pater et Filius et Spiritus Sanctus, una et quoequalis substantia*”: “Iruentzat zertasun bat eta berdiñeko Aita eta Semea eta Gogo Deunaren izenean”

Yosukristo'ren aipua gero: *Sub divino imperio Domini nostri Ihesu Christi*”: “Yosu Kristo gure Jaunaren zerutiko agintaritzapean”.

YONDONI MARTTI: “...*ut sit beatus Martinus episcopus confesor Christi sufragator*”: “Zorioneko Yondoni Marti gotzai ta Kristo'ren aitorlea gure alde otoigille gerta dedin”.

Martiñ au Turena'ko gotzai izan zana dugu, Euskalerrian txit maitatua. Bereak dira erdiaro garaiean gure baselizik geienak, ia danak len parroki izanak.

Marti'renganako eraspenna, gure artera, Konpostela'rako erromes frankia-rrek ekarri zigutela esan oi da. Ez, da egia.

Bee-erdiaroa arte ez zuan erromesketa orrek egiazko indarrrik artu, baiña Done orren gure baselizak goi-erdiarokoak dira.

Ortaz gaiñera, Turona'ko Marti izan da gure artean **YONDONI** edo “Yaun Done” izengoiti onuragarria jardetsi duten done gutxietako bat: Lau ainzu-zen erromatearen III eta IV mendeetan: Yondoni Xatordi (Saturnino) Tolosa akitaniarreko gotzaia, Yondoni Murtux (Fruktuoso) Tarragona'koa, Yondoni Bixintxo (Bixente), euskalduna ta euskaldunen artean mixiolaria Salduba (Zaragoza)'n martiri illa, eta Yondoni Martti (Martin) Turena'koa.

¿Zergaitik lau Done aundi oiei, orrelako goratzarrea?

Euskalerraren mixiolari izan ziralako.

Oroi, orduan Dordoña ibaiaren Aranean euskeraz itzegiten zalako, Euskalerria ez zegoala Turena'tik gaur bezain urruti. Ezta Tarrako (Tarragona)'tik ere. Era berean itzegiten zan bâ Euskera Lurrart'ltxasoaren ertzetan, egoalderuntz ia Bartzelona ber-beraraiño. Tolosa, berriz, euskaldunez inguraturik, gaurko Donosti'ren antzera erdi-euskalduna izango zan.

Yondoni Martti, — batera gotzai, lekaide, lekaidetxe- sortzaille— batez ere nixiolari izan zan, eta gotzai-urietatik-at landa ta basoetan parroki berrien eraille. Bere lekaide-mixiolariak Auñamendiraiño bidali oi zituala badakigu.

Orregaitik izan zioten euskaldunek, beren lurralde guztietan alako eraspenn biguiña.

Nere ariketa astun eta legor au nolabait arindu ta goxatzeko, konta deza-dan emen kondairek jaso diguten garai artako gertakizun alai irriparrezko bat:

Lekaide mixiolari aietako bi Euskalerrian ia Auñamendiraiño sartuta omen zebiltzan oraindik jentilak ziran euskaldun basatien artean Berri Ona zabal-tzen.

Alako batean an agertzen omen da emakume oraindik gazte galant eder bat, eta bi aien aurrean, aiei bizkarra emanez, jarri..., gonak atzetik bururaiño jaso... ta an erakusten omen die bere ipurdi mardul borobilla, bi lekaide gaixoak parregarri ipiñiz.

Ez dakit mixiolariak asarretu ziran, baiñan bai, kondairak ori diolako, Jainkoa asarretu zala.

Bat-batean, zornea zeriola, dana ikaragarrizko zauri aundi izugarriki mingarri bat biurturik gelditu omen zitzaion bâ, lotsarik gabeko emakume lizun ari, lengo ipurdi bikaiñ ikusgarri ura.

Ta, ez omen ziran ain gogorki zigortutako emakume zorigabe aren karraxi ta marruak amaitu, bi lekaide aiek, unkiturik, lurrean belauneko jarrita Jainkoari errukia eskatu zioten arte.

Orduan bai. Errukitu omen zan Jainkoa, eta, lekaide zintzo aien otoitzari abegi onez erantzun ziolako, bat-batean amaitu omen ziran emakumearen negarrak, eta bat-batean bere zauria sendatu. Kondairek ez dute esaten ipurdi eder ura len bezaiñ ederra, edo ederragoa, biurtu zan, baiña uste izan dezakegu baietz, atseginki entzuten eta eskertzen bait ditu Jainkoak bere aiskideen otoitzak.

YONDONI PETIRI eta YONDONI PAUL. Lau dira I mendeko "Yondoni"ak: Bi apostolu auek, Yondoni Estebe lenen martiria, eta Yondoniane batailaria.

Kristautasunaren oiñarri izandako lau Done zar oiek ongi merezia zuten orrelako omenketa aintzagarri ori.

YONDONIANE. Bi Yon aundietatik, Ebangelaria ez baiña Batailaria izan zan euskaldunen artean izen eder ori irabazi zuana. Zergaitik ote? Ez astirik ez lekurik ez dugu galde orri erantzun aal izateko.

YONDONI MIKEL. Euskalerriko zaindaria. Gure dokumenturik zarrena dan 574'ko larrukiak ere aipatzen du Yondoni Nikel'en izena. Iru dira Euskalerrian Yondoni izendatuak izan diran goiaingeruak: Yondoni Mikel, Yondoni Gabriel, eta Yondoni Refael.

Millaka Doneen artean, AMAIKA bakarrik izan dira gue Asaba zarrengandik eraspen aundi eta maitasun sendo baten adigarri dan izengoiti zorionsu ori irabazi dutenak. Zerbaitengaitik izanen da!

*

Buka dezadan emen, besterik gabe, nere gaurko saioa. Zerbait galdetu, latza edo goxoa neri kritikaegin, edo soilki nerekin itzegin nai baduzu, au da Gazteitz'en nere urrutizkiñaren zenbakia: 945 22 00 50.

10 terdietatik 1'era, eta 5'etatik 9'etara or aurkituko nauzu, astelenetik ostiral-eguerdiraiño. Eskerrikasko.

Latiegi ta Eraso'tar Bixente'k.

ABIZENETAKO BERBAK (GAUR GALDUTA)

Toki-izenetan eta abizenetan berba asko be asko agertzen dira gaur galduta daukaguzanak. Esaterako bedarren eta landaren izenak. Toki-izen orrean esangurea agertzeko, gauzea bera non dagoan aztertu bear dogu, esaterako etxea dagoan lekua zer dan: Mendiondo zer dan badakigu, baina Uribarri? Edo Berriaga?

Arrisku aundiko jokia da au! Guztien eritxiak ez dira batera etorten! Baina aurrera egiteko bide bat artu bear da. Esaterako Lopez Mendizabal'en azalpenak eta Mitxelena'renak oso ezbardinak dira.

Lenengo egingo dogu berben zerrendea eta urrengo lan baten atzizkiena.

Aba-: Jabe-agiria dan agea: Abaurre.

Aba-: Abereak bedarra jateko tokia: Abaroa.

Abai-: Basoko arana. Abaitua, Abendaño.

Abar-, abaliz-, abur-, adar-: Guztiak dira arte txikia, erderaz "carrasca".

Aran-, aban-: Basoko okarana: Abandegi, Abando.

Abaroa: Abereentzat egon-lekua.

Abe-: Zugatza. Abaigar: Zugatz igartua.

Abina-: Aritz txikia.

Abon-: Arto txikiak: Abona.

Ako-: "Gram" edo lur-gaiñean zabaltzen dan osasun-bedarra: Akoegi.

Ae-, ai-: Bedar-lekua. Aeta: Bedar-leku asko.

Agin-, agil-: "Tejo" detitxon landarea.

Agor-: "Panizo" landarea, arto txikia.

Agirre, Agerre, Agarre: Agirian dagoan bedar-lekua.

Aier-: Otea. Aierdi, Aiarza.

Ai-: Aialde, otea.

Aikar- (len Aiçar): Lizarra.

Ainzi-: Usain txarreko landarea: "Yezgo".

Aizi-: Zugatz txiki bat: "Acerolillo".

Arga-, erga-, elge-: Bedar-lekua: Bergara, Elgezabal.

Ait-: Zia de "junco": Aitola.

Agur-: bedar-mota bat: Agurain.

Aitz-: Arrizko mendia.

Alba-, albi-: Bedar zikua: Albaina.

Ala-, alo-: Bedar-lekua: Alegia.

Alda-: Bedar-lekua: Aldazabal.

Akar-, aka-, akai-, azil-, ada-, atxir-, adur-, azuar-: Sasia.

Ana-, ara-, ala-, anda-: bedar lekua: Anabitarte.

Anzi-: "tamujo", iñarrearen antzekoa.

Ali-: Bedar-lekua.

Alka-: Bedar-lekua.

Algar-: "veza" edo algarroba.

Alor-: Arloa.
Altza-: Zugatza, "aliso": Alsasua, Alzusta.
Añar-: Otea, iñarrea.
Azkar-: "arce": Azkarraga.
Allo-: Bedar-lekua: Mallona.
Ama-: Mimena.
Ametza: "Quejigo", aritz-antzekoa.
Angi-: "gamon" edo lili-antzekoa: Angiozar.
Ani-: Bedar-lekua: Anitua.
Anso-: Bedar-lekua: Ansoategi.
Ata-: Sasia: Ataun.
Azu-: Sasia: Azuela, Asuburu.
Anbi-: "gamon", lili-antzeko bedarra.
Apal-: Arte txikia: Apalategi.
Arro-: Aldapa: Arruza.
Arte-: Zugatz ezaguna: Arteaga.
Aspilla-: Boj: Azpillaga.
Astigarr-: "tilo": Astigarraga.
Allar-: Iñarrea: Gallarta.
Amar-: Arte txikia, "carrasca": Gamarra.
Anza-: Bedar-lekua: Gantxegi.
Arbi-: Nabo: Garbizu.
Abi-: Arándano: Labiano.
Aspi-: "acerolillo" landara txiki lora zuriduna.
Anzizu-: Bedar-lekua: Mancisidor.
Babi-: Okaran-landarea.
Baga, bago, pago-: Pagoa: Pagola.
Baka-, aka-: Sasia.
Barri-, Berri-: Landua: Lurbarri, Uribarri.
Belaun-: Bedarra: Belauntza.
Berni-: Ez dakigu zer dan.
Berro-, erro-, berrio-: Sasia edo artiz-txikien ("carrascas") lekua (Jaral): Berriaga.
Berna-: Sasia: Bernaola, Bernedo.
Ear-: otea: Bearain, otadiaren gaiñean.
Eltzun-: Txopoa: Belzuntze.
Eren-, ereñotz-: "Laurel", Ereñozaga.
Ertiz-: Artedia: Bertiz.
Etxaz-: Otea: Etxauri.
Ezpel-: "boj", Epelde.
Elor-: Arantzadun landarea: Elorreta.
Era-: Irea: Bera.
Ella-: Bedar-lekua: Ellakuria.
Enbe-: "Gamon", lili-antzeko bedarra. Enbil.
Erle-: Sasia: Erletxe.
Ema-: Bedar-lekua: Emaldi.
Erna-: Bedar-lekua: Ernani.
Erro-, erno-: Sasia.
Erki-: "tilo": Erkiaga.

Erraz-: Otearen antzekoa: Errazti.
Erreka-: Ibai txikia: Errekalde.
Goro-, Gorozti-: “acebo”: Gorostiaga.
Garai-: Goian dagoana: Menagarai.
-gorri: Utsa, garbia: Aizgorri.
-gibel: Atzeko aldea: Ezkibel.
Galar-: Iñarrea: Galarraga.
Gar-: Irea: Garabieta.
Garagar-: Landarea: Garagartza.
Ezkar-: “Arce”: Eskartin, Eskarzaga.
Esla-: Bedartza: Eslaba.
Estor-: Artea: Estornes.
Iurra-: “Yezgo” usain txarreko landarea: Yurramendi.
Isuri-: Ura bialdu: Izurrategi, Izurieta.
Elo-: Bedar-lekua: Lete.
Inzi-: Zia: Inziarte.
-ibia: Ur-ondoko oin-bidea.
-iartu-: Zikatua: Bereziartua.
Ibar-: Be-aldean dagoan toki leuna: Ibarra.
-iz, ez-: Zia edo “junco”: Izeta.
Iroz-: Ira-lekua.
Ina-: Bedar-lekua: Ginea.
Kardu-: Bedarki latza: Gardoki.
Igara-: Errotea: Igaralde.
Igel-: “hinojo”: Igeldo.
Ilarra-: Otea (“brezo”): Ilarraza.
Ilun-: Iñarrea (“tamujo”): Ilunberri-Lunbier.
Iñur-: Otea: Iñurriaga.
Ipin-: Mimena: Ipiña.
Isats-: “Retama” serukaduna.
Lapa-: “acedera” edo landara garratza: Lapatza.
Malax-: Lur emonkorra.
Mugar-: Sukarria: Mugartza.
Ola-: Burdin-lantegia: Olazar.
-ola: Asko dagon lekua: Urkiola, Uriola.
Oi-: Bedar-lekua: Aoiz.
Orra-: Sasia.
Ordo-: bedar-lekua: Gordobil.
Orbe-: “Madroño”: Gorbea.
Ordo-, Olo-: “Avena”, oloa.
On-: Bedar-lekua: Longarai.
Uri-: Toki batera ura bialtzen dauan aldapa. Uriarte, Uribitarte.
Zezen-: Aberea: Ezenarro.
Zenaur-: “Yezgo”: Lur-gaiñeko bedar-atsa: Zenarruza.
Usa-: “Gramma” osasun-bedarra: Usaola.
Uba-: Irea: Euba.
Ugi-: Irea: Mujika.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKAL EZEZKOAK: IKERKETA KONPARATIBOA

Euskerazaintzako aldizkariaren oarra :

“ Robert Puchulu jaunak aldizkari onetan argitaratutako lana utsunez bete agertu zan zoritxarrez. Utsunerik gabe, bear bezala argitaratzeko gogoazaltzen du eta ementxen dijoakigu idazki eder au txukun eta garbi agertzen dugula. ”

ESKUAL EZEZKOAK: IKERKETA KONPARATIBOA

Eskual ezezko nagusia da “EZ”. Ezezko tematsua eta azkarra da, ezpeitio uzten bere leku nagusia ezezko indo – europear bati. Bere liburuan, “les origines linguistiques du basque”, Michel Morvan erakusten du zer den “EZ” ezezkoa eta nola ahaide den uraliar – altaiko mintzaira zonbaitekin (163 – 170). Hasteko emanen dugu idazlan horren bilduma bat. Eta gero xekatuko dugu zoin diren bertze eskual ezezkoak, aurrizki edo atzizki bezala lotuak denak hitz zonbaitekin. Ondarrean konparaketa eginen dugu bertze hizkuntzeen ezezkoekin.

Aintzin oharrak:

I.- ezezko motak:

- 1- hitzerraldia negation phrase: EZ, EHE, DJIA
- 2- aditzondo: EZ dute ikusten
- 3- hitz erro batekin lotuak:
 - a. aurrizkia, préfixe: EZazol
 - b. artizki, infixe: n-[E]h-or
 - c. atzizkia, suffixe: bertZE

II.- seinale gehienak:

- 1- [] erro baten erakusteko
- 2- =eskual itzulpen edo sinonimo
- 3- π kontrarioa: hala nola tziganoarrez, NAjin (=EZ jakin) π jin (=jakin)
- 4- <etimologia: hala nola grekoaz ALêthês=egia<EZ gorde

Hizkuntzen konparaketan, ezezkoek merezi dute aipamen berezi bat; ezezkoak, erran nahi baita, mota guziak, ez bakarrik hitz – erraldi ez eta aditzondo, bainan ere aurrizki, artizki eta atzizki.

1. ZE, EZ, EZE, EHE

Has giten EZ ezezoarekin eta horren aldakuntzekin ezagutuena baitira. EZ ezezkoa da hitzerraldi bat: “jiten ote da?” – “EZ”. Hitz batez ulertarazia da eztela jiten. Bada bertze bi hitzerraldi: EHE eta DJIA.

EZ aditzondo eta [E] EZaren erroa

“EZ naiz” bilakatzen da “Enaiz”, EZ haiz Ehaiz, EZ luke Eluke.

[E] hori erran daitaie EZ – aren erroa. Bizkitartean bada ere E aurrizki ezezkoa:

Ekuri=geldi<EZ kurri
Ebaki=moztu<EZ bat egin
Edeki=zabaldu<EZ tegirik
Ehortze=lurperatu<EZhor

[E] erro ezezko bat aurkitzen da finlandarrez, estoniarrez, samoyedoarrez eta VII. mendeko olerki japoniar batean (1)

[E] h [E] ezezkoa

Ezkuaraz [E] ezezkoa errepikatuz, badugu [E] h [E] hitzerraldi ezezkoa. Onomatope hortan, H-ren ofizioa da bi [E] soinuaren berextea. “Nekatua ote zira?” – “[E] h [E], eniz nekatua”. Hego Afrikan, sesotoarrez bada è è hitzerraldi ezezko bat.

[E] h [E], eskuaraz, ez ba badarrik hitz erraldi ezezko bat, bainan ere artizki ezezko erdi bat. Hala nola:

noiz $\pi \underline{n}+[E]h+oiz$
non $\pi \underline{n}+[E]h+on$
nola $\pi \underline{n}+[E]h+ola$
nor $\pi \underline{n}+[E]h+or$

Axularren idazkietan: [E]h+oiz, [E]h+on, [E]h+on
Ronkaleko Uztarrozen, Azküe-ren arabera: [E]+oiz, [E]+un, [E]+uiz, [E]+ unla.
Lapurdin, [E]h bilakatzen da lh: n+lh+oiz, n+lh+on ...
Xiberuan, N lehen hizkia erortzen da: lh+oiz, lh+on ...

ZE ezezkoa

Eskuaraz bada ZE atzizkia:

bertZE<EZbera
atZe : kanpotiar<aterik EZ

ZE aurrizkia:

ZEhar: oiher<EZ xuxen, EZ har
ZEken: zikoitz<EZ ken
ZEmatu: mehatxu egin<EZ ematu

ZE aditzondo galdua:

Azküe-k aipatzen du ZE aditzondo ezezko bat egun galdu dena. Agertzen da Los Refranes liburuan (1596) (2). Erabiltzen da agintaldiarekin. Refr. 501: "Ce eguic gachic ta ce euc bildurrik. ZE ezezkoa ainitz erabilia zen oraino XIX. mende bukaeran Bizkaian, Bermeon, Gernikan, Mundakan, Plenzian. Huna zer zuen entzun Azküe-k Mundakan, subjontiboarekin: "gordeizu katilu ori, ausi zedaizun." (3)

EZ eta ZE ezezkoak

Bada EZ aurrizkia. Hala nola:

EZazol=oiher<EZ azolik
EZar=jarri<EZ har
EZin=EZ ahal<Ez egin
EZkondu=EZ kundurik
EZtei=Ez tairik
EZer, EZontsa, EZohiko, EZune, EZoren.

Bizkaieraz EZ atzizkia:

GaiEZ, naiEZ, ondoEZ, erruEZ.

Azküe-ren arabera, EZ aditzondo ezezkoa eta ZE aditzondoa hitz bera da. Hizki aldakuntza metatesi bat da (3). Lacomberen arabera (4), EZ eta ZE jiten dira lehenagoko EZE hitz galdu batetarik: EZE-k galdu duela bigarren bokala=EZ (apokopê) edo EZE-ren lehen bokala=ZE (aferesis). Morvan-ek xekatzten du zoin mintzariekin parekatze ahal den EZE ezezkoa. Eta atxemaiten du aditzondo ezezko berdina bai tunguztarrez, eta japoniar zaharrez eta bai mongoliarrez (5).

2. A, NA, KA, GA, GE, SA, LA, AL

a) A aurrizki ezezkoa:

Has giten eskuaratik:

Amotz=kamuts, lanpust<EZ mozten
Agin=manatu<EZ egin
Ager=azaldu<EZ geriza
Agor=idor<EZ gordin
Adei=bedirune, jendetasun<EZ deirik
Apur=pixka<EZ burutu

Uraleko eskualdean: mordvetarrez badute A ezezko bat (6).
A aditzondo ezezkoa Ipar Pakistaneko burushaskiarrez:

A(k) henas=EZ jakin (π henas=jakin)
A(y) etas=ahalik EZ (π etas=ahal dena)

Grekoarrez A aurrizki frango:

Agamos=EZ ezkundurik
Aphonos=bozik gabe
Apathelia=sofritzerik gabe
Alêthês=egia<EZ gorde

Korearrez A aurrizki ezezkoa

Asuipta=EZ aisa (π suipta=aisa)

Hego Afrikan, shonarrez eta sesothoarrez A aditzondo.

AA hitzerraldi ezezkoa: serereaz, kanouriaz, kilubarrez, txadeko dangalea-
rrez, ndemearrez, goulayetarez.

b) NA ezezkoa

A ezezkotik igaiteko NA ezezkorat, konpara grekoa eta kazaktarra:
grekoz : Alêthês = egia<EZ gorderik
kazaktarrez: NAghyz = egia<EZ gorde; cf Turkoarrez: gizli: gorde.

NA aurrizkia eskuaraz :

NAbar=kolore askotako<EZ berdin
NAbari=ageri<EZ berri
NAbar=lahar<EZ har
NAbusi=NAgusi<EZ buxi
NAgi=auher<EZ egin
NAkar=gogogabe<bururik gabe
NAhi=gogo<EZ hi

- lehen galdea: NAhi hitz bisilabokoa ala silabo batena?
XVI. mendean, bizkaiarrez, bisilabokoa da. Refr. 336:
Galdu çe equic aldia
ta ydoro dayc naya

Erima egiteko ahozkatu behar da NA-i-a eta al-di-a, erran nahi baita BI sila-
bo+a artikulua (7).

- bigarren galdea: NAhi hitzak indar baieztoko bat erakusten duela, nola izan
ditaie ezezko bat harren etimologian. "EZ hi" horrek dudarik gabe ezezkoa
erakusten du, baina ez ditaie uka "EZ hi" erranez, norbaitek bere nortasu-
na ezagurarazten duela. " Hi baztertuz, nahi deitat hartu hire lekua neretzat
ala bertze norbaitentzat". Bertzalde kazakhtarrez eta grekoaz "egia" erran
nahi duten hitzek ez ote dute ezezko bat "EZ gorde" etimologizat.

- hirugarren galdea: "HI" izenorde (8) bat izen arrunt baten erroa ote ditai-
ke? Ez ote gauza bera gertatzen "seHI" hitzarekin? SE lehen silaboak erran
nahi du sehi edo haurra: ikus sein, semin, seaska. Ikus ere grekoaz "pais",
haurra edo sehi.

HI bertze hizkuntzetan: Lamutarrak, tungustar mintzari batek badu HI singularreko 2n persona izenordetzat. Afrikan "I" badute Txadeko gulayez, baguirmiennetarrez, nagambaiez, eta Txadetik kanpoan, Nigerian, iboarez, Burkina Fasoko morearez eta Maliko Banbaraz.

NA ezezkoa eskuaratik kanpo:

- NA hitzerraldia eta aditzondoa erabiltzen dituzte Indian eta Indiaren inguruan, singalestarrez, bengaliarrez, sindhiarrez, poshtuarrez.
- NA hitzerraldi, oriyarrez, gujratiarrez, persandarrez, kurdoaz.
- NA aditzondo: balutchetarrez, kashmiriarrez eta tadjiktarrez
- NA aurrizkiak huna hitz zombait:
 - persandarrez: NAdare=EZ da
 - NAdanestan=EZ jakin (π danestan=jakin)
 - tadjiktarrez: NAdonistan=EZ jakin (π donistan=jakin)
 - bengaliarrez: NAjana=EZ jakin (π jana=jakin)
 - tziganoarrez: NAjin=EZ jakin (π jin=jakin)
 - NAkuc=merke (π kuc=kario)
 - Indian utziz, mendebal alderat joan eta, huna Turkia: hitzen erroak lehen silaboan daude. Bizkitartean berexkunde zombait badira NA aurrizkiarekin. Hala nola:
 - NAçar=ahul (π çare=indar)
 - NAhak=zuzenkontrako (π haq=zuzen)
 - NAhos=higuingarri (π hos=goxo)
 - NAfile=alfer (π fiil=egintza)
 - Turkoarrekin ahaide den kazakhtarrez:
 - NAGhyz=egia (π gizli: gorde turkoaz)
 - NAdan=EZ jakin (π dana=zuhur)
 - NArazy=mutur (π razy = pozik)
 - Suitzako erromanxtarrez: NA hitzerraldi ezezkoa
 - Ezpainiarrez NA aurrizkia:
 - NAda = deus EZ
 - NAdie = nehor
 - Frantsesez bada hitzerraldi ezezkoa NA, haur ttipien erran molde bat. Hala nola haur batek aitari: "Non, je n'irai pas au lit, NA!". Onomatopea dela erraiteak ezta aztertzen haurrak nuntik ikasi duen hola mintzatzeko manera.
 - Afrikako peultarrez: NA aditzondoa.
 - Korearrez: ji AN (metatesi) aditzondo, artizkia.

c) KA, GA, GE

1- Eskuaraz, **KA aurrizki ezezkoa**:

KAmuts=Amotz<EZ mozten
KAphar=nahar<EZ har
KAuke=pobre<EZ ukan

KA atzizkia:

ateKA = hersigune<aterik EZ

- Hego Afrikan, zultarrez CA hitzerraldi ezezkoa;

Afrikako Bissauko creolez: KA aditzondo.

2- fonetikoki KA eta GA hurbil dira. Eskuaraz **GA atzizkia**:

gozaGA=karats<EZ goza
donGA=gaixto<EZ saildu
gardinGA=zaharmindu<EZ gordin
Afrikako boboarrez GA aditzondo, setswanarrez ere.

3- GABE laburtuz badugu **GE, GA-ren sinonimo**: cf donGE=donGA.
Eskuaraz, GE atzizkia:

ahalGE=lotsatu<ahalik GabE
ibilGE=geldi<EZ ibil
senGE=haurrik ezin ukan

Afrikako bamilekearrez, GE hitzerraldi ezezkoa

d) SA, LA, AL

Eman dezagun NAhar hitzaren sinonimak, KAphar, SAphar, LAhar. Beraz NA lehen silaboa KA, SA, LA bilaka diteike. Berdin bada NAbela/ LAbela eta NApur/ LAPur.

1- Eskuaraz **SA aurrizki ezezkoa**:

SAbor=SAmur, bera<EZ bortitz
SAharte=bihortzetako sarde< EZ arterik
SAphar=NAhar, KAphar...<EZ har

2- Eskuaraz, **LA aurrizki ezezkoa**:

LAbela=NAbela
LAbur=moz<EZ burutu
LAhar=SAphar<EZ har
LApur=nAphur, gormant<EZ apur

Aramearrez LA hitzerraldi, aditzondo eta aurrizki:

LAKbala=EZ onhartu (π kbala=onhartu)
LAtova=gaixto (π tova=on)

Hego Amerikako mapuxtarrez LA aditzondo ezezkoa; erran nahi du ere herioa, ikus UL / IL eskuaraz.

3- Eskuaraz LA-ren hizkiak itzulikatuz, badugu **AL ezezkoa**:
huna **AL aurrizki** ezezkoa:

ALegia=asotitz, erranzahar<EZ egia
ALburu=ausart<EZ bururik
ALfer=NAgi, auher<EZ egin (fainéant)
ALtrebes=EZ trebes

AL atzizki:

jabAL=uzkur<EZ jabe
jaibAL=agor<EZ jaiorik
itzAL=geriza, ilun<EZ izirik
eskuAL=euskal<EZ eskura
erdAL=arrotz<EZ erdain (non circoncis)

Afrikan, Txadeko mintzarietan, mbaitarrez, goulaitarrez, gorez AL aditzondo, Sarhtarrez ALE.

Peultarrez ALAA hitzerraldi ezezkoa.

Hebrearrez AL aditzondo eta hitzerraldi.

3. IL, UL, UT, IN, DES, MA, DJIA

1· IL EZEZKOA:

Eskuaraz IL atzizki ezezkoa:

zainhIL=tetele<zainik EZ
ixIL =mutu<EZ hitzik
sulIL =lurruntzi<surik EZ
xuralIL, berdalIL, gorrailIL eta abar.

Dravindiarretan, Malayamtarrez: ILLA atzizkia

orikhalumILLA=sekula
ILLA aditzondo: kazhiyILLA: EZIN dut
Kannadarrez ILLA aditzondo, hitzerraldi, eta atzizkia:
gotILLA=EZtakit (π gottu=badakit)
Tamultarrez: ILLE hitzerraldi

Eskuaraz HIL / IL=herioa, ikus mapuchtarrez LA/ herioa.

2· UL ezezkoa:

Eskuaraz UL atzizki ezezkoa:

ützÜL=atzera eman<EZ utz
mintzÜL=mutu<mintzorik EZ
ahUL =indarrik EZ
mardÜL=bizkor<EZ mardo

Mongoliarrez: ÜLÜ atzizki (9)

Senegalen wolofarrez UL atzizki:

norÜL=gordin (π nor=egosirik)
feesÜL=huts (π fees=bete)

3·UT ezezkoa:

- eskuaraz UT aurrizkia:
UTsu=EZin ikus<EZ sorik
UTsal= baliorik EZ<ezin sal
- Afrikako diolarrez UT atzizkia
jakUT=EZ on (π jak=on)
wanoUT= EZ egia (π wanoe=egia)

4· IN aurrizki:

eskuaraz: INhar =pindar<ezin har
INgoxa=alditxartu<EZ goxa
INobre=izigarri<EZ hoberik
INkatu =zangopilatu<ezeztatu
INKundu=EZkundu
INguma=ametsgaixto<EZ lorik
INnon =nehon, INhor, INoiz

latinez: INquietus=arranguratu<EZ bakerik
INoboedientia=DESobedientzia

Laponian IN aditzondo.

5· DES aurrizkia:

euskuaraz DES aurrizkia:

DESberdin=EZ bera
DESegin=suntsitu
DESagertu=agerritik kendu
DESGustu=gaitzitu

frantsesez DES aurrizkia:

DÉSapprouver=EZ onhartzea
DÉSarmer=armak uztea
DÉShonneur=ohore gabe

6· MA aurrizkia:

eskuaraz MATxorra=haur gabe
MAhel=saiheska<EZ hel
MAzi=NAgi
MAGal=altzo, geriza<EZ gal

Afrikan, somaliarrez, newariarrez, uigurtarrez MA aditzondo
newariarrez MA aurrizkia:

MABighu=gaixto (π bhigu=on)
senoufoarrez MA artizki:
mileMAju=EZ egia (π mileju: egia)

Grekoaz MAE aditzondo agintaldiarrekin eta subjonktiboarrekin

Korearrez jiMA aditzondo, artizki, agintaldiarrekin

7· DJIA ezezkoa:

DJIA hitzerraldi. Erran nahi du: EZ batere edo EZetz. Bertzerik bertze, erabiltzen da Basa Nafaroan eta Xiberuan.

Hego Afrikan setswanarrez NNYA hitzerraldi ezezkoa.

Gaboneko fangtarrez DIA aditzondo ezezkoa.

Huna zer erakasi duen konparaketa horrek.

-1- Zoin hitzekin uztartzen diren eskual ezezkoak?

- aditza baten infinitiboarrekin: gi, sal, har, ken...

- izen arruntarrekin: buru, gunee...

- izen laguntzalerekin: bel, trebes, gai...

-2- Zoin hitz eremuetan sartzen diren eskual ezezkoak:

Euro Asia (e), Uraloaltai (E, ESE), India (NA)

Dravintiarren eremu (UL), Hego Afrika (èè; nnIA)

-3- [E] h [E] eta DJIA, 2 onomatope hoik daitazke eskual mintzariaren has-tapen apalak.

OHARRAK:

- (1)** Michel Morvan, les origines linguistiques du basque, P.U. Bordeaux p.169
- (2)** Refranes y Sentencias comunes en bascuence declaradas en romance con números sobre cada palabra para se entiendan las dos lenguas, Pamplona, 1596, Urquijoren edizioa Los Refranes de Garibay, San Sebastian 1919; edizio kritika, Joseba Lakarrarena, Bilbo.
- (3)** R.M. de Azkue, Diccionario vasco-español-frantses, ed. La gran Enciclopedia, T.II et T.I, ed 1969. Azkue, Morfología vasca, Bilbao 1923 pp 470-471
- (4)** Lacombe, Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, t.XXXVIII, 1937 p.155. Luis Michelena, Fonética histórica vasca, San Sebastian 1977, 422.
- (5)** Morvan, o.c. pp 168, 169
- (6)** Morvan, o.c. p 168
- (7)** Luis Michelena, o.c. p.526
- (8)** "Nahi" hitza bera izan daitaie ezezko bat, Indiako gudjratiarrez eta marathiarrez. Bada ere "nahin" Hindiarrez eta Pakistaneko urduarrez. Inguruko mintzariak erabiltzen baitute NA ezezkoa, nundik heldu da "HI" eta "HIN", bigarren silaboa?
- (9)** Morvan, o.c. pp 165-166

LIBURU ERABILIAK

- Atzekoz aurrera, hitz-bukaeren hiztegia, Uzei, Donostia
- R.M. de Azkue, Diccionario vasco-español-frances, ed. La Gran Enciclopedia vasca, Bilbo 1969
- J. Casenave Harigile, Histegia, euskara-français, Xiberotar euskalkitik abiatzez, Hitzak, Graficas, Lizarra, 1993.
- P. Ezanno, Dictionnaire sérère-français, Mission de Joal (Sénégal) Dakar 1960.
- D. Indjoudjan, Dictionnaire Kazakh-français, Publications orientalistes de France 1983.
- acombe, Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, t.XXXVIII 1937, p.155.
- M. Launey, Directeur du Centre des études indigènes d'Amérique, 44, rue de l'Amiral Mouchez, 75014, Paris. Gutun bat ezezko amerindiarrez. Algonquindarrez eta guaraniaz etzakila, bainan quechuarrez MANA forman iduri zaio badela NA ezezkoa.
- P. Lhande, Dictionnaire basque-français T.I Paris 1926
- H.G. Liddell, R. Scott, H. Stuart Jones, A greek-english lexicon, Oxford, Clarendon Press, 9^a ed. 1953.
- M. Malherbe, les langues de l'humanité, Robert Laffont, Paris 1955.
- L. Michelena, fonética histórica vasca, San Sebastian 1990, p.526, p.422.
- M. Morvan, les origines linguistiques du basque, Presses universitaires de Bordeaux, 1996.
- Dr. Pars Tuglaci, türkçe-fransızca, Inkilöp Kitabevi, Istanbul, 5^a ed., 1998
- Pocket korean-english dictionary, ed. Minjung Seoghan, Seoul 1958.
- Refranes y sentencias comunes en bascuence declaradas en romance... Pamplona 1596; edizio kritikoa Joseba Lakarrarena, Bilbo, 1996.
- I. Sarasola, euskal hiztegia, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1996.
- Sinonimoen hiztegia, antonimoduna, adorez 3, Elkar, Bilbo, 1988.
- Txadeko mintzaireraz: P. Palayer, Dictionnaire sar français, Tchad Geunthner Dictionnaires, Paris 1992.
- gainerako berriak, David Mouljidéren gutunetaz.

EZEZKOEN TAULA

BOK.	- a	- e			BOK
K - G	- ka - - ga -	GE -			K - G
L	- LA - AL =		iL =	- UL =	L
M	- MA =				M
N	- NA		- IN		N
S	- SA				S
T				- UT =	T
Z		- ZE = - EZ =			Z
DES / DJIA		- DFS	DJIA		DES/ DJIA

Robert Püchüli'k

EUSKALDUNAK ETA EUROPA

1.- EUSKAL-IZKERA ETA GENEAK EUROPAN ZEAR

Alemania'ko "Spectrum Wissenschaft" aldizkarian ("Scientific American" en german alea) idatzi du Euskal-izkera izan dala asierako europatarren izkuntza eta gaur eguneko europatarrek euskal-geneak dituztela eunetik 75.

Geneak eta izkera, ez dira gauza gutxi.

Aizkeneko izotz-aldiaren ondoren Euskalerritik joandako jendeakin bete omen zan Europa zaar au, german-indoeuropatarrak agertu aurretik. Egoaldera zegoen Ekialdeko Europa'tik gora abiatu ziran Euskalerrian bizi ziranetako batzuek; batez ere, reno-eiztariak. Berezkoa litzake gizakume oiek beurokin euren izkera eramatea; ez bait zuten besterik.

Izkera ori "vascones"en izkera izango zala ziurren. Ortik aurrera esaten digute euskal itz batzuek (aran, ibar, ibai, ur...) toki askotan Europan zear daudela euren gaurko izkeren sustraietan.

Nortzuk dira orrelako bitxikeriak esaten dituztenak? Elisabeth Hamel, periodista, Theo Vennemann, jerman-linguistikaren katedratikoa eta Peter Foster, Cambridge Ikastola Nagusiko genetika-irakaslea. Irurak egiten dute bat.

Berri auek DEIA aldizkaritik jaso ditut Maiatzaren 12'an, 2002 urtea.

Azken izotz-aldia, Euskalerria, euskal izkuntza eta geneak aitatzten dira idatzi onetan. Aztertu ditzagun aldiz-aldiz.

WURMEKO AZKEN IZOTZ-ALDIA

Jesús Altunak badu liburu bat izen onekin "150.000 años de Prehistoria Vasca"; bertan esaten digunez Wurmeko azken izotz-aldia orain 10.000 urte-tik 15.000 ra gertutu omen zan "Madalen" garaitik "Azil" garaira.

"Madalen" garai ori Franko-Kantauri Kulturaren aldi bat da. Kultura au Europa-Sarkaldean dago eta gaur eguneko Euskalerria du ardatz: Asturiasen asi, Cantabria pasa, Bizkaia eta Guipúzcoa igaro, Pirenee-mendietan zear abiatu eta Garona ibaia igo Burdeos'eraño. Ara dator Ekialdetik Dordoña ibaia Garona'n bere burua murgiltzera.

Dordoña orretan agertu zan Cro-Magnon arzuloan Gizon Jakintsu-jakintsuaren gorpuzkiak, orain 30.000 bat urtekoak. Gizon-emakume ederrak, 1'80 metro luze, kaska-ezur aundiekin eta bere aurreko Neandertal gizonaren antzik gabeakoak.

Mundu onetako gizaki benetako jakintsua Cro-Magnon'ekoa izan da arazo guztietan; baña, bere leizetako agerpen zoragarriek orain 15.000 urte argitu zuten geure Ortzi guztia tximista baten antzera. Aurretik ere agertu zuen bere jakintza Solutre eta Aurignak garaian; baña, jakintza orrek Madalen garaian egin zuen estanda: Bere koba-zuloak marrazkiz eta xixilikatu ederrez bete

zitun. Dordoña'tik Asturias'eraino. Eta madalen garai ori eta bere ondoren datorren Azil-garaia, oietxek dira artu zitun azken aldiko izotz-aldiak.

Kultura-garai orretakoa dan Ruffignac kobean 100 (eun) xixilikatuek ematen digute Mamut illedunaren berri. Ez batek, eunek, baizik. Gerturago daukagu Altxerri koba-zuloa (Aia'n, Orio aurrean) xixilikatua reno baten irudi zoragarria. Artista onenak ez luke obeto xixilikatuko aitz baten. Sekulan ikusi ez ba'zuten mamut illedun eta renorik ez zituzten xixilikatuko ifundik ere. Ikusi eta arrapatu, eiztariak bait ziran.

Animali-irudiz betetako leize oiek elizatxoan antzerakoak ziran. Ez zituzten marraztu begien ase-gai; bestela, baizik. Animali-marrazki oien aurrean, aztiak egiten zitun eize-aurreko aztikeriak, irudia menperatuz, animalia berbera menperatzen zalako. Eiztariak majia egiten zuen gure eun leize oietan, eizara irten aurretik. Azti bat bear zan orretarako; baña, azti oiek beti mamuz jantzita agertzen dira, agertzen diranean, bere giza-itxura aldatuta.


Bi aztikeri edo, egiten zituzten: bata, arrak iltzeko eta besteak emeak gordezko eta zaintzeko. Gaur egunez ere era orretara jokutzen dute animalien eiztariak: arrak il, baña ez emerik.

Leize zuloetako marrazkiak agertzen digutena, ori berbera agertzen digute bizitzarako bakarrik erabiltzen zituzten kobeez ere. Urtiaga leizean Artikoko Erbi zuriaren ezurrak topatu zituzten eta erbi orreri buruz onela dio Jesús Altuna'k 1970 "MUNIBE" aldizkarian: En la actualidad la especie vive en Europa del Norte y Siberia... y algún islote de los Alpes. 1.300dik 3.000 metrora.

Ifar-eurkalerria'n, Wurm izozte aldietan ere, agertzen dira izotzetako animalien arrastoak: mamutakin batera rinozeronte illeduna eta renoa ugari.


Aralar-mendian (Gipuzko-Naparro) ere izan dira glaziarrek, izotz-errekak, Karl Otto Kopp, dionez, MUNIBE, 1965: Existen huellas de glaciario de la época wurmiense en la sierra de Aralar que descendió hasta la cuota de 825 metros de la altitud actual de la sierra. El nivel climático de la nieve perpetua se hallaba entonces a 1.050 metros de altitud... En la vertiente noroeste, encima de Azcarate, otra morrena terminal de edad desconocida se encuentra a los 450 metros de altitud...". Garai oietan otza aundiago Euskalerrian eta betiko elurrak beerago.

**(KULTURA)
FRANCO-KANTAURI**



CRO-MAGNON





Santimamiñe: Bisonte ta zaldi-taldeak, lerro zabalakaz marraztuta

SANTIMAMIÑE

2.- CRO-MAGNON ETA EUSKALDUNAK

– Aizu, nungoak gera euskaldunak?

– Galdera orreri erantzuteko irrika izan dute beti jakintsuek, aurreko gizaldian batez ere. Batzuek esaten zuten, izkeratik, Asia'tik etorriak giñela; besteak, berriz, Afrika'tik zioten; baña, iñork ez zion arrastorik ateratzen arazo oneri. Izan ere, orduan, euskera besterik ez zuten itsu-aurreko bidea egiteko...

Gaur beste bide asko daude eta bide oietatik zebillen D. Joxe Miel Barandiaran'go, susmo au artu zue-nean: Euskaldunak Cro-Magnon arzulotik datoz. Susmoa zan eta susmo bezela gelditu zan.

Baña, ondoren 1974'garren inguruan, Jean-Bernard Paris'eko lkastola

Nagusikoak, eta Jacques Ruffié Toulouse'koak, susmo ori ziurtu zuten gaurko euskaldunen odol eta kulturatik. Ziurtasun berbera atera dute Ameriketako Unibersidadean, gure 'geneak' direla bide.

Gu, euskaldunok, jakintsuek diotenez, emengoak gera, Pirenee mendi-koak, Europa'ren sartaldekoak eta gure artean sortu ziran koba zuloetako margo eta marrazki miragarriak.

– Santimamiñe ere talde orretakoa al da?

– Bai Santimamiñe, bai Altxerri eta Ekain, bai Isturitz... Bai aldameneko-Altamira, Pirenee mendietako Niaux eta Trois Freres, goragoko Lascaux eta Ruffinac, eta abar... Arte eder ori agertzen dan leizetako ardatzean dago gaurko Euskal-erria.

Cro-Magnon'eko askaziak, etniak, guregan dirau oraindiño. Emen, aitz-

zuloetan, agertzen dan ederti ori berezkoa da, gauzak berez diranen antzeko agertzen duen artea...

– Eta, zertarako egin zituzten marrazki oneik?

– Ez dira ederti-agerpen utsak; bazuten beuren zergaiti berezia ere. Ederti lanak bakarrik izan ba'lira, ez lirazke toki illunetan eta gaitzetan egiñak izango, leizearen atakan baizik, argia dagoen tokian, guztien begibistan... Baña, illunpeetan daude. Araño, aztia bakarrik elduko zan, irudien aurrean bere eize-aztikeriak egitera...


– Zergaitik egiten zion aztikeria animalien irudiari?

– Aztikeria, majia, gauza baten irudiari egiten zaio, usten bait dute gauza baten eta bere irudiaren artean, badala bien artean, adurra deritzan indarra.

– Baña, ori zozokeri bat da.

– Guretzako bai, orrelako sinimenik ez degulako; eurok, ordea, aztikeriak egin ondoren, sinismen beretz joaten ziran animaliak arrapatzera, moral aundiagaz eta animalia iltzeko segurantz aundiagaz. Barneko sinismen-indar orrek, gorputzari bere indarrak bizkortzen dizkio. Aztikeria ez zan zozokeri uts bat. Animalia emeeri ez ziten azkonik sartzan, ez bait zuten emerik iltzan, zaindu baizik. Emeak zaindu, arrak il; oraintzen

RUFFIGNAC





RENOA



ALTIKERRI

EKAIN (DEBA)





LAXCAUX (DORDOÑA)



LEIZE-ARTZA (ATAUN)

bertan ere oreiñetan ba'zoaz, arrak iltzea zillegi izanen dezu; baña, emetik ez.

3.- EUSKALDUNEN ODOLA ETA GENEAK

– Gaur eguneko euskaldunen odoletik, nola ateratzen dute, gure antxiñatasuna?

– Iru odol mota daude gizakien artean: O, A eta B. O odola, odol utsa da; garbia, A eta B'rik ez duna. A eta B gizakien odolean sartu diran bi zerki dira, bi elemento dira. A zerkia Europa'ko Ipar-aldekoa da; B, berriz, Ekialdekoa; Orientekoa. Bi zerki onek, A eta B, odola kutsatzen dute; beraz, garbia O bakarrik da.

Euskaldunen artean, erdiak baño geiago, odol garbia dute, O eta % 45, A; B eta A+B, % 5. Ortik zer ateratzen dan? Ba, auxe: B Ekialdekoa ba'da, eta euskaldunek B'rik ez izan, orduan, ez da Ekialdetik etorri; bestela B kutsadurakin etorriko zan. A zerkia badegu naikoa; ia erdia; baña, Europa'ko odolik garbiena Pirenee mendiko sartaldean dago.

– Eta, zer da zorioneko Rh ori?

– Oraintsu, 1944'an, beste kutsadura berri bat topa dute gizakien odolean eta orixe da Rh. Izen ori Macacus Rhesus tximiñotik artua da, Rhesus orretatik. Tximiñoak du Rh ori eta gizaki geienak ere bai.

Orretan ere euskaldunen odolak leku berezia du Europa'ko odol guztien artean. Rh gutxien Europa'ko Pirenee mendiaren mutur onetan dago. Ortik gora edo beera ugaritzen dijoa Ekialderuntz. Asia'n geienak, guztiak ez ba'dira, Rh dute; Afrika'n ere orren antzera. Ez gera, ba, ez Afrika'tik ez Asia'tik etorri; andik kutsatuta etorri izango giñan eta. Emen berton sortuak gera.

– Geneeri buruz zer diozu?

– Luigi Cavalli Sforza, italiatar genovatarra, genetikako irakasle da Laterri Batuetako Ikastola Nagusi batean, eta onexek esaten duena auxe da: Euskaldunen geneetatik ateratzen dan ondorenak dionez, eurak dira Europa'ko erririk zaarrena.


Ez daukagu Histori-aurrera joan bearrik geure asaben aztarnak topatzeko; gaurko euskaldunen gorputzetan diraute aztarna oneik eta eurak dira gaur eguneko jakintsuen aztergai... "Orain 30.000 urte, euskaldun guztiek zeuden Rh kutsaduratik aske eta libre; orain, guzti oiek % 30'era jetxi ba'dira ere... Baña, euren inguruko erriak % 15'an daude". Odola eta geneak batera datoz.

– Baña, gene oneik zer dira?

– Gorputzeko bizirik diraun zatirik txikenari zelula, soin-kizkin edo bizialea deitzen zaio. Zelula onek badu beste kizkin edo nukleo bat ere eta beronen barruan, zurubi baten antzeko diran kromosomak daude, eta

zurubi orren mailletan, geneak. Kromosoma edo gun-aril bakoitzeko 50.000 gene. Gene bakoitzak, mezu bereizi baten bidez (mensaje codificado), proteina bat sortzeko apaindura edo ordenamentua du. Gure gorputzak izugarriko lantegi baten antza du, eta geneek zuzentzen dute miragarriko naaste eta zailtasun guztien kopurua.

Gene oietan daude (Sforza jaunak dionez) munduko giza-talde bakoitzaren historia. Eta, berez, ez dira sekulan aldatzen. Don Joxe Miel'ek susmoa artu eta bere ondorengo jakintsuek susmo ori egiztatu: Euskalduna Cro-Magnon'eko gizakiaren ondorena da.



4.-EUSKALDUNAK KANPOTARREN BEGIETATIK

Euskal Taldeak

– Euskaldunen arteko bereiztasunak eta taldeetan banatzea, erromatarren lana izan zan. Erki edo tribuetan banatu zituzten: Akitaniarrak ifaraldean eta Vascones egoaldean. 'Baskunes' izena, indoeuropeoak ipiñitakoa omen da eta 'arroak' edo 'aundiak' esan nai duela itz orrek. 'Baskunes'etik 'Vascones'era ez da orrelako alde aundirik. Baskunes edo Vascones, Naparroaldean bizi izan ziran Pirenne mendartearen egoaldeko babesean.

– Eta, Varduli?

– Oiek, oraingo giputzak ziran eta Gipuzkoa eta Araba'ko zati bat artzen zuten Kantabria mendiraiño. Caristi, berriz, Bizkaia eta Araba'ko beste zati bat. Autrigoni ziran, Bilbotik sartaldea eta egoaldean bizi ziranak.

– Izen oiek erromatarrek ipiñitakoak al dira?

– Ez dakigu orrela aurkitu ba'zituzten ere. Dana dala, eurok zabaldu zituzten munduan zear izen oiek. Erkirik garrantzitsuena, ezpairik gabe, Akitania'koa izan zan. Pirenne-menditik gora, Garona ibaia itxasoan murgiltzen dan arteko lurralde zabalak; baña, egoalderagokoen izena Vascones izan zan. Eta ortik sortu ziran Wasko, Uasko, Vasko eta Eusko.

Vascones

– Nundik nora bizi ziran Vascones oiek?

– Oiartzun'dik asi eta Calahorraraiño; andik Jaca'ra...

Alde oiek guztiak Vascones'enak ziran. Gogoan izan bear degu arazo onetan bazirala Naparroan 'ceca' edo diru inprimatzalleak Baskunes edo Barscunes izenekoak.

Varduli

– Plinio'k Varduli esaten die; Mela'k Vardulli; Ptolomeo'k Warduli; Estrabon'ek Bardietai, Barduetes eta Bardetuai... Gizajo onek ezin zituen geure izenik asmatu eta gorroto zien... 'Bar' orrek indoeuropeoz Marca, Estrema edo Ertza esan nai omen du; ala ba'da, Barduli izango lirazke Vascones'en azken ertza edo azken muturra. Eta orren itxura apur bat badu; geroago ere Gipuzkoa (Varduli edo Barduli) Provincia Vasconozita (Vascongada) zan, geure euskera aien (Vascones'en) euskera-aren antzekoa bait da.

– Deva ibaitik aurrera bizkaiera dator.

– Orixe ba; bizkai berba ez dago vasconizatua; beste era batekoa da eta Bizkaia ez da sekulan Provincia izan, Señorío baizik. Bizkaiera oraindik vasconizatu gabe dago. Oraingo aldi onetan Batuak egingo du erromatarrek berberak ere egin ez zutena: Bizkai berba vasconizatu; Bizkaia, Provincia Vascongada biurtu.

– Orixe bai izango dala benetako marka.

– Varduli onek oraingo Gipuzkoa, Araba'ko zati bat, beeko Kantauri mendarteraño ziran. Kostaldean, berriz, Oiartzun'dik Deba'raiño; eta Oiartzun'dik egoaldeko Arakil'era, andik Estella'ra eta Los Arcos'etik, Kantauri maldatik Trebiño'ra eta, Vitoria-Gazteiz zear, Deba ibaiaren ballararik, itxasora.

– Eta, Karisti'ak?

– Karisti (Karietes edo Karistoi, griegoz); auen errialdea Deba ibaiaren sartalderutz, Bilbao'raiño zan. Baña, Araba'n Trebiño'ra sartzen zan Arlaban'dik, eta Miranda de Ebro'ra. Sartaldeko mugak, auek ziran: Nervion ibaia, Orduña'ko aitza eta Arkamo'ko mendiak.

– Eta, Autrigoiak?

– Ifaraldean, Nervion'dik Santoña'ra; egoaldetik, Miranda'raiño eta, Haro'tik zear, Burgos'era sartzen

ziran. Anson ibaia, Villarcayo eta Bureba inguru guztia artzen dute Burgos'eraíño berriro. Varduli eta Karisti'en, biak alkar artuta, lurraldea baño zabalagoa da Autrigoi'ena.

– Eta, Berones?

– Vascones, Varduli, Karisti eta Autrigoiak, guztiak dute muga Berones'en lurraldeekin. Auek, kelta edo kelttoi izenekoak dira... Ibero erriak eraso jo zutenean auren aurka, besteak Santander eta Galizi aldera bota zituzten; baña auek Errioxa'n kokatuta gelditu ziran, Kantauri mendartearen babesean...

– Eta, nun topa dituzu xeetasun oiek guztiak?

– Sánchez Albornoiz jaunak dakarzki bere Mapa de los Territorios Tribales izeneko liburuan... Erriak ere aitatzen ditu erki bakoitzeko; baña, esan dezagun erri guztiak daudela erromatarren bide nagusietan: Burdeos'tik Astorga'rako 34 bide nagusian; Tarragona'tik Astorgara'koan (Bribieska aldean alkatzen dira bi bide onek); eta bien artean, Naparroa'n zear, dauden beste txikiagoetan. Berones'enak ere barruan direla. Kosta-aldean, berriz, Oearso (Bidasoa), Tritium Tuboricum (Deba) eta Flaviobriga (Nervion); zillar meatzak, ura ugari eta burni meatzak aitatzen dira; Forua, oraindik ez.

Ikusi: "Euskal Aztarnak" nere liburuan. Deba 1996.

5.- LABURPEN ETA ONDORIO-AK.

Cro-Magnon'eko askazia emen, Pirenee inguruan, egon da beti asiera-asieratik. Euskalduna izan da aren ondorena. Oituta egon gera, garai aldakor askoetan, mamutak eta renoak guregan ikusten. Esan deza-kegu renoa izan dala gure artean lagun onaren antzera. Aizkeneko

izotz-aldia berotu zanean, renoak, eta beste izotzetako animaliak, alde egin ziguten ifar-alderuntz; baita, reno-eiztariek ere aien ondoren. Renoren bizkarretik bizi diran erriak arduraz zaintzen dituzte bizitzarako bear duten guztia ematen bait diete renoek. Ez da bada arritzeko, renoekin batera euskaldunak ere alde egin bazuten. Ez ziran geldituko, Europan zear, renoek gelditu arteko guztian.

Reno-eiztari oiek bazuten beuren izkera bat. Jesús Altunak dionez lenago aitatu degun "150.000 años...", orain 6.000 urte inguruetan, euzkera naiko moldatuta zegoen. Lau milla urte aurrerago amaitu zan izotz-aldia eta ordurako euskaldunen izkera zerbait sustraian egiña egongo zan, eta izkera arrekin, euskeraren sustraiekin, joan ziran Europan zear.

"Vascon" eta "Gaskon" esaten dute iru jakintsu aitaturako oiek, "Gaskon" izen berria da, naiz-eta bien asiera "Vasco" izan. Erromatarrek Vascones esaten dute eta ortik atera da erderazko Vascon. Baña, latinez Vascones plurala ba'da, batentzako danean ez zuten Vascon esan, Vasco, baizik. Latineko deklinabideak iru bide ditu eta irugarrena Sermo-nis du eredu. Eta bere plurala, Sermones da, Vascones bezela. Baña, singularra Sermo da eta ez erderazko Sermón. Vascones'ekin oker berbera egin du erderak, Vascon esatean.



Vasco, Wasco, Uasko, (geroago, Guasko eta Guaskonia VII'garren eunkian), Usko eta Eusko... Vasconice=Vascon erara=Euskoen erara=Euskoera=Euskera (sekulan ez, Euskara). Auxe da gaurko Vascon izkera. Erri bat bera izan gera izotz-alditik onera eta aurrerago ere, bai, izkera gaurkoaren antzekoa izango zan. Euskera-arrastoz beteko zituzten baztar guztiak eta ainbeste denbora pasata gero ere, diraute oraindio izkera berrien artean moztuz jantzita, baña, ezagutzeko eran.

Genei buruz zer esango degu? Eurokin eraman zituzten geneak ez omen dira iñoiz galtzen. Aien ondorengoek beste askazi batzuekin naastuta, lauden bat galdu omen dute, gaurko Europatarrek.

Jaun aueri, irukote oneri, ez zaie arrazoirik falta: ala dio gure Histori-aurreak eta gaur eguneko euskaldunen odolak eta geneek.

NORTE DE ESPAÑA EN EL SIGLO VII

(segun Vigil / Barber)



ERDERA SORTZEN S.XI ERDERA=LATIÑA EUSKALDUNEN AOTAN

**Anes Arrinda
Deban, maiatzak 25. Urtea 2002.**

ABIZENETAKO ATZIZKIAK

- a:** edo **-aga:** Mugatzaille sendotua baiño ez da baiña tokia adierazten dau. Gorostiaga:gorostia dagon lekua.
- Abi-:** Tokia adierazten dau: Amorebieta, bedartzak dagozan lekuak.
- alde:** Ur egotea adierazten dau: uralde
- ain:** tokia edo gaiña adierazten dau: Urabain.
- ano:** Tokia: Otxandiano.
- az:** Tokia: Abalaz, arte tikiak (karraskak) dagozen tokia.
- año:** Tokia: Abendaño, aranak dagozen tokia.
- atz:** Landarea da. Aberastain: aber edo arte txikiak dagozen gaiñean.
- Ate:** Mendi-portua edo sarbidea:Alzate, alzen atea.
- Arte:** Erdian. Uriarte: uri edo ur-aldapen erdian.
- ama:** Tokia da, Beizama.
- ba:** Ugaritasuna. Araba: bedar-lekuak ugari
- bal:** Tokia. Azebal: sasia dagon lekua.
- be:** Bean dagoana. Uribe: Aldapearen barreanean.
- barren:** Beko eta barruko lekua: Uribarren: Aldapa-barreanean
- bil:** Batuta: Mendibil : mendiak batuta.
- berri:** Zelaia.
- bia:** Tokia. Mallabia: Allo edo bedartzak dagozan tokia.
- de:** Asko dagon lekua:
- di:** Asko dagon lekua: Arandia: Okaran asko dagon lekua.
- egi:** Tokia edo aldapa: ikuspegi
- do:** Tokia. Abando: Aran edo okaran asko dagon lekua.
- en:** Noren atzikia
- eta/tegi:** Asko dagon lekua: Liburutegia.
- di:** Asko dagon lekua: Arandia: Okaran asko dagon lekua.
- egi:** Tokia edo aldapa: ikuspegi
- do:** Tokia . Abando: Aran edo okaran asko dagon lekua.
- eta/-keta:** Tokia ta ugaritasuna. Abalzisketa: Arte-txikiak ugari.
- goitia:** Goiko aldean dagoana.
- Goien/guen/guren:** Goiko aldean: Iburguen, ibarraren goi-aldean.
- i:** Toki-atzikia. Agorri: Arto txiki asko dagon lekua
- il:** Tokia. Abil, Enbil: Aran-landarak dagozan lekua.
- jo:** Aundia. Landajo: Landa aundia.
- iz:** Tokia. Abaliz: Arte txikiak dagozan lekua. Sarritan abizen biurtzeko izaten da.

-goiri: Goiko aldea
-ika: Udaritasuna. Atxirika: sasi asko dagon lekua.
-ki: Tokia. Babaki: Pago asko dagon tokia
-ma edo **-ama:** Toki atzizkia: Lezama
-na: Tokia. Sagarna, sagar-tokia. Aizarna: Ariz aundien tokia.
-o: Tokia. Abalo: arte txikia dagon lekua. Abio: Abe edo zugatza dagon lekua.
-oi: Tokia. Kanpoi.
-oa: Tokia: Abaroa.
-oki: Tokia. Gardoki: Kardulatzak dagozen tokia.
-or: Tokia. Alkor: Bedartza dagon tokia.
-ola: Tokia ta ugaritasuna. Urkiola: Urki asko dagon tokia. Amezola, arrazola, lizaola... Ez Goikolea. Au goiko burdin-olea da.
-ona: Tokia. Azillona: sasia dagon tokia. Mallona: Bedarra dagon lekua.
-oz: Abizen biurtzeko azkena. Almandoz.
-oki: Tokia. Beloki: bela-tokia.
-ra: Tokia. Bergara: -erga- bedarra da, b- gero ezarria eta -ra tokia.
-su / -so: Askok dagon tokia. Arkasuso: Sasi asko dagon tokia.
-to: Txiki-atzizkia. Aburto: Arte txikien artean txikia.
-ta: Toki-atzizkia: Gallarta.
-tu: Ugaritasunaren tokia. Abaitua: Aranek ugari dagozen lekua.
-tzu: Ugaritasuna ta tokia. Abarzuza: Arte txiki asko dagon tokia.
-tza: Askok dagon tokia. Abaunza: Okaran asko dagon tokia.
-tua: Eginda dagoana. Abostua: Landara txikiak sartuta dagoana.
-te: Ugaritasuna. Loiarte: Loiar asko dagoana. Belate: Bela asko dagoana.
-ti: Etxea. Gorriti: Gorri'ren etxea.
-u: Tokia. Azilu: Sasia dagon tokia.
-un: Tokia. Irun.
Zar: Zarra izan leiteke: Olazar. Edo landubakoa: Urizar edo aundia: Barazar bedar-leku zabala.

OLAZAR'tar Martin'ek

IZEN EUSKALDUNEN IDAZKERA GIPUZKOA'N ANTZINTEAN.

Gipuzkoa, obeki esanez Ipuzkoa itza XI mendean 1025'garren urteko larruki batean agertzen da. Larruki ori Gartzia Azenariz, Gipuzkoa'ko lenen Jauna izan omen zanaren aginduz idatzia izan zan.

Gipuzkoa bazan len ere 1025'eko larruki orren aurretik, baiñan beste izen batekin. "VARDULIA" izan zan erromatarrek Gipuzkoa'ri eman zioten izena. Eta, "VARDULI", bertan bizi ziranei. Egia esan Barduli ura gaurko Gipuzkoa baiño luzeagoa, eta estuagoa zan.

– Estuagoa, Pasai, Oiartzun, Irun eta Ondarrabi bardulitarrak ez baiña Baskoiak ziralako; eta, Mendaro'tik gora, Deba ibai osoa, Karistiarra.

– Luzeagoa, egoaldera Ibero ibai aundiraiño iristen zalako, Biasteri (Laguardia) eta Oion bereak zituala.

Alboan duzu Bernardo Estornes Lasa'k marraztua, Barduli zar aren mapa. Nere ustez, bertan badago utsunetxoren bat. Barduli'ra sartzen bait du, sortaldean Pabolleta'ko mendatetik Tolosa'ra doan Araxes ibaitxo maitagarriaren ibar estu guzia, orrela Larraun'go lau erri, Betelu, eta Araiz'ko erri guztiak, bardulitar egiñez.

Nere ustez ordea, ibai orren erdia igaro ta bela, Illarratsu esaten zaion arrarte estua aurkitzen da, eta orain Naparroa'ren eta Gipuzkoa'ren muga dagoan bezala, or egon zan antziña Bardulitarren eta Baskoien arteko muga ere, ortik ibaitxo-gora Naparroa Garai'eko euskera itzegiten bait da; Ibaitxo-beera, berriz, gipuzkera. Egia bi izkera oien artean oso-oso ezberdintasun txikia dagoala; baiñan, naiz txikia, badago, beintzat, ezberdintasun ori.

Era berean, ez dut ulertzen, zergaitik gure Bernardo jakintsu bikaiñak Leniz'tik beera Deba ibai osoa, Mendaro arte, nola ez duan Karistiarren aldera eraman. Or ere izkuntzak zerbait esan nai duala ematen bait du.

Ez dut orrekin Bernardo'ren osperik lausotu nai. Naita're lortuko ez nukean gauza, gizon aundia izan bait zitzaigun Bernardo, eta Euskaldunok eta Euzkadi berak ez diogu sekulan gure alde egin zuan lan galanta bear bezala ordainduko. Izan bedi ori Estornes'tar danen omenez esana.

Gero, V mendean Erroma ezabatua izan zanez gero, 1025'eko larruki ori idatzia izan zan arte ez duzu ez Barduli'ren, ez Ipuzkoa'ren ez Gipuzkoa'ren aipu ziurrik iñon aurkituko. Ez larruzkorik, ez arrizkorik, ez zurezkorik, ez lurrezkorik.

Ezer ez! Lurralde miresgarria da Gipuzkoa'ko lurraldea. Sei mendez edes-tiarentzat Gipuzkoa'rik ez da. Gipuzkoa'n ez zan iñorbizitu. "Zer egiten zuten ba ango biztanleek —an iñor bizi ba'zan—? Bizi zala badakigu, 1025'eko larruki ortan, eta XI mende ortako beste larrukietan dotore agertzen bait da Gipuzkoa.

Baiñan sei mende illun aien epe luzean "zer egiten ote zuten giputzek? Ez zuten ezer eraiki, ez zuten ezer idatzi, ez zuten ezer landu, ez zuten ildakoen-tzat illobi bat iriki. "Zer egiten ote zuten beren ildakoekin? Jan? Eta "ildakoen ezurrekin? Txiki-txiki eginda "zakurrei eman?

Erromatarrek, beintzat, Krist'aurretiko I mendean asita, itzegin ziguten Bardulia'z.

– Ona eman zizkiguten Bardulitarren toki-izenak. Baiñan izen oiek danak banaka aztertzen asi aurretik, jakifierazi dezadan aurrena, izugarri zailla, arriskitsua, eta arras sinisgarritasun urrikoa dala, beren etimologia.

Izen oiek erromatarren liburuetan iritxi zaizkigu. Baiña liburu oien idazleak ez ziran sekulan Euskalerrian egon.

Izen oiek emen ibilli ziran salerosle ta lejoetako gudariek emanak izan zituzten; gudari eta salerosleek, berriz, euskaldunen ezpaitatik jasoak.

Badakigu erromatarrentzat zero ulerkaitzak zirala euskerazko izenak, eta osoki zakarrak gaiñera, abereen orru baldarren antzekoak.

Orri orrela izanik, "nork asma dezake, ain zakarrak eta ain ulerkaitzak gertatzen zitzaizkien euskal izen auk salerosle ta lejoetako gudariek nola entzun zizkieten?, nola buruan gorde zituzten?, eta nola idazleei esan zizkieten? eta auk, —idazleek—, nola entzun, nola gorde ta idazterakoan nola eman zituzten? —Agoskatzeko ere, "ikaragarriki agoskaitzak bait ziran aientzat gure izen guztiak", Pomponio Mela'k idatzi zuenez: "quorum nomina nostro ore concipi nequeant!"

"Eta nola igarri, geroago erdiaroko lumalariak, liburu zar aietatik artuta izen oiek birr-idazterakoan zenbat trakeskeri egin ote ziguten?"

Alare, saia gaitezen borondate on aundiz —eta oso eskiertasun txikiz— jatorriz euskaldunak izandako izen zaar oien esannaia billatzen.

Asi nedin ba, izugarrizko bildurraz, izen oien toponimia aztertzen.

– Etimologigintzan. VARDULIA, eta baita Uardulia ere maiz aski agertzen dira. (Oarterazi dezadan, gauza auk irakurtzeko oiturik ez dutenentzat, Uardulia ori Vardulia dala, "U" antziña artan "V" irakurtzen zalako).

Vardulia itza, latinezko idazkietan agertzen dalako, latindurik dago bera ere; nominatibo edo izen-keran dator: "La Vardulia" gazteleraz, eta "Bardulia" euskeraz, guk ere itz ori izen-keran idatzi nai ba'dugu. Baiñan "B"z idatzirik beti ere. Ez bait dut, erromatar aiek euskaldunen agotik "V"aren aize-soiñu biguin ori entzungo zutenik.

Zer ote da BARDULI itzaren zentzua? Itz euskalduna ote da?

Bai, nere ustez.

Ebaki dezagun erditik, bere bi osagailluak bereiziz: "BAR"

—"ULI".

"BAR", aurreneko puska orri, "I" bat ezabatu zaio, "I"z asten diran euskal-izenetan maiz gerta oi dan gauza.

Beraz, "IBAR" da Barduli'ren aurreneko zatia

Bigarren zatiko, "ULI", berriz, oraindik bizirik diraun itza dugu.

"Uli", "Ili", "Uri", ta "Uli" "ULLI", "erri" esan nai omen duan itz bat beraren aldakuntzak bait dira bostak. Neretzat ordea, askoz zabalagoa da itz boskoitz orren zentzua, eta "bizitegia" esan nai du, jende-sail aundi edo txiki bat bizi dan toki txiki edo aundia: adibidez leiñu edo "tribu" bat bizi dan lekua. Beraz, oraingoz beintzat, au dugu Barduli'ren lenengo etimologia: IBAR-ULI dugu, (gazteleraz "Lugar de Valles Estrechos").

– "Baiñan BAR-D-ULIA'K bere gerrian daraman "D" ori "zer?".

Ori ez zuten erromatarrek euskaldunen ezpaitatik jaso. Ori erromatarrek beraiek itzari, agoskera goxatzeko, sartu zioten eufonizko izki bat da. "Barduli" ta "Bardulos" errezagoak eta atsegiñagoak bait zitzaizkien, arras oiturik zeudelako latinez nongotasuna adierazten duan "DE" —eta onen laburpena dan "D"— izkietara: "Vallis de Gaubea", "Vallis d'Aran.

Guzti au ontzat artu ba'daiteke, iritxi gera itzaren zentzua atzekoaz aurrera biurtzen duan bigarren etimologi batera: BARDULIA = I-BAR-DE-ULIA. Gazteleraz, "EL VALLE ESTRECHO DE LAS PUEBLAS".

– Beste irugarren etimologi bat ere izan dezake, ordea, gure Gipuzkoa'ren antziñako izen orrek.

Etimologi ori lortzeko, Barduli'ri eman diogun "I" izkia kentzeke bertan utzi, eta "DULUS" "DULI" atzizkiak kenduko dizkiogu. "Zergaitik "DULUS eta DULI" kendu? "Bardulus", "Barduli" "Bardulos", latinez idatzirik daudelako, eta latinez esaldi ontan, "dulus" (ugarikeraz "duli") nondikotasuna adierazten duan atzizkia dalako.

Bide ontatik asi ezker, "Vardulus" = "Ibar-dulus", "IBARRETAKOA" izango litzake, eta "Varduli" = "Ibar-duli" IBARREKOAK"; gazteleraz, "El Vallesano" "El de los Valles Estrechos" eta "Los Vallesanos" "Los de los Valles Estrechos".

Badugu ordea laugarren etimologi batentzat tokia, agian itzaren erdiko "d" ori kentzea ez bait genuan bearrezkoa: Erromatarrek euskaldunengandik entzuna ederki izan bait zitekean "IBARDI", "LOS VALLES".

"Ugaritasunaren adigarri dugun "DI" atzizkiaren "I" ori noiz ezabatu ote zan? Latiñeratua izaterakoan. Ots: "ulus", "uli", "ulos", atzizkia erantsi zitzaionean: "ibardi-uli", "ibardi-ulos" eta "ibardi-ulus" baiño errezagoa eta politagoa gertatzen bait zitzaien erromatarrei "ibard-uli", "ibard-ulos" eta "ibard-ulus".

Milla aldiz errezagoa oraindik muturreko "I" aurrizkia ere ezabatu ziotenean, "BARDULUS", "BARDULI" eta "BARDULOS".

Izan ere,

Orrela sortu zuten erromatarrek IBARDI eta IBARDITAR itzetatik BARDULUS eta BARDULI.

IBARDI; "ez al da ba ori Gipuzkoa?: abere ta piztientzat bakarrik balio duten mendien tarteetako, ibai, erreka, errekatxo ta IBAR ESTUEN lurraldea?, ots, IBARDIA?

Ta, azkeneko etimologi oni arrazoi ematera datorkigu Estrabon bera. Gure Asaba BARDULITAR aien egiazko izena "BARDYETI" zala esaten bait digu, naiz izen ori bere garaiean BARDIALOS, (ots Estrabon'en garaiean "bardulos") biurtua izan: "Bardieti quos nunc bardialos vocant.

Orra ba: "BAR-DI-ETI" itzak "Bardi"koak esan nai du; "los de Bardia": Ta, itz orri, berak oiuka eskatzen duan "I" izki galdua itzultzen ba'diogu "IBARDIKOAK".

Ez dabil noski gaizki Bernardo Estornes Lasa, "el nombre castizo de la tribu es BARDI" esaten duanean. Nere ustez Itzak berea zuan "I" izkia berriro aurreipiniñ, IBARDIA.

Ta, —naiz Naparroa'ko Bardena eta Araba'ko Bardezi bezala, euskerak "BARD" aurrizkiz asten diran izenak aski ugari dituala jakin, alatagutziz, Estrabone'k iriki digun atakatik joz, nik, gure "Vardulia"ren ta "Vardulos"en jatorrizko izeenak IBARDIA ta IBARDITARRAK, dirala esango nuke.

Goazen orain Barduli'ko erri-izenak ikustera.

Barduli'ren iru tokitan agertzen dira: Itxasertzean; Gerri-aldean eta egoan.

Onoko auek: Morosgi, Menosga, Tritium Tuboricum eta ibai bi: Aturia, ta Deva, Itxasertzekoak dira.

– MOROSGI: Urumea ibaiean Ernani ta Astigarraga'ren artean zegoan kai bat omen zan. Gaur ez da or itxasontzientzat urik aski, baiñan orduan itxasoa askoz barrurago sartzen eta gorago igotzen zala badakigu. Izen euskalduna ote da?

Ezer ziur esaterik ez dugu, baiña itz ori onela ebakiko nuke nik itz ori. Morots-Gi. "GI", atzizki euskalduna da, toki-adierazlea. "MOROTS" zer izan daitekean ez dakit, baiña badituala dirudi, gaurregun ere, bere itxurako izenak: Tolosa'n adibidez, Amaro. Benaparroa'ko Donibane Garazi'n, Amoro. Eta, ortik sortua, Amoros abizena. "A" aurrizkia galdu aurretik, —galtze ori gertatu zaiola egia ba'litz, "MOROS" zaar ura ederki izan bait zitekean gaurko AMOROS orren senide.

Naparroa'ko MOROZ-UA tokiizenak ere badu noski Barduli'ko MOROZ-GI arekin zer ikusirik.

Danadala, Moroz edo Moros orren esannaia zer izan daitekean jakiten dago lana. Lopez Mendizabal'en ustez, "garoa". Ortaz, Morosgi, Garadi izango litza-ke. Baiñan ez dut uste zuzen dabillenenik.

Nere aburuz, "MORO" ta "MORU" ta "MURO" ta "MURU", "OKA", ta "ORO" ta "ORU" bezala Euskeraren itz zaar—zaarrak dira, ain zarrak dira, zartasuna-ren eragiñez beren zentzua galtzeraiño iritxi bai dira.

– MENOSKA: Getari dala esan oi dute. "Ez ote Zumaia? Edo, bearbada, Orio? Erromatarrek ibai barruan antolatzen bait zituzten kaiak, ur gozoaren billa, eta aski ugari ziran itxas-lapurrengandik babes billa.

Etimologiari dagokionez badu itz onek euskalduntasunik ugari. Baditu aide zaarrak ere: Oska, adibidez, zearo euskal-izena bait da, XVII mendera arte euskeraz itzegin zuan Aragoi'ko uri aundiaren izena. Eta, era berean euskal-izena dugu Mena ere. Beraz, "G"k eta "K"k bata bestearen tokia errez artzen dute-lako Menosga bezala ere agertzen zaigun antziñako Menoska ori'.

MEN-OSKA bezala irikitzen ba'dugu, "Mena", gazteleraz, "beta de mineral" da, eta, nere ustez "mineral" ere bai. "Oska" itz zarrak zer esan nai duan jakitea zaillagoa da.

Baiñan Oska ta Mena beroietaz gaiñera, "Osk", "Oska", "Men", "Mena"z asten diran abizen eta tokiizenak ugari ditugu gaurko Euskalerrian. Errez, izte-gietan, aurkituko dituzu baiñan beren etimologia ziurrik ez dizu iñork emango. OSKA'k badu Naparroa'n senide bat: OSKIA, Irurtzun'dik laister aurkitzen dan mendi piku baten izena.

– TRITIUM TUBORICUN. Motriko dala esan oi da. Nik ordea, Deba ibaia gora gaurko Sasiola edo Astigarribi'ren inguruan zegoan kai bat zala esango nuke. Baita gorago ere, bearbada. XVII mendean Altzola'raiño ontziak iristen zirala bai bait dakigu 1622'an Gipuzkoa'ko batzar Orokorak emandako agindu bati eskerrak. Eun urte geroago, "navegabase el río Deva desde su entrada hasta Alzola, y no más adelante por las presas que se encuentran en el camino, y se navega en alas muy largas y estrechas a causa de la corriente rápida de río en muchos parajes", idatzi zigun A. Larramendi'k bere "Coreografía"n. Arrazoi du, noski, ori aipatzean A. Arozamena Ayala'k, onoko au esaten duan: "Tal vez en épocas anteriores el transporte se efectuara hasta Elgoibar y Vergara, ya que el P. Sarasola vio en el archivo de Simancas algunos documentos que así lo dejaban inferir". "Tritium Tuboricum", lenen-begiraldi-batean, oso-soan latiñezkoak diran bi itzez osotutako izena dala dirudi, baiñan bi itz oiek ez dira latiñezko izte-gietan agertzen.

"TRI"z asten diranak bai ugari dira, "Tri", "Iru" adierazteko erabiltzen zan aurrizkia bait da. Zillegi bekit onako galde au egitea.

"Erromatarrek euskaldunei entzun zioten izenak "Iru" aurrizkia ote zeraman? gero erromatarrek "tri" aurrizkira itzulia? "IRUZIO" ote zan ba euskaldunei entzun zioten izena?

IRUBIO bat bada Naparroa'ko Otxagabi'n, baiñan ez dirudi, ori laguntza aundikoa izan dezakegunik. Utzi dezagun besterik gabe saiaketa au, ametsetan ari gerala iduritzen zait-eta. Naikoa izango zaigu Euskalerra Zarrean, oraingo Errioxa'n ainzuzen beste Tritium bat izan zala, eta oraindik badala, aipatzea. Eta baita Bizkai'n ere, autrigoitarrena izandako lurrean, Trizio orren antzeko Truzio-s bat ere.

Gauza bera esan bearko dugu TUBORIKUM itzari-buruz. Egia da, latiñaren deklinabidera sarturik datorkigun izen orren barruan "KO" bat egon daitekeala, "euskerak nongotasuna adierazteko erabilli oi duan atzizkia: TUBORI'KO. Ez,

ori ere balio aundiko laguntza, Tubori zer izan daitekean ez bait dakigu, nai bere azkeneko "ori" orrek ere euskerazko itza iduri.

Nik ez dut beintzat Euskalerrri zarreko toponimian beste Tubori bat ezagutzen. Ezta orren antzekorik ere.

– DEBA IBAIA: Deba izena, Europa'ko eta Europa'z kanpoko lurralde ugari-tan aurki dezakegun izana da: Santander ta Obiedo'ko probintzien artean, Asturietako Abiles'en sarkaldean, Teruel'en, Galizi'n bi tokitan, Frantzi'ko iparraldean, Potugal'en, Errumani'n... Eta, Ueska'n, "Debarrai" ("Deba"- "Arrai-z"?) Benabarre izeneko erriaren alboan.

"Deba" oiek danak urarekin zerikusirik baduten izenak dira, Ueska'koa ere aintzira baten izena bait da.

Orrek, noski, "Deba" oiek danak jatorri bat bereko senideak dirala ez du esan nai?. Sortzen du beintzat orrela izan daitezkealako susmoa.

– Altagutziz, izen ori, "euskalduna izan ote daiteke? Gipuzkoa'n eta Euskalerrri Zarreko Oska'n bai. Beste lurraldeetan, ez. Asko bait dira lurralde ezberdiñetan aurki daitezkean itzak. Orrek ez du esan nai danak jatorri bat berekoak diranik. Ameriketako inditarren eta Urbilleko Asi'n eta baita Japoin'en ere, badi-ra euskaldunak dirala ematen duten itzak, baiñan itz oiek emen bai, emen Euskaldunak dira, beste lurralde aietan ordea, lurralde aietakoak.

Gogora datorrit Ibagutxi euskal-abizena. Ezagutzen ditut Markina'n bi neska ta mutil bat andre japoindar batekin ezkondu zan Larruskain pelotariaren semeak-alabak. Ibagutxi dute bigarren abizena, "gutxi" atzizkia, ugariagoa bait da Japoin'en Euskalerrri baiño, Orrek ordea ez du esan nai emengoa japoindarra edo angoa euskalduna, diranik. An, atzizki ori, japoindarra bait da, eta, emen, euskalduna. Antzekoa izateak, —eta berdiña izateak ere—, ez du ba beti, jatorri berekoa izaterik adierazi nai.

Jatorriz, DEBA, izen keltiarra dala diote. "Keltiarrek ekarri ote zuten ba Euskalerrri? Keltiarrak etorri zitzaizkigula egia bait da. Euskalerrri osoan aurki daitezke keltiarrak omen diran "kastra" edo erritxo arresituak.

Baiña etorri ba'ziran ere, euskaldunekin pakean bizitu ziran, — bereiziki artzai ziran euskaldunen eta bereiziki meatzari ziran keltiarren ekonomiak batabestearen osogarrri ziralako, noski—, eta berealaxe euskaldundu ziran, bearbada aien "kastra" aiek arras txikiak ziralako, ain txit ospetsua dan Biasteriondoan dagoan Laoia'ko "kastum" txit ezagunean adibidez, ez bait ziran beiñere eun sendi baiño geiago bizitu.

Altagutziz, keltiarrak ibilli ziran baztar guztietan Deba izena urari lotua ego-teak, zerbait esan nai bait du, izen ori keltiarrengandik jaso izan dezakegula uste dutenei ez diet aurkarik egingo.

Baiña DEBA, emen —eta Euskalerrri Zarreko Aragoi'en—, izen euskalduna baldin ba'da, "bere etimologia zer izan ote daiteke? "BA", "BE" esan nai duan atzizkia du. Orrela, Naparroa'n Araiz'ko Aranean dagoan ARRIBE erriari, kezkarik gabe esan oi zaio ARRIBA ere, bi esaerek zentzu bat bera bait dute: ARRIPE.

"DE" aurrizkiak, ordea, "zer esan nai ote du "Deba" izenean? Ez dakit, baiña mamua dirudian "DE" adikaitza ori beste euskal-izen batzuetan ere agertzen zaigu: "De-ia", abizen naparra; "De-io" erdiaroan Naparroa'ko lurralde bat; De-za, abizen naparra; "De-za-alde" Bizkai'ko Mañari'n leiza-zuloa...

Azter ditzagun orain barduli zarraren gerri-aldeko toki-izenak. Danak Araba'ren sortaldean daude ta onoko auetxek dira: Alba, Gabalaeka, Gabela, Tullonium.

ALBA. Gaurko Albeniz dala esan oi dute edestilariek. Egia dirudi, Albeniz bera ez bada ere, aren inguruan egon bait zan Alba bardulitarra, Antonino'ren

“Itinerarium” edo “Bide-Liburu” zarrak, Tolomeo'ren aipua osotuz, aditzera damaigunez.

Gaiñera erromatarren aztarnak aski ugari agertu dira, “Asturica-Burdigala” izeneko bide nagusiak zeartzen zuan inguru artan, eta baita illarri bat ere Albeniz bertan: “SEMPRONIVS - SILO AN(orum) L H(ic) S(epultus) E(st)“: “Sempronio Silo, 50 urtekoa, emen obiraturik dago”.

Albeniz orri, Albiniz ere esan oi zaio edestia-zeur, eta baita Albaizako eta Albeizako ere.

ALBA Indeuropetarren aurreko itza omen da. Ala izango da atzerrian, baiñan emen euskal-izena da, emen indeuopetarren aurreko izkuntza euskera dalako, eta emen asko ta asko diralako Alba, Albeta Albi daramaten euskal-izenak.

Gaiñera “AL” ori, askotan, “Ar” en aldakuntza da. Ta “BA” atzizkia “PE” dala-ko, Arbe, ARPE izango litzake.

GABALAEKA. “Gabalaeta”tik urbil dagoan itza: erriaren ezpaiñetan, GABALETA, Gabala'ren azkeneko “A” ori ezabatuz. Ori gertatzen bait da, adibidez, Naparro'an Larraun'go Lezaeta'rekin eta Araba'n Barrundi'ko Ozaeta'rekin: erriak bi itz oiek Lezeta eta Ozeta agoskatzen dituala.

Danadala, “KA” izan edo “ETA” — edo agian IKA— izan bere atzizki ori, ezpairik gabe euskal-atzizkia du.

Iru atzizki oietatik bat aukeratzekotan ETA onartuko nuke nik. Izan ere, Gaba-laeka ura, gaurko OZAETA izan bait daiteke!

GABALA dugu itz orren enborra. Zer esan nai duan ez dakit, ez bait zait ego-kia iduritzen Bernardo Estornes Lasa'k bere Iztegian (XIV, 438) diona: Bizkaie-raz, alegia, “gabala”k “infructifero”, “esteril” esannai dula; euskal-toponimiak ez bait dira era ortan antolatzen.

Urrengo izena aztertzerakoan mintzatuko gera izen onen etimologiaz.

GABALA. “Gaurko GEBARA? Bai noski, bat bera bait dute Araba'ko izen barduliar guzti auk ardatza: “Asturica-Burdigala” bide nagusia. Eta gaurko Gebara'ren ertzetik igarotzen bait zan erromatarrek eratutako ardatz ura.

Lengo itzaren enborra dugu oraingo onen izena: Gabala. Esan dut zer esan dezakean ez dakidala. Soilki auxe da aurkeztu dezakedana: GABAL, eta bere aldakuntza dan GABAR, euskal abizen eta tokiizen askotan agertzen zaigula: Gabalain, Gabarain, Gabalda, Gabardie, Gabaldi, Gabari, Gabali....

Oraingoan, Bernardo Estornes Lasa'k, “GABAL” ori “de etimología proble-mática” dala diosku (l.c.).

Jo dezagun guk beste bide batetik.

“K” izkia errez biurtzen bait da “G”, (Kabaldea, Gabaldea; Kabañoste, Gabañoste...), Gabala ori jatorriz Kabala izan daiteke:

Beraz, GABALA'ren lenen-izena KABALA izatea baleike.

Baiñan “K” ori, askotan, “C” idazten zutelako, “C” ori era egokian “Z” agoskatuz, Barduli'ko erriaren jatorriko izena ZABALA izan daiteke.

“Ez al da polita? Bai noski! Baiñan polita izateaz gaiñera egiazkoa dan jakiten dago kokka!

Topografiaren aldetik ez legoke eragozpenik, Gebara, Araba'ko landa lauaren ertzean dagoalarik, zabaldi ederrak bai ditu bere aurre guzian.

TULLONIUM. Nunbait Araba'ko zelaidian egon bear zuala-ta, oraingo ALEGRÍA DE ALABA'n zegoala esan oi da. Bai ote? ni beintzat ez naiz uste ortakoa, geroago, 1024, DULLANZE esaten bai zaio erri oni, 1025'an DULLANZI eta 1694'ean DULANCI.

Dulantzi'ren etimologiarik ez dakit, baiñan euskalduna danik ezin ukatu nentzake, Araba'ko erri ortatik ez ain urruti, Naparroa'ko Ergoiena Aranean Urbasa ta Andia mendien artean Ergoiena araneke muño bati DULANTZ esaten bait zaio.

Tullonium ori Dulantzi'n ez baiño Oka'ko Iruña'n egon zala ere, esan izan da. Egia da Iruña ori erromatarrek Euskalerrian utzi ziguten gauzarik ederrenetakoa dala: "Oppidum" edo Arresidun gudaritegi bikaiña.

Baiñan Oppidun orri iñoiz Tullonium esan zitzaiola uste izateko batere arrazoirik ez dago.

"Ez ote zegoan, Tullon ori, Dulantzi'tik bertan dagoan ARKAIA'n? Or ere agertu bait da Erromateko pitxirik ugari.

Tullonium latiñez idatzitako itza da, baiñan ez da latiñaren itza.

Beraz, euskaldunek euskeraz emandako eta erromatarrek latiñezko itxuraz jantzitako itz euskaldun bat izan bear du.

Esan bearra dugu Tullonium "eusko?-sasijainko baten izena ere izan zala: Araba'ko zelaidian gurtua izan zan sasijainko baten izena: onela dio ba or agertutako arri-ol batek:

S(empronius) SEVERI(us) TULLONIO V(otum) S(olvit)

L(ibenter M(erito)": "Sempronio Sebero'k Tullonio'ri agindutakoa, gogo onez betetzen dio, merezia dualako".

"Sasijainko oi inguru artako erromatarrek bakarrik gurtzen ote zuten? Ala ango euskaldunek ere bai? Nik beintzat baiezko erantzuna emango nioke galde orri, Akitani'n agertu zaizkigun sasijainko-aldare ugarien ondorioz, euskaldunen artean Erroma'ko sasi-jainkoei, eta, baita, jainko aien erara sortutako euskal-sasijainkoei ere, gurteta oparo eman zitzaie la bai bait dakigu.

Tullon jainkoak uriaren izena bera zeramakialako, jainko bihurturik uria bera izatea badaiteke: gurtzaille jentillek jainkotutako uria. Ori, jentiltasunezko giro aren barruan, ez bait litzake gauza arrigarria izango.

Utzi dezagun Tullonium jainkoa ta itzuli gaitezen Tullonium urira: Tullonium ori latiñezko kapusaiez jantzitako euskal-izen bat baldin ba'da, "zer ote zan uri orren jatorrizko euskal-izen ura?

Asi gaitezen etimologigintzako jostaketan, geiagoko garrantzirik ez bait dezaiokegu eman balio aundirik gabeko ariketa oni:

– "I", itz baten aurren-izkia danean, askotan eta errez gelditzen da galdurik: Ibarondo, Barrondo; Izagirre, Zagirre; Isasondo, Sasondo; Isusi, Susi; Ibarreta, Barreta...etb.

Ori gogoan dedala, ausartzen naiz galde au egitera: "Tulloniun orren asieran "Itur" bat ote zegoan?: ITURLONIUM?

Izen au, latiñezko adjetibo edo izenondokoen deklinabidetik aterata, TURLO izango litzake, eta, guk itzuli diogun "I" aurrizkiarekin ITURLO. Ta orrek bai, orrek badu noski euskal-zentzu betea!

Gaurko Euskeran, Gipuzkeran bereiziki, "URLOA", gaztelerazko "remanso de una corriente de agua" da. "Ez ote zan erabiltzen "ITURLOA", antziñako Bardulieraz, gauza bera —edo antzeko bat— adierazteko?

Barduli zarraren egoan, ots, oraingo Araba'ren Errioxa-bidean, izen bat, Trifinium, eta Errioxa'n bertan izen bi damaizkigute idazle erromatarrek: Thabuca ta Iberus.

– TRIFINIUM, oraingo Trebiño erriska. Latiñez idatzirik dago. Euskerara, IRUMUGAETA, itzuliko genduke. Izen orren arrazoia? Uri koxkor ori, Euskalerrri zarraren sarkaldean bizi ziran iru Eusko-leiñuen muga izatea, naiz uritxoa bera Bardulitarrena izan. Iru leiðu aiek orain aztertzen ari geran Barduli, gutxi gora-bera gaurko Bizkai zan Karisti, eta Nerbion ibaiaz aruntz Kantauri Itxasotik Oka Mendietara iristen zan Autrigoni.

– THABUCA. Araba'ko Errioxa'n zegoan, Samaniego eta Leza'ren artean. Etimologi zaila du. "KA" atzizkia, Gerni-ka, Bastarri-ka, Sondi-ka eta oien antzeko izen aski ugarietan bezala, euskalduna du.

“THABU” zer izan daitekean ez dakit, baiñan erdiaroan izan zan oraingo Samaniego'ren alboan TABUERNIGA izeneko erri bat, “villa de señorío”, ots “jaun baten serbitzura zegoan erria”. Bere “jauna”, Tabuerniga arek, Aingeruen Andramari'ren lekaidetxea izan zuan. “Cabuerniga” ere esan oi zitzaion, eta baita “Cabuerneca” ere 934'ko larruki batean.

Gaur ez da an ez erririk ez lekaidetxerik gelditzen. Soilki ango iturri bati, oraindik, “Manatíal de Tabuerniga” esan oi zaio, antziña an izandako erri eta lekaidetxearen oroiz.

– IBERO. Santander'ko Fontibre'n, (ots, “Font”-“Ibre”n), jaiotzen da. “Ibre” ori, nere ustez, “Ibero”ren laburtua besterik ez da.

Ortik, (Fontibre'tik) Ibero ibaia, Ego-Euskalerrriaren barrendik len, Euskalerrriaren ego-muga marraztuz orain, Lurrat'ltxasoraiño doa.

Len, Salduba'tik 20 kilometrora Alabona Basconum (Alagon) igarota bela eskubitik Xalon (Jalon) Ibaia alkartzen zaion arte, bi aldeetatik, euskalduna zuan lur guzia.

Errialde luzea ta zabala bait zan orduan Euskalerrria: Euskalerrria zan ba Oña Aurrigoien uritik Xalon ibaiaren ibarra arte, Ibero ibaiaz aruntz, eta itxasotik itxasora, berriz, Auñamendiaren bi aldeetan. Bazan errialde zabala ere gure Euskalerrri Zar ura: Dordoña'ren aranetatik Oka-Mendien egoaldeko maldapera arte.

– IBERO. Ibai aundi orren izenik zarrena da. Ortik sortu zitzaion gar egun daramana: EBRO

Etimologi erreza du, itxuraz beintzat; “BERO” zer dan edonork badakian gauza bait da; eta jakiña bait da, baitare, “I” aurrizkia, toponimian, “UR” dala. Beraz IBERO = ARBEREA? Errezegia, egiazko etimologia izateko.

– Geroago. V mendeaz gero, Bisigoten aroa dugu. Ibilli ziran, nola ibilli ere, atertzeke euskaldunen aurka borrokan, baiñan ez ziguten Gipuzkoa'ren aipurik utzi.

Bisigoten atzetik, arabitarrak izan genituan Euskalerrriaren aurka borrokan, baiñan auek ere ez ziguten Gipuzkoa'ren aztarnik utzi.

Zergaitik?

Ez aiek —bisigotek—, ez auek —arabiarrek—, ankapean Gipuzkoa'ko lurrik sekulan zapaldu ez zutelako.

X mendean Baiona'ko gotzaia izan zan Arsius Raka jauna. Baiona'koa ez eze, Bazas, Dax, Aire, Leskar eta Oloron'go gotzaia ere bazan jaun ura. Ots, ia-ia Akitani euskaldun osoaren gotzaia! Ta, dokumentu batean, bere Elizbarrutien mugak eman zizkigun, eta ori egitean Gipuzkoa'ko toki batzuk ere aipatu ere bai: onoko auek:

– TERRA QUE DICITUR ERNANIA: “Ernania esaten zaion lurraldea”. Ederki. X mendean Ernani, erri bat baiño geiago “Vallis” edo “Aran” bat bait zan. Zabala, Donosti'ren inguruko itxas-ondo artan bai bait zijoan Oria ibaiaetik, Urumea gurutzatuta, Oiartzun'eraíño. Aran ortakoa zan, orduan, Donosti bera ere.

Ernani'ren etimologiarik ez dizu iñork emango. Nere ustez bere “ER” ori “AR” izan dezake: ARNANI. Eta bere “N”a “D” ba'lu,

ARNADI izango litzake: “Pedregal”. Bedi au ere jostaketa-moduan esana.

– SANCTUM SEBASTIANUM DE POSICU. “Posiku” Gipuzkoa omen da. Orrela diote, baiñan nik ez dut ori ain garbi ikusten. Nondik jaso ote zuan itz ori apokrifiko onen idazleak? “Euskal-izena ote da? Baleike; euskalduna du beintzat “KO” edo “KU” atzizkia.

SANCTUM, SEBASTIANUM: Bai, Gipuzkoa'ko Donosti dugu. “Izen euskalduna? Ez noski, baiñan bai izen euskaldun baten sortzaillea, badira ba Donosti Donesebatian'dik sortua dugula diotenak. Era ontan sortua: Donesebatian'dik

Donebastian; Donebastian'dik Donastian; Donastian'dik Donostian; Donostian'dik Donsot'a; eta Donost'tik DONOSTI.

Antziñako Donosti ori gaur "Antiguo" esaten zaion auzoan zegoan; baiñan goraxeago; oraingo Mirakontxa-aldean. Itxasoa ere goraxeago igotzen bait zan orduan.

Donosti'z mintzatuko gera Aldizkari onen urrengo zenbakian, XI mendeko larrukiak aztertzerakoan, gaurko saiaketa onek jarraipena izango bait du.

– SANCTAM MARIAM DE AROSTH: Ez da erreza, antziñako Gipuzkoa'n Arosth'eko Andramari non egon zitekean igartzea. Etimologirako, "aros", "arros", "aroz" eta "arroz" asten diran izenak, bai, ugari ditugu. Beren zentzua "arotza" dala esan oi da, baiñan batzuetan, adibidez, Arrozpe, Arospide eta Arrozkizta bezalako itzetan "arri"ren laburpena dan "AR" bat badagoala esango nuke nik.

Eta Arosth orri etimologi egoki bat billatzea gaitza ba'da, ez da errezagoa non zegoan jakitea. Danadala itxasotik urruti egon bear zuan, apokrifo orren urrengo aipua San Adrian'go mendatea dalako.

"ARAOZ ote zan mirarizko Arost ori? Badago ba bi izen oien artean antzarpiska bat. Eta uste ontakoa atera bait zitzaigun gure Serapio Mujika ere (R.I.E.F. 1917, 190).

Baiñan izan dezake beste etimologi bat itz onek. "H" komodin bat bezala erabiltzen zuten lumalari zar aiek. "Itz ontako "H"a "I" baten lekuan ba'lego, "-AROSTH", AROSTI izango litzake, euskal-itxura aundiko izena, "Aresti" ta "Aristi"ren senidea.

– SANCTAM TRIANAM (San Adrian). Gipuzkoa'ko Zegama eta Araba'ko Asparrena'ren artean, Aizkorri'n, dagoan erromes-bide zarraren mendatea da. Bada noski itz au lumalari zar aien idazkeran izenek jasan dezazketen aldakuntzen adigarri bikaiña: "Adrian", "Trianan" biurtu! Ez da biurketa makala!

Ez dakit esan dedan larruki au apokrifoa dala. Apokrifoa dalako, dokumentu au ez zuan Arsius gotzaiak idatzi. Apokrifoa dalako ez da, ezta, X mendekoa, XII mendekoa baizik.

Orrek ordea ez du esan nai baliorik gabea danik, apokrifoak ez bait dira besterik gabe zaramategira jaurti bearrak.

Eta oraindik Aldizkari ontan berriro apokrifoak erabili bearko bait ditut eta edestiari-buruzko nere liburuetan maiz erabiltzen bait ditut, nai izan dut apokrifoetaz nere oldozkera ementxe ta orain agertu.

Ortarako idatziak dituzu, irakurle, onoko nere lerrook:

APOKRIFOEN ARAZOA

"Apokrifo" itza, elenerazko "kripto" itzetik omen dator. Baiñan badamaigu euskerak, itz orrek esan nai duana adierazteko, berea duan sormen bizkorretik sortua, anitz egokiagoa dan itz politago bat: "sasi-idazkia". Eleneratiko ura, ordea, Teknik'itza dalako, ura erabiliko dugu guk beti.

Aurkeztera goazen larruki zar auen artean APOKRIFOAK ere aski ugari dira, eta arduragarriak danak. Entzun Antonio Ubieto Arteta'k Piña'ko Yodoniane'ren lekaidetxeari-buruz oarrerazi diguna:

"Los documentos de San Juan de la Peña son una de las series mas abundantes en falsificaciones, por otro lado muy frecuentes en todos los monasterios medievales".

Ainzuzen —barka bekit irakurleak saiets-bidetik iges egite labor au— zerbait esan nai nuke apokrifoei buruz. Apokrifoa idazki ustela da, ez ainzuzen gezurrezkoa dalako, baizik esaten duan denborakoa ez dalako, edo, naiz esaten duan denborakoa izan, berak esaten duan idazleak idatzia ez dalako, edota, naiz ori ere egiazkoa izan, gero sartu zaion zerbait egiazkoa ez dualako.

Dokumentuen barrutian, batez ere elizgizonek idatzitako dokumentuetan, zero gezurrezkoa dan apokrifik ez da. Soilki gunea dute gezurrezkoa izan daitekeana. Zergaitik? Apokrifo oiek, jendea ta batez ere epaille eta aalmen-dutenak irabazteko idatziak izaten diralako. Beraz, naitanaiezkoa dute egiaren itxura garbiz idatziak izan bearra; eta idazleak —lekaidetxeetako lekaideak geienetan— ez bait ziran iñozoak, ederki zekiten beren idazki apokrifoak nola egiaren itxuraz jantzi, eta arreta aundiz saiatzen ziran ortan. Ortarako, gaiñera, lekaidetxeko lekaidetik yayoena aukeratzen bait zan. So egiogun orain lumalari yayoen eta jakintsuen orri bere lanean:

Jarri dezadan ortarako adibide errez bat: XI mendean Gipuzkoa'n, Altzo'n ainzuzen, lekaidetxe bat, bazan, Gartzia Azenariz Gipuzkoa'ko lenen Jaunak, ezaguna dugun 1025'ko larruki baten bidez Piña'ko Yondoniane'ren lekaide-txeari eman ziona. Altzo eta Piña bitarteko bide-erdian Leire dago. Pentsa dezagun XIII mendean Leire'ko lekaideek Altzo'ko lekaidetxe ura berenganatu nai dutela, ortarako agoz-ago iritxia duten albiste batez baliatuz, edo, besterik gabe lekaidetxe aren jabe biurtu nai dutelako. Ortako orde, lendabizi, Piña'ko lekaidetxeari kendu bear diote Altzo'ko ura, eta ori lortzeko naitanaiezkoa dute, Piña'koek gordetzen duten Gartzia Azenariz'ena baiño leenagoko dokumentu bat. Eta dokumentu ori sortzea erabaki dute. Dokumentu berri au 910'ean gure errege zan I Santxo Gartziaarena'k idatzia bezala agertuko da.

Badao gure lumalaria bere langintzara: Onako baldintza auetan aurkitu dai-teke:

– Bere lekaidetxeko liburutegian I Santxo'ren larrukirik ez duala. Orduan beste lekaidetxe batera joango litzake, I Santxo'ren larrukien billa, kopiak atarata, bere sasi-dokumentura larruki aietako idazkera al zuan egokien sartzeko, epaille zorrotzen aurrean, ots, III Santxo "Aundia"ren eta Iruña'ko gotzaiaren aurrean, berak idatzitako sasi-idazki arek 100 urte leenago I Santxo'ren lumalari-iek idatziko dokumentua eman zezan.

– Bere lekaidetxean I Santxo'ren larrukiak baditu. Ez luke orduan kanpora joan bearrik izango, III Santxo Nagusia"ren Jauregiko lumalarien idatz-estiloa, ots, idatz-kerak, bere sasi-idazkera aldatzeko. Arretarik aundiena erabilli bearke luke batez ere toponimo edo tokiizenak eta andronimo eta gizaizenak bere sasi-idazkera zintzo jasotzeko.

– Bere lekaidetxean badu I Santxo'ren larruki beretzat arras egoki bat erri bateko eliza, pentsa detzagun Tolosa'ko eliza Leire'ko lekaidetxeari emateko idatzia. Oso erreza gertatuko litzaioke baldintza ontan bere lana: Larruki ori zintzo bir-idatzi, ta "Altzo'ko Lekaidetxea" sartzea, ots, "trado ad monasterium Legerense ecclesiam Sancte Marie de Tolosa" jartzen duan tokiaren atzetik "similiter trado cenobium Sancti Salvatoris de loco que dicitur Alzzo" idaztea.

Leire'ko gure lumalariak idatzitako apokrifo ortan "zer izango litzake ustela, faltsoa"?

Auxe bakarrik: Urtegarrenari dagokiona, idazki ori ez bait litzake amargarren mendean idatzia izango, amaikagarrenean baizik, eta jabeari dagokiona, idazki ori ez bait litzake III Santxo'k aginduta idatzia izango, I Santxo'k aginduta baizik.

Eta emaitza bera ez al litzake faltsoa izango? Ori jakiterik ez dugu. Leire'ko Lekaideei agoz-ago iritxitako albiste ura, ots, I Santxo'k Altzo'ko lekaidetxea eman zietalako ori, naiz ori aitortzen zuan dokumentua galdua izan, egia izan bait zitekean. Baiñan ori egiztatzeko, apokrifo orrek ez luke balioko, I Santxo'ren denboran eta onen aginduz idatzia ez dalako.

Ortan dago Apokrifo baten ustelkeri ziurra. Gaiñerako guztia egia izan bait

daiteke. Ez bait ziran tontoak apokrifo bat idazteko agindua artzen zuten lumalariak.

Orregaitik, oso zailla gertatzen da larruki zarretan zer dan egiatzkoa ta zer gezurrezkoa jakitea. Entzun berriro Ubieto Arteta'ri:

“No se ha señalado con precisión que, documentos son autenticos cuales son falsos. Con ello se han utilizado indistintamente datos espúreos en la redacción de muchos trabajos históricos hechos con gran rigor científico. O se atribuyen al siglo X u XI visiones fraguadas por los falsificadores de la , poca de Jaime I”. Aragoi'ko I Jaime XIII mendekoa da.

Itz oiek Piña'ko larrukiei-buruz esanak dira. Baiñan berdin balio dute beste lekaidetxeetako larrukientzat, eta zer esanik ez erregeen jauregietako idaztegieta idatzitakoentzat.

Guzti orrek au esan nai digu: oso gauza zailla dala apokrifokerien idoroketa. Lan neketsua ta luzea egin bear izan omen du berak dionez, Ubieto Arteta'k ere, ustelkeri oiek Piña'ko larrukietan aurkitzeko: “casi veinte años de estudios continuados sobre los fondos pinatenses hasta llegar a separar lo auténtico de lo falso”.

Ori egia dalarik, ez dira apokrifoak besterik gabe zaramategira jaurti bearrak, eraspen aundiz eta arretaz aztertu bearrak baizik, bertan, idazkiaren mamia ez dan oro, —ots, toponimiari, antroponimiari ta gizarte-giroari dagokiena— egiatzkoa izaten bait da, apokrifogilleak bere elburua lortzearren idazterakoan jaramon aundiz zaindua.

Esandakoak ez du balio “leyenda” edo “kondairazko-liburuentzat”; ezta Martirien “Passio”-liburuentzat ere, auen elburua, ainzuzen, — naiz geienetan asmo onez—, irakurlea goxoki, atseginki, eta santuki! atzipetzea bait da. Ori bera esan daiteke, ia-ia gaurregun-aurretiko edesti-liburuei-buruz ere. Edestia bera, irakurleak atzipetzeko sortua bait da! Ikus nola, nere ustez:

Gizadi zaarrean, Laterriaren antzeko zerbait sortu zanean, gudarako gizandi indartsuak ziran “Laterriaren antzeko zerbait” artan pertsonarik garrantzitsuenak. Bazan, ordea, “Laterriaren antzeko zerbait” aietako batean gixontxo txiki, aul, elbarri bat. Beñ ordea, “gizandi oietako bat baiño aundiagoa izateko bazekiat zer egin”, esan zion bere buruari: “idazten ikasiko diat; eta gudara joango nauk gizandi oiekin eta Errege ber-berarekin, eta gudan gertatua idatziko diat, gizandi oien eta batez ere erregearen jardunkera al dedan guztia goratuz. Eta borroka galtzen dutenean ere, nere lumaren yayotasunaz garaitza biur-tuko diat nik porrota”.

Laister, gixontxo ori zan, erregearen ondorean, ango lenen agintaria.

Orrela sortu zan edestia, eta bide ortatik jarraitu digu mendeak-zear.

Latiegi'tar Bixente'k 945.22.00.50

TOKI-IZENAK ETA ABIZENAK

(2n. MOLTZOA)

“Euskerazaintza” aldizkarian XLIX zenbakian argitaratu doguz toki-izenak eta abizenak, 1º moltzoa, guztiz irureun-bat. Eta gure irakurleen artean arreta aundiaz artuak izan dira. Baiña irureun ez dira ezer ogeta amar milla baiño geiago doguzanean. Orregaitik bigarren moltzo au argitaratzea erabagi dogu.

•••

Zergaitik izan ete dira ain onartuak?

Ona emen ikusten dodazen zio batzuk: Geure jatorria maite dogulako, or gaur galduta dagozan izen asko agertzen diralako, eta ez izenak bakarrik, atzizkiak be asko eta asko gaur galdutzat daukaguzanak. Euskerea ikasteko eta orretan sakontzeko bidea dogu ba au. Esaterako, gaur “uria” izena erderazko “villa” esateko baiño ez dogu erabilten, baiña antxiñako euskeran zerbait geiago be adierazten eban: “Uriarte” izeneko etxea ez dago errien artean, “Uribitarte” ez dago erri biren artean, “Uribarrena” ez dago erri baten barrenean, edo Urigoien, Uribarri, Urizar, Urioste... Bardin esan bear “zar” itzari begira, eta abar.

•••

Irakurleen egarri ori asetzeko, bejoa moltzo barri au, bigarrena, eta abizen bakotxean itzaren jatorria eta non edo noz lenegoz agertzen dan azalduko dogu, edo etxea non dagon.

ABIZENAK

Abendaño: Erri bat dago Gasteiz-ondoan eta abizena Jauntxuen artean agertzen da Arratia'n eta Elorrio'n. Batzuk Galizia'tik etorria dala diño.

Arandanoak dagozen tokia esan nai dau eta Azpeitia'n agertzen da 1353n. urtean.

•••

Abrisketa: Abarizketa'ren laburpena da eta karraskak edo abalak dagozen tokia esan nai dau.

Basauri'n eta Arrigorriaga'n agertzen da. Lazkano'n 1618n. urtean.

•••

Atxaga: Atxa dagon tokia esan nai dau, baiña izan daiteke Arizaga'ren laburpena eta au aritxa dagon lekua litzake.

Zumarraga'n daukagu 1478n. urtean.

•••

Atxotegi: “Atso” emakume zarra izan ezkerro, atsoa bizi dan lekua litzake, Mitxelena'k diñoanez. Lopez Mendizabal'ek “atxo” sasia dala diño.

Amoroto, Bergara ta Eibar'en

•••

Atxukarro: “Atxu” sasia izanik eta “arro” aldapea, sasiak dagozen aldapan dagoan etxea litzake.

Berastegi'n agertzen da 1759n. urtean.

Atxuri: Atx zuria esan gura dau eta Bilbao'n dago izen orregaz auzo bat, Mungia'n be bai beste bat. Ubide'tik Gorbeia'ra bidean antzekoa dan "atxurdin" dago.

Bilbao'n agertzen da 1524'an.

•••

Atxutegi edo **Atxotegi:** Emakume zarra bizi dan lekua, diño Mitxelena'k, Lopez Mendizabal'ek, ostera, sasia dagon lekua.

Mungia eta Aulestia'n dago gaur baiña 1654n. urtean Bilbao'n agertu zan.

•••

Ayesta: "aies" otea da eta izenak orduan otea dagon lekua adierazten dau. Iruña'n agertzen 1713'an.

•••

Aginagalde: "Agina" landara bat da, erderaz "tejo". "-aga" mugatzaille sendotua eta "-alde", urrean dagoana. Agiñetik urrean dagon etxea, litzake dana.

Errexil'en sortua da eta Aramaio'n agertzen da 1769n. urtean.

Agiriano: Agiña deritzen landarak dagozan lekua.

Eskoriatza'n eta Gatzaga'n agertu zan, baiña lenengoz idatzita Eskoriatza'n bertan 1506n. urtean.

•••

Agirre: Abizen au bat izan leiteke beste batzukaz: Agerre, Agarre... eta olako izena daukan etxeren bat erririk geienetan dago, Euskalerrri osoan. Gipuzkoa'n 45 etxe. Oñate'n 5.

Agirian dagoan etxea esan nai ei dau. Lopez Mendizabal'ek barrutia dala diño. Elorrio'n agertzen da, 1575n. urtean.

•••

Agirrebengoa: Agirre izena daroan etheen artean berengoa esan nai dau. Legazpia'n agertzen da 1731n. urtean.

•••

Agirretxe:(-txo edo -txu): Agirre'ren etxea edo etxe txikia.

Bilbao'n agertzen da 1621n. urtean.

•••

Aibar: Naparroa'n dago izen ori daroan erria.

"Ai-" bedar-lekua ei da, aldapa be izan leiteke. -bar atzizkia da.

Naparroa'n 698n. urtean Rekaredo bisigodoaren aurkako gudan agertzen da abizen au eta ordutik sarritan Naparroa'n.

•••

Aizarna: Aiz aritz'etik etorria da eta -na atzizkia ugaritasunaren ezaugarri da. Orduan, Aizarna arizti aundia da.

Aizarnaeta agertzen da 1212n. urtean Nabas de Tolosa'ko gudaldian.

•••

Azpilikueta: Aitz izan leiteke aitz naiz aritza.

Tolosa'n agertzen da 1609n. urtean eta Jabier santuak daroan bere abizenen artean, baita "Doctor Nabarrus" ospetsuak be. Naparroa'n ugari agiri da.

•••

Alaba: Ala- bedar lekua da eta -ba ugaritasuna. Izena Leon'en 886n. urtean.

Gamarra'n agertu zan eta ortik Aiala'ra ta Naparroa'ra igaro.

1561n. urtean Iruña'n daukagu.

•••

Alaiza: Alai- bedar-lekua da eta -tza atzizkia, ugaritasuna. Bedarra ugari dauan barrutia dogu ba.

Araba'n agertu zan XI gizaldian.

Alaña: Ala- bedar lekua da eta -na ugaritasuna.
Aiala'ko Menagarai'n agertu zan, gero inguruetan eta Bilbao'n.

•••

Alberro: Alber- bedar sikua da eta -o ugaritasuna. Mitxelena'k "arri" eta "berro" alkartzen dauz eta arria dagon ezo-lekua dala diño.
Ataun'en agertzen da 1399n. urtean.

•••

Alboniga: Alb- bedar legortua da eta -ni- ta -ga toki-atzizkiak.

•••

Alkorta: Ala- bedar lekua da eta -korta abereak atsedentzen diran lekua, erderazko sel, ortik datoz Kortazar eta abar. Orduan bedarlekuan dagoan atsedent-lekua.

Azkoitia'n agertzen da 1550'an.

•••

Aldaba: Aldape'ren aldakuntza da eta aldapa baten barrenean esan gura dau.

1554n. urtean Naparroa'n agertzen da. Aldabe Nabas de Tolosa'n 1212n. urtean.

•••

Aldama: Alda- mendiaren aldapa da eta -ma toki-atzizkia.
Aiala-inguruan agertua da eta lenengoz Balladolid'en 1520'an.

•••

Aldabalde: Aldaba da oiñarria eta onek mendiaren aldatzaren barrenean esan gura dau. Orren ondoan dagoana litzake aldabalde.

Gipuzkoa'n zabal dabil eta 1637n. urtean Urretxu'n agertu zan, baiña askoz lenago 1212 Tolosa'ko Nabeta'n izandako gudaldian agertzen da.

•••

Aldasoro: Soraluze'n eta inguruetan agertu zan eta aldapan dagoan soloa esan gura dau.

1475n. urtean abizen au eukan Segura'ko alkateak.

•••

Aldai: Zabal dabil Euskalerra osoan eta Alda mendi aldapa izanik, -i ez da besterik toki-atzizkia baiño. Fruniz'en antxiñako torrea egoan muñoaren alboan dago Aldai etxea eta ortik datorrela diño Torreal dai abizena.

Eibar'en agertzen da 1613n. urtean.

•••

Aldazabal: Aldapa zabala. Azkoitia'n 1415n. urtean.

•••

Aldekoetxea: Urrean edo alboan dagon etxea esan gura dau. Gipuzkoa'n zabal dabil.

•••

Altonaga: Amurri'o'n agertu zan eta altun erderazko yezgo deritxon bedarlandarea da eta -aga toki adierazten dauan zeintzaillea.

•••

Alzuaga: Zeanuri'n dago auzo bat eta toki arritsua da. Ori esan gura ei dau berbeak: "Arritsuaga". Azpeitia'n agertzen da 1580n. urtean.

•••

Amallo(a): Markiña'n agertzen da.
Maillo bedar-lekua da eta au bardin.
Balladolid'en 1775n. urtean.

•••

Amantegi: Meñaka'n sortua ei da baiña erri onetan galdu da. Ubidea'n dagoz.

Ama- bedar-lekua dan ezkerro, -tegi'k ugaritasuna adierazten dau.

Amaia: Naparroa'n, 1454n. urtean. Mendi bat dago Burgos-Palencia'n. An amaitzen da Euskalerrria.

"Ama" bedar-lekua da baiña azkena adierazteko erabiltzen da. Sarritan agertzen da Balladolid'en.

•••

AMESTI (Amestoi): Ziortza'n eta Gernika-aldean dago.

Ametza aritz-antzeko zugatza da eta -ti edo -tui Atzizkia (masti=marazdui) ugaritasunaren atzizkia da.

1566n. urtean Donostia'n agertzen da.

•••

Amezola: Ametza aritz-antzekoa dala, -ola'k atzizkia danean ugaritasuna adierazten dau (Urki-ola).

•••

Amorebieta: Amore- bedar-lekua da, eta atzizkia -bideta izan daiteke. Barrutietarako bidea. Beste batzuk: "karraskal" amo- eta -ibieta dala diño. Lenengoa da argiagoa. "Amuritza" be ortik letorke.

•••

Amorrortu: Bedar-lekua dan ortua izan daiteke. Balladolid 1685.

•••

Amundarain: Ataun'en dago etxea eta Zegama'n agertu zan 1626n. urtean.

Ama- bedar-lekua da eta -da toki-atzizkia, -ain'ek gaiñean esan gura dau. Bedarlekuaren gaiñean dagoana.

•••

Anaia: Ba-dago erdel-errian be eta ez dakigu emendik joana dan. Alema-
nia'tik etorria dala be ba-diño.

Bedar-lekua esan gura dau.

1537'an Jerusalem'go Juan Deunaren taldean agertzen da.

•••

Antxia: Ibarra'n dago etxea, baiña Aragoi'n be ba-dago.

1699n. urtean Santiago'ko zaldun batek dauko.

•••

Andia: Bedar-lekua izan leiteke. Tolosa'n dago etxea.

Yezgo deritxon bedarra dagon lekua esan nai dau.

Tolosar baten eukan abizen au 1346n. urtean.

•••

Andikona: Iru etxe Berriz'en.

Andi- bedar-lekua eta -ona toki-atzizkia.

•••

Andraka: Lemoniz'en dago auzo bat eta izen ori dauken iru etxe.

Andi- bedar-lekua da eta -ka zer esan nai dauan ez dakigun atzizki ugaria.

Bilbao'n 1615n. urtean.

•••

Andrinoa: Bizkaia'n zabaldu eta jatorriz Andrino da.

Balladolid'en agertzen da 1515n. urtean.

•••

Anduiza: Natxitua'n dago etxea. Naparroa'ra be zabaldu da.

Andu- bedar-lekua da eta -tza ugaritasuna.

Naparroa'ko epaitegietan 1520n. urtean agertzen da.

•••

Angiano: Errioxa'tik dator eta Mendibil'en agertzen da idatzita 1335n. urtean.

Angi- gamon deritxon landarea da. Lili-antzekoa.

Angiozar: Izen ori daukan errian sortua da eta Elgeta'n be ba-dago etxe bat. Erderazko gamon da angio lili antzeko landarea da. -Zar landu bakoa dala dirudi, berezkoa. Aundia be izan leiteke: Ori da txakur-zarra!
Angiozar, orduan, lili-antzekoak diran berezko lorak dagozen tokia da.
Arrasate'n agertzen da 1530n. urtean.

•••

Anso: Ando'ren atzera, bedar-lekua da. Euskalerrria'n oso abizen zarra da. Ortik ei dator erderazko Santxo. IX gizaldian agertzen da.

•••

Ansoategi: Anso bedar-lekua dala, -tegi'k asko ta batuta dagozela diño. Anso eta Santxo'ren etxea be izan daiteke.
Arrasate'n 1566n. urtean daroa batek abizen au.

•••

Antia: Zegama'n etxea, baiña jatorriz andia dala dirudi. 1644n. urtean daukagu Urretxu'n.

•••

Aoiz: Izen au dauken erriak ba-dagoz, eta abizena Lunbier edo Ilunberri'n agertzen da 1531n. urtean. A- gorokoa da eta oiz barruti-lekua.

•••

Apalategi: Lazkao'n etxe bi. Batzuk bizileku apala esan nai dauala diño, baiña ziurrago karraskak edo arte txikiak dagozan lekua. (Apak).
Getaria'n agertzen da 1474n. urtean.

•••

Apaolaza: Motriku'n eta Mutiloa'n etxeak. Apaola: Arte txiki asko eta -tza asko-tokia. 1672-Segura'n.

•••

Aperregi: Araba'n agertu zan, Zuia-aldean 1681n. urtean. Gero Bizkaï'ra zabaldu da.

Arte txikiak edo carrasca'k dagozen egia edo aldapea da.

•••

Apestezia: Baigorri'n eta Baztan'en etxeak.
Abadearen etxea esan gura dau, baiña apal edo arte-txikien tokia be izan daiteke.

1711n. urtean Santiago'n agertzen da eta sarritan epaitegietan.

•••

Apodaka: Araba'ko Zigoitia'n dago erri bat. Gero Muxika'n eta Arratia'n abizena.

Arándano edo garau baltzak dauzan basarana da, ori zan antxiña apo- eta -aka toki-atzizkia.

Abizena Bilbao'n agertzen da 1770n. urtean.

•••

Apoita: Mallabia'n agertzen da 1563n. urtean. Gero Zeanuri'n.

Apoi-arandano edo aranbaltza da eta -ta toki atzizkia: -eta.

•••

Apraiz: Busturi'n agertzen da eta Bizkaia'n zabal dabil. Arte txikien tokia. 1645n. Urtean Arrasate'n.

•••

Arabaolaza: Legazpia'n eta Amoroto'n etxeak.

Ara- bedar-lekua da, -ola- eta -tza ugaritasuna atzizkiak.

1558n. urtean Urretxu'n abizena.

•••

Arabio: Elorrio'n iru etxe, -goikoa, -bekoa eta -urrutikoa.

"Ara" irea da eta -bi- eta -o toki atzizkiak.

1575n. urtean Elorrio'n abizena.

Araluze: Bilbao'ko Abando'n eta Naparroa'n dagoz etxeak.
Izan leiteke "aranluze", ibarluzea, edo iratza luzea.
1751n. urtean Bilbao'n.

•••

Aramaio(na): Araba'ko errialdea da eta bizkaieraz berba egiten dau.
Ara- irea da, -ama- ta -io toki-atzizkiak.
1461n. urtean Gatzaga-Leiniz'en agertzen da eta gero sarritan Arrasate'n
1530n. urtean.

•••

Aranburu: Zabal Euskalerra osoan. Ibarren goi-aldea esan gura dau.
Segura'n agertzen da 1374n. urtean.

•••

Aramendi(a): Andoain'en eta Ordizia'n etxeak.
Ara- irea dan ezkerre, irea dagon mendia litzake.
Eibar'en agertzen da lenengoz 1618n. urtean.

•••

Aranalde: Gorriti'n eta Gipuzkoa osoan.
Aran-landarak dagozen lekutik urtean esan gura dau. Aran ibar lez artu
ezkerre, ibarren ondoan da.
1611n. urtean agertzen da Tolosa'n.

•••

Aranaz: Aran izan leiteke landara bat edo ibarra. -az toki-atzizkia da.
Orduan aran-landarak dagozen lekua edo ibarrean.
Aranaz Naparroa'ko errian agertzen da etxea eta idatzita lenengoz 1692n.
urtean Santiago'n.

•••

Arandia: Durango eta inguruetan agertzen da etxea.
Aran-landarak dagozen lekua esan gura dau.
Balladolid'en agertzen da idatzita 1643n. urtean.

•••

Aranegi: Aran ibarra da edo landarea. Izan leiteke Aran-landarak dagozen
aldapa edo ibarra dan ikuspegia.
Gipuzkoa'n agertzen da.

•••

Arangiz: Araba'n eta Markiña-aldean dagoz etxeak.
Aran landarea da eta -gi edo -di ugaritasun-atzizkia. -z abizenaren ezauga-
rri.
1538n. urtean idatzita dago Balladolid'en.

•••

Aranguren: Bizkaia'n toki askotan dagoz etxeak, Zeanuri'ko Ipiñaburu'n
be bai. Gipuzkoa'n eta Araba'n be toki askotan.
Goren dagon arana izan leiteke.
Eibar'en agertzen da idatzita, 1578n. urtean.

•••

Aranzabal: Ibarzabal lez bardin. Elgeta'n agertzen da 1415n. urtean.

•••

Aranzadi: Ezkioga'n iru etxe. Arantza asko dagon lekua da.
Tolosar batek daroa abizena 1346n. urtean.

•••

Arakistain: Elgoibar'en da toki izena.
Ara-ireak izan ezkerre, -usta ugari-atzizkia da eta -ain'ek gaiñea adierazten
dau. Ira asko dagon tokiaren gaiñean.
Elgoibar'en agertzen da idatzita 1657n. urtean.

Arauko: Arau- irea da eta -ko toki atzizkia. Ireak dagozen tokiko etxea. Itxas-gizonen artean agertzen da 1768n. urtean.

•••

Arbe: Gipuzkoa'tik eta Naparroa'tik dator. Alba bedar legortuaren lekua da, arriaren barrena be izan leiteke. Azpeitia'n 1348n. urtean.

•••

Arbelaiz: Irun-inguruan sortzen da eta arbelezkoa (pizarrazkoa) dan aitzia esan nai dau. 1618n. urtean agertzen da Santiago'n.

•••

Arberas: Benabarra'n sortua da eta andik zabaldua. Arripena gogoratzen dau eta be-aldea edo berantza. 1686n. urtean idatzita dago.

•••

Arbizu: Izen orretako erria Naparroa'n. Arbia "nabo" lez artzen dogu eta -tzu'k ugaritasuna dakar. Arbi asko dagon lekua. 1461n. urtean agertzen da Oñate'n abizen au dauan Rejidore bat.

•••

Arbolantxa: Abizen zarra da Bizkaia'n. Mungia'n be bai. 1493n. urtean agirietan dago. 1212n. urtean Nabas de Tolosa'n agertzen da.

•••

Arbulu: Arri-buru edo aitzaren goi-aldea da. Gipuzkoa'n dago geiago, baiña Elorrio'n be bai. Oiartzun'en 1570n. urtean.

•••

Arze: 300n. urtean Santander'en dago eta andik datoz Bilbao'ra. Arri-lekua dala dirudi. Oñate'n agertzen da 1724n. urtean.

•••

Aretxabala: Antxiñako toki izena Bizkaia'n. Batzar-lekua Bizkargi-azpian. Arizti zabala da. Bilbao'n 1661n. urtean.

•••

Aretzederra: Gamiz'en dago etxe bat izen au daroana. Itzak esangurea argi dauka: Aitz aundia dagon lekua. Bizkaia'n zabaldu da, baiña ez larregi. Santiago'n 1684n. urtean.

•••

Aretxeta: Fruniz'en arizti aundi bat: Diego Aretxeta: Diatxak. Bakio'n be etxea. Aretxak dagozen lekua da.

•••

Areilza: Bermeo'n XIV gizaldian. Ara- irea izanik, atzizki bi -il- eta -tza. Baiña ariztia be izan leiteke.

•••

Areitio: Bizkai'koa da eta ara- ire-lekua izan leiteke eta bedar-lekua, edo aritz-lekua. -ti- ugaritasuna da eta -o toki. Zaragoza'n 1826.

•••

Areizaga: Gipuzkoa'n asko agertzen da. Markiña'n be bai. Arizta dagoan lekua da. Elgoibar'en 1658n. urtean.

Areso (Arezo): Gipuzkoa'n geien. Ara- irea edo bedarlekua litzake eta -so aundi atzizkia. Iratxe aundia dagon tokia. Beste batzuk aritza'tik dakarre eta beste batzuk area'tik. Legazpia'n 1522.

•••

Arespakotxaga: Elorrio'n 1468. Jauregi bat dago bertan.

•••

Aresti: Elorrio'ko Zenita auzoan. Aritz asko dagon lekua da. Bilbao'n 1660 urtean.

•••

Argatxa: Izan leiteke arga- bedar lekua ta -tza ugaritasuna edo Arrigatxa, igoteko gatxa da aitzia. Bilbao'n agertzen da geien.

•••

Argandoña: Araba'n Estibaliz-ondoan erria. Arga- bedarlekua da eta -do- ta -ña toki-atzizkiak. Gasteiz'en agertzen da 1520'an.

•••

Argoitia: Ondarroa'n. Ara- irea edo arri-aitza. -Goitia goiko aldea. Bilbao'n 1721n. urtean.

•••

Arginzoniz: Berriz'en. Arga- bedarlekua da eta -in- eta -ona- toki atzizkia, -iz abizena dala adierazteko. Arrasate'n 1596.

•••

Aritxuluaga: Gipuzkoa'n. Toki sakonean, zuloan, dagon aritzia litzake. Ondoko edo barruko etxea.

•••

Arieta: Elorrio'ko miota auzoan iru etxe dagoz. Ireak edo bedarra dagozen lekua. Elorrio'n 1575.

•••

Ariño: Bizkaia'n asko. Antxiñatik, gaiñera: Teruel'en 1411n. urtean agertzen da. Ireak dagozen lekua da.

•••

Aristi: Anzuola'n etxea. Aritz-moltzoa dagon lekua da. Elgeta'n 1650n. urtean.

•••

Arnaga: Mungia'n auzoa. Elorrio'n be bai. Aranaga'tik, orduan aranak dagozen lekua. Okaranak?

•••

Arnaiz: Enkarterrian. Aranak dagozen lekua dala dirudi. 1654n. urtean Balladolid'en.

•••

Arozena: Arotzaren etxea esan gura dau. Naparroa'n eta Gipuzkoa'n zabaldu da. Agertu Azkoitia'n 1669n. urtean.

•••

Artatxo: Artea dagon lekua. Bizkai'tik Aragoi'ra joan ziran. Balladolid'en sarritan agertzen da. Santiago 1704n. urtean.

•••

Artiñano: Laudio'n eta inguruetan. Artea dagon lekua baiño ez dau esan gura. 1637n. urtean Balladolid'en agertzen da.

Arzak: Donostia'n agiri da 1525n. urtean.
Altzak dagozen lekua esan gura dau eta ba-leiteke iparraldetik etorria iza-
tea. Emengo Alzaga'ren antzekoa.

•••

Arzadun: Altza'n iru dagoz.
Artza arritza da eta -dun tokia.
1566n. urtean donostiar batek daroa abizen au.

•••

Arzalluz: Errexil'en eta Azpeitia'n dagoz etxeak.
Arritza luzea esan gura dau.
Azpeitia'ko batek daroa 1570n. urtean.

•••

Arzubieta: Bizkai'koa da.
Arrizko zubiak dagozen lekua esan gura dau.
Elorrio'n agertzen da 1575n. urtean Arzubialde lez.

•••

Arraitz: Ulzama'n agertu zan eta andik Gipuzkoa'ra.
Arro- ta -aitz dira osokiak. Arroa mendi txikia da eta aitz ba-dakigu zer dan.
Orduan aitzean amaitzen dan menditxua da.
1690n. urtean agertu zan idatzita Gipuzkoa'n.

•••

Arralde (Arraldi): Atxa agri dan aldea edo tokia.
Naparroa'n agiri da 1362n. urtean.

•••

Arrana: Gamiz'en dago etxe bat izen au daukana. Izan leiteke arana'ren
aldakuntza baiña ziurrago Arro- eta -ana toki-atzizkia. Menditxua.
Getariar bat agiri da abizen onegaz 1474n. urtean.

•••

Arrate: Elorrio'n, Bedia'n, Markiña'n eta abar agiri da baiña Lizartza'n
dagoz Arrate-goiena ta -barrena.
Arri-lekura atea da. Elorrio 1528.

•••

Arratia: Bizkai'ko aran eder baten izena da. Gipuzkoa'n eta Bizkai osoan
toki askotan dago.
Lopez Mendizabal'ek diñoan lez, barruti edo bedar-lekua da egokiena,
baiña izan leiteke arro edo mendi txiki asko (-ti) dagon lekua.
Segura'n daroa batek 1374n. urtean.

•••

Arretxe: Arrizko etxea.
Getaria'n agertzen da 1474n. urtean.

•••

Arregi: Euskalerririk geienean agertzen da, batez Gipuzkoa-inguruan.
Arria dagon egia edo arrizkoa dan aldapa esan gura dau. Olako tokian
dagoan etxea.
1590n. urtean Balladolid'en idatzia.

•••

Arrese: Bidania-inguruan agertzen da eta Otxandio'n dogu ezaguna.
Arretxe'ren aldakuntza dala dirudi.
Oñate'n daroa batek 1461n. urtean.

•••

Arriaran: Ormaiztegi inguruan dau jaiotza.
Arrizko ibarra esan nai dau (Arana).
1384n. urtean daroa batek Segura'n.

Arribaltzaga: Argentina'n agertzen da eta arri baltzak dagozen tokia esan nai dau.

•••

Arrigorriaga: Erria Bizkaia'n. An Jaun Zuria'ren gudaldi mitikoa eta odolez arriak gorri.

Arriak gorri dagozen lekuan esan nai dau.

•••

Arruabarrena: Mendi-muño baten barrenean dagoana.

Gipuzkoa'n agertu zan eta gaur Bizkaia'n be ba-dago. Argentina'n be bai. Tolosa 1803n. urtean.

•••

Askasibar: Angiozar'en, 1624.

Askak edo aritz antzeko landarak daukazan ibarra.

•••

Askorbe: Aitz eta gorri, baiña au ez da margoa, utsa baiño: "Gose gorria ikusi dogu". Orduan: Aitz utsaren bean dagona.

1773n. urtean Gatzaga'n agertzen da.

•••

Astaburuaga: Asa- sasia da eta aseta sasi-lekua. Olakoaren goian dagoan etxearen izena litzake au.

Gatzaga'n agertzen da 1603n. urtean.

•••

Asteasu: Aseta sasi-lekua izanik, olako asko dagon lekua izango da -tsu atzizkiak agertzen dauan lez.

1531n. urtean Iruña'n daukagu.

•••

Astobieta: Aste sarritan arte'ren ordezkua izaten da. Asto-bideta arteak dagozan lekura bideak dira.

1479n. urtean Segura'n.

•••

Astobiza: Aiala-aldean dabil zabalak, baiña Berriatua'n be bai.

Astobi- sasitza obia edo lekua ba'da, -tza atzizkiak tokia ta ugaritasuna agertzen dauz.

1733n. urtean agertzen da idatzita Bilbao'n.

•••

Astola: Aseta sasiak izan ezker, -ola atzizkiak ugaritasuna adierazten dau. Sasi asko dagon lekua. Elorrio 1625.

•••

Astondo(a): Toki izen au zabal dabil: Zenaurre'n etxea, Gorkiz'en tokia...

•••

Aste- artea ba'da, arte-ondoa esan gura dau, baiña aitzia izan ezker, atxaren ondo.

Aramaiona'n 1808n. urtean.

•••

Astorki: Toki izen au Euskalerra'n ainbat lekutan dago eta landara baten izena da. Astorki asko dagon lekua Astorkitza da. Bedar-antzeko landara loretsu orreik ugari dagozan lekua.

•••

Astrabudua: Erandio'n dago auzo bat eta Artaburua'tik etorria dala diño.

•••

Artaza: Euskalerra osoan zabaldu da, Gorkiz'tik urtenda.

Arte asko dagon lekua da. Arte ta -tza.

Balladolid'en agertzen da 1538n. urtean.

Asturizaga: Ortik dator Fruniz'en Astuitza deritxon etxea. Urrean dago Fortunio erri-sortzaillearen torrea eta onek Asturias'en egin eban gudaketa. Asturias'tik Asturizaga? Baiña jakitunak Astur-sasia dala diñoe eta izen au sasia dagon lekua. Bitartean -tza! asko.

•••

Asua: Leku askotan dago Bizkaia'n eta kanpoan, baita Galizia'n eta Extremadura'n be aurkitzen dogu "azuaga". Nondik nora?
Ez dago argi jatorria.

•••

Ataun: Gipuzkoa'n erria.
Otea ugari dagon lekua ei da.
1343n. urtean Beasain'en dago eskribau bat abizen au daukana.

•••

Atauri: Erri batera sarreran edo atean dagoan uri edo aldapa dala dirudi.
Gasteiz'en dago abizena. Araba'n erri bat.

•••

Ateka: Mungia'n dago ugari.
Otea dagon lekua izan leiteke.
Bilbao'n agertzen da 1750n. urtean.

•••

Atorrasagasti: Atorrea'ko sagardia da, baiña atorrea? Sasia ei da.
Andoain'en agertu zan.
1656n. urtean Elduaien'en dago.

•••

Aulestia: Erri baten izena Bizkaia'n.
Uli- irea da eta -st- askoren atzizkia. -ti- be bardin.
Getaria'ko zinegotzi nagusiak abizen ori daroa 1474n. urtean.

•••

Azagra (Azarraga): 1550n. urtea Zeanuri'n daukagu.
Azar- sasia da eta orrela sasia dagon lekua.
XI gizaldian Aragoi'en agertzen da. 1535n. urtean Iruña'n.

•••

Azkain: Atxaren gaiñean esan gura dau.
Laburdi'n sortua da eta andik Naparroa'ra. 1500n. urtean Canarias'era eldu zan.

•••

Azkarraga: Elorrio'n iru etxe 1461n. urtean Oiñatiar batek daroa abizen au.
Azkar edo "arce" dagon lekua da.

•••

Azpillaga: Baizama'n 1654n. urtean.
Azpil aitz biribilla izan leiteke.

•••

Azpitarte: Elgoibar'en eta Durango'n dago.
Aitzen bitartean dagoana da.
1567n. urtean idatzita da.

•••

Balardi: 1551n. urtean Arrasate'n agiri da. Bizkaia'n be ba-dago.
Belardi'tik etorria? Bedar asko dagon tokia.

•••

Balzola: Ospetsuak Dima'ko kobak.
1461n. urtean Oñatiar batek dauko abizen au.
-ola ugaritasuna agertzeko da baiña zer da bal-? Altza izan leiteke eta B-gero ezarria. Orrelan altz asko dagon lekua.

Bakedano: Bake- edo ake- sasia da eta -da- ta -no toki-atzizkiak.
1305n. urtean agertu zan izen au daukan errian.

•••

Bakio: -aka- sasia da. b- gero ezarria eta -o toki-atzizkia.
1650n. urtean Oria-ko Alegi'n agertzen da.

•••

Bakiola: Bakio'tik etorria da eta sasitza ugaria esan nai dau.
1605n. urtean Leiza'n eta Bizkaia'n.

•••

Baraibar: Bara- garoa edo irea da eta ibar arana. Irea dagon arloa.
Larraun'en agertzen da 1290n. urtean.

•••

Baranbio: Araba'ko erria da baiña Bizkaia'n be agiri da.
-bi- eta -o toki-atzizkiak dira eta -aran- ibarra edo aran-garauak emoten dau-
zan zugatza. Arandia'ren antzera, aran asko dagon lekua da.

•••

Barañano: Zeberio'n agertua da eta gero Barakaldo'n.
B- gero ezarria da, -aran- aran-landarea (endrino) eta -ano toki-atzizkia.
1651n. urtean Bilbao'n agertu da idatzita.

•••

Barasoain: Baratz- ortua da eta -o- tokia, -ain gaiñean. Ortua dagon tokia-
ren gaiñean.

•••

Baraiazarra: Gipuzkoa'n agertu zan.
-Arai- irea da eta b- gero ezarria. Eta -zarra aundia da (ori da txakur zarra!)
edo landu bakoa (lur barria ta lur zarra). Orduan: Iraleku landu-bakoa.

•••

Barzena: Mena'n, Gordexola'n, Zalla'n eta Karrantza'n agertua.
B- gero ezarria, -arze- artea da eta -na toki-atzizkia.
Bilbao'n agertzen da idatzita 1670n. urtean.

•••

Barea: Biana'n agiri da 1307n. urtean.
Bara- irea da eta -a toki-atzizkia.

•••

Barrondo: Arrankudiaga'n agertua da eta Berrondo'ren aldakuntza.
Barro edo berro aritz txikia edo "jaro" edo olakoak dagozan berezia da.
Bereziaren ondokoa.

•••

Berriaga (Barriaga): Berri "jaro" edo aritz txikia da eta olakoak dagozan
tokia da Berriaga. Ez dauko zer-ikusirik "Barria/nuevo"gaz.

•••

Barroeta: Bizkai'tik asita Euskalerra osoan dago.
Aritz txikiak edo "jaro"ak dagozan lekua da.

•••

Basagoiti(a): Aramaiona'n asi eta gero leku askotara.
Basoaren goi-aldean dagoana da.
Bilbao'n idatzita 1801n. urtean.

•••

Basaguren: Abadiano'n eta Larrabetzu'n.
Basoaren goi-aldean dagoana da.
Elgoibar'en 1741n. urtean.

•••

Basauri: Bizkaia'n erria, baiña Oñate'n be agiri zan.
Basoa dan aldapea esan nai dau.
Oñate'n 1660n. urtean. Oñate'n 1464n. urtean abizen au agiri da.

Baseta: Baso asko dagon lekua.
Ernani'n 1622.

•••

Basterra: Gasteiz, Orozko, Bilbao.
Berbeak diñoana: Bazterra.

•••

Bastegieta: Ajangiz'en sortu zan.
1662n. urtean Lumo'n dago.
Astegieta'ren aldakuntza da eta au, -aste artea'tik dator. Orduan arteak dagozen ikuspegia.
Bilbao'n 1739.

•••

Basterrika: -Aztar- sasia da eta B- gero ezarria, -ika, ostera, toki-atzizkia: Sasia dagon lekua.
Azkoitiar batek eukan abizen au 1484n. urtean.

•••

Bastida: La Bastida errian sortua da (Errioxa'n).
Ez da abizen euskalduna. Kataluniar batek guda-izkillu bat asmau eban izen au eukana eta abizen lez artu eban.
Zabal dabil Euskalerra'n eta etxe sendoa esan nai dau.
1520n. urtean Balladolid'en agertzen da.

•••

Basurto: Gaur Bilbao dan Abando'n agiri da idatzita 1445n. urtean.
-asur- sasia da, B- gero ezarria eta -to toki-atzizkia.
Sasia dagon lekua da.

•••

Baxeneta edo Bajeneta: Arrieta'ko Jainko auzoan etxeak.
Arrieta'n agertzen da 1587n. urtean. Fika'n dagon Bainta etxearen izena be ori da.
-Ai- aldapa da, b- gero ezarria eta -eta'k ugaritasuna dager. Aldapa asko dagon tokia.

•••

Bedia: Izen au dauan errian eta inguruetan dago eta Leon'era ta Logroño'ra be eldu da. Bedi- bedar-lekua da. Lenago Bidiaga izango zan.
1597n. urtean Balladolid'en agertzen da.

•••

Bela: Zuberora'n agertzen da 912n. urtean eta Naparroa'n 1265n'ean. Gaztelerra'n dago beste bat.
Txori orren izena artzen da ez-izen lez.

•••

Belakorta(u): Bedarra dagoan kortabaso.
Durango-aldean eta Gatzaga'n.
Bilbao'n eta Balladolid'en agertzen da idatzita, 1758 eta 1793n. urteetan.

•••

Belandia: Orduña'n dago etxea eta Izarra'ra Txomin Deuna'ren urira eldu da.
Bedar-lekua da, beko landea.
Lenengoz Balladolid'en 1549.

•••

Berlarrinaga: Larrabetzu'n agertu da.
Beko aldean dagoan larraiña esan nai dau.

•••

Belauntza: Erri bat Tolosa-aldean eta beste bat Izarra-aldean.
Belaun- bedarra da, -tza ugaritasuna atzizkia.
Tolosar batek dauka abizen au 1346n. urtean.

Belaustegi: Zornotza-inguruan, Gipuzkoa'n eta Araba'n be bai.
Belau- bedarra dan lez, bedar asko dagon lekua esan nai dau.
1700n. urtean Kalatraba'n.

•••

Beorlegi: Naparroa'ko da.
Beorak dabilzan egia edo tokia.
1391n. urtean Naparroa'ko agiri baten idatzia da.

•••

Beramendi: Naparroa'ko da.
Beko aldean dagoan mendia.
Iruña'n idatzita 1771n. urtean.

•••

Berasaluze: Elgoibar'en eta Tolosa'n.
Baratz edo bedar-leku luzea da.
Getaria'n 1791n. urtean. Eibar 1564.

•••

Berastegi: Tolosa-inguruko auzoa da.
Bedartegia esan nai dau.
Ordizia'ko gizon ospetsu baten abizena da 1399n. urtean.

•••

Berazadi: Zarautz'en agertua da eta Beraza ira asko dagon lekua dan lez,
-di atzizkiak barrero ugaritasun ori agertzen dau.

•••

Bergaretxe: Bergara'ko etxea da.
Legazpia'ko erritar baten abizena da 1384n. urtean.

•••

Beristain: Azpeitia'n iru etxe.
Eri- irea da, B- gero ezarria, -st- ugaritasuna eta -ain gaiñean: Irea ugari
dagoan tokiaren gaiñean.
1570n. urtean Azpeitia'n bertan agertzen da idatzita.

•••

Bermeo: Izen au daroan errian sortua da eta andik igaro zan Durango'ra,
Gasteiz'era, Logroño'ra ta Burgos'era. Naparroa'n be agertzen da 1306n.
urtean
Lopez Mendizabal'ek diñoanez, Bermeio'tik etorria da eta sasitza edo bedar-
lekua esan gura dau.

•••

Berriozabal: Berrio aritz txikia edo jaro da eta olakoak dagozan tokia, itz
onetan toki zabala.
Lau etxe dira Elorrio'n. Antxe agertzen da idatzita 1575n. urtean.

•••

Berriozar: Iruña-ondoan dago erri bat.
Berrio aritz txikiak dagozan lekua dala, zar izan leiteke edo zaindu bakoa
edo aundia.
1300n. urtean agertzen da idatzita Naparroa'n.

•••

Biana: Naparroa'ko erria, baiña beste leku askotan be ba-dago: Zeberio'n,
Gasteiz'en, gero Galizia'n be bai.
-ana toki-atzizkia dala, -i- zia edo "junko" dala diñoē. Orduan "juncal" litzake.
Gasteiz'en 1761n. urtean.

•••

Bidarte: Lapurdi'n, Enkarterria'n...
Bideen bitartean dagoana.
Bergara'n 1625n. urtean. 1424n. urtean Arrasate'ko batek dauko abizen au.

Bidasolo: Bidearen ondoan dagoan soloa.
1342n. urtea abizena Arrasate'n.

•••

Bidaurre: Orduña'n eta Gipuzkoa'n.
Bidearen aurrean dagoana.
Bergara'n 1415n. urtean agiri da.

•••

Bildosola: Bizkai'ko Arratia'n dago etxea, Artea'n.
Bildotsen ugaritasuna ei da.
Donostia'n 1626n. urtean.

•••

Bolibar: Boli-errotea da eta -ibar beko leun-aldia. Ibar baten dagoan erro-
tea esan nai dau.

Asko zabaldu da eta Oñate'n daukagu 1388n. urtean.
Beste batzuk errotea ez dala diñoe: Oloa dagoan ibarra baiño.

•••

Bolunburu: Aramaiona'n agiri da eta Bilbao'n dago idatzita 1676n. urtean.
Errotearen goikoa aldean esan gura dau.

•••

Butron: Gatika'n dauke torrea sendi onetako jauntxuak. Sendi benetan
ospetsua zan Bizkai osoan. Buruton'etik etorria?

1632n. urtean agertzen da idatzita Santiago'n.

•••

Kadalso: Fika'n dago etxe bat eta Zamudio'n beste bat.
Erdeararik etorritako izena dala dirudi eta urkamendia esan gura dau, an
urkatzen ziralako, ikusteko lako toki baten, zigor ori ezarten jakenak.
1789n. urtean agertzen da agirietan.

•••

Zeanuri: Zean- aldapan dagon tokia da eta -uri ura emoten dauan tokia.
Dana orduan aldapan dagoan ur-etorria.

•••

Zearreta: Erri askotan dagoz izen au daben etxeak, bat Gamiz'en.
Aldapa esan gura dau, -eta'k barriz ugaritasuna damotso.
1539n. urtean Elorrio'n dago.

•••

Zelaieta: Ormaiztegi'n iru etxe.
Zelaia bedar-lekua izan leiteke eta atzizkiak ugaritasuna adierazten dau.
1484n. urtean Azkoitia'n agiri da.

•••

Zendoia: Zendoi- bedar-lekua da.
Oñate'n agertzen da 1416n. urtean.

•••

Zendokiz: -Endo- bedar lekua eta z- gero ezarria.
Gautegiz-Arteaga'n agertu zan.

•••

Kortajarena: Berastegi'n agertzen da.
Kortaxa, abere-leku txikia da eta etxe orretan bizi diranen beste etxe bat.

•••

Txabarri: Enkarterrian dagoz etxeak: Galdames, Gueñes, Gordexola. Gero
asko zabaldu da.

Len Etxebarri izana da eta argi dago etxe barria zer dan, beste etxe baten
bizi danak egin dauana.

Naparroa'n agiri da 1390n. urtean.

Txindurtza: Bermeo'n dago. Indur deritxe zugatz txikien lekua. -tza ugari-tasunaren toki-izena.

1741n. urtean Santiago'n.

•••

Txopitea: Lekeitio-aldekoa da. Lope txikia izan leiteke txope. Beitia'tik etorria da -pitea. Lope txikia baiña berago dagoana.

•••

Danborenea: Tanborra joten dauanaren etxea.

Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n dago eta Bilbao'n agertzen da 1840n. urtean.

•••

Deusto: Erri onetan dan Kepa Deunaren parrokia, lenago monastegi izana da Deustua eta inguruko erri Deustu.

Aritz-antzeko zugatzak dagozan tokia esan nai dau.

Dorronsoro (edo solo): Ataun'en etxea. Bizkaia'n Axpe'n etxe bi.

Torrea dagon ondoko etxea da.

1748n. urtean Ataun'en dago idatzita.

•••

Duo: Morga'n eta Bermeo'n dagoz etxeak.

Du- ura da eta -o toki-atzizkia.

1625n. urtean Bizkaiko sindiko batek dauka abizen ori. 1550n. urtean Morga'n dago.

•••

Durana: Gasteiz-ondoan erri bat, Aiala'n eta Aretxabaleta'n be bai.

D- gero ezarria da eta -ura- dagon lekua adierazten dau -na atzizkiak.

1630n. urtean Urretxu'n dago idatzita.

•••

Durango: Erritik artua dan abizena mundu guztira zabaldu da.

Ez dakigu zer esan nai dauan, baiña ura dagon tokia dala dirudi.

Getaria'ko batzarrean agiri da 1397n. urtean. Arrasate'n 1471n. eta 1565n. urtean.

•••

Ezeitza: Tolosa'n iru etxe.

Izaiak edo abetoak dagozan lekua esan nai dau.

Donostia'n idatzita 1701n. urtean.

•••

Ezenarro: Zestoa'n eta Aizarna'n agertua da. Zezenen arroa esan nai dau. Zezenak dabilizan mendiarte.

Elgoibar'en 1628n. urtean.

•••

Etxabarria (Etxebarria, Etxeberria): Euskalerrian zabalen dagoan abizena da. Lenengoa etxa- ei zan.

Esan-naia argi agertzen dau: Etxeko jaunak bere sendikoen batentzat egin eban etxe barria da.

Toki askotan agertzen da: Lenengoa Azkoitia'n 1578n. urtean.

•••

Etxaide: Etxabide edo etxerako bidea esan gura dau.

1725n. urtean Zestoa'n.

•••

Etxalar: Lar- bedar-lekua da, orduan etxearen ondoko bedar-lekua.

Errenderi'n 1290n. urtean.

•••

Etxano: Etxe txikia esan nai dau. Etxano-barruan dago Amorebieta.

Etzanobe: Mañari-aldean agertzen da eta etxe txikiaren barrenean esan nai dau.

Bilbao'n, 1749n. urtean.

Etzarren: Etxe ta barren, etxean beko aldean.

•••

Ettxauri: Zizur'en agertu zan eta arritzekoa da -uri. An -iri izan bear leuke. Itsas- edo otea dagon aldapa esan gura dau.

•••

Ettxazarreta: Etxe zarrak dagozan lekua. Ormaiztegi'n agertu zan eta Tolosar batek daroa abizena 1346n. urtean.

•••

Etxeandia: Gautegez'en eta Zeanuri'n agertzen da 1603. urtea Astigarraga'n. Esan-gurea argi-argi dago.

Etxeberri (Etxabarria'ren sendian sartzen da).

Ezkioga'n agertu zan.

1532n. urtean Legazpia'n dago idatzita.

•••

Ettxezarreta: Errigoiti'n agertua da eta etxe zarrak dagozen lekua esan gura dau. Lenengoz Naparroa'n agertu zan 1569n.'ean. Urte beratan Tolosa'ko Ibarra etxean.

•••

Egiarte: Aldapen artean esan gura dau.

Iurreta'n agertzen da 1736n. urtean.

•••

Egibar: Ikuspegian dagoan ibarra.

1625n. urtean agiri da Azpeitia'n. Eta 1348n. urtean Azpeitiar baten abizena da.

•••

Egidazu: Egjazu bera da: Egia- aldapea eta -zu ugaritasuna.

Arrasate'ko baten abizena 1535n'ean.

•••

Egileta: Egiak edo aldapak dagozan lekua.

•••

Egizabal: Aldapa edo ikuspegi zabala.

Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n agiri da.

Lenengoz Itxaso'n 1625n. urtean.

•••

Egurbide: Sutarako egurra ekarteko bidea.

Erronkari-aldean zabaldu zan baiña Arrasate'n daukagu 1448n. urtean.

•••

Egurrola: Sugarria ugari dagon lekua.

Markiña-aldea zabaldu zan eta Elorrio'n dauka 1722n. urtean.

•••

Elduayen: Gipuzkoa'n erria.

Elduai-izena eta -en noren-atzizkia.

•••

Eleizegi: Zaldibia'n 1767n. urtean.

Eleizea dagon egia.

Donostia'n 1723n. urtean.

•••

Eleizondo: Argi diño berbean nai dauana.

Asteasu'n agertzen da 1738n.'ean.

•••

Elejalde: Gipuzkoa'n zabaldu zan. Eleizearen ondoan esan gura dau.

Gatzaga'n 1421n. urtean.

Elespe: Eleizea baiño berago.
Dima'n agertu zan lenengoz eta gero Bilbao'n 1743n. urtean.

•••

Elorriaga: Berastegi'n etxea.
Elorri-arantzea da eta -aga tokia.
Elduaie'n 1638n. urtean.

•••

Elgeta: Izen au daukan errian sortu eta Naparroa'ra igaro zan. Gero Ameriketara.
Urrtxu'n 1472 eta Azkoitiar batek abizena 1415n. urtean.
Elge- lur landua da eta -eta tokia.

•••

Elgezua: Elge- lur-zati landua da eta -tzu atzizkiak ugaritasuna dager, -a mugatzailea.
Igorre'n eta Lekeitio'n sortua da. Bilbao'n 1678n. urtean agertua.

•••

Eliza: Baztan'en agertu zan. Gero Aginaga'n eta 1625n. urtean Isasti'n.
Eleizea esan gura dau eta ez billatu beste adierazpenik.
Santiago'ko zaldunen artean agiri da 1729n. urtean.

•••

Elizalde: Gipuzkoa osoan, Arratia'n, Atxondo'n. Elorrio'n etxe bi: Nagusia ta txikia, Mendraka auzoan. Naparroa'n be zabal.
Eleizearen ondoan esan gura dau eta ez billatu besterik.
Ataun'dar batek dauko abizen au 1393n. urtean.

•••

Elizanburu: Lapurdi'ko Sara'n etxea.
Eleizearen goi-aldean esan nai dau.

•••

Elizondo: Iru etxe Elizondo'n.
Eleizearen ondoan esan gura dau, ez besterik.
Santiago'ko zaldunen artean agertzen da 1683n. urtean.

•••

Elormendi: Elorriak eta arantza-landarak dagozen mendia esan gura dau.
Elgoibar'en asi eta Gipuzkoa'ra zabaldu da.
Oria'ko Alegi'n agertzen da 1678n. urtean.

•••

Elorta: Gamiz'en etxea. Izena elor- da, -eta'k ugaritasuna dakar.

•••

Elosegi: Elor edo elos arantza-landarea da eta -egi toki-atzizkia, aldapa.
Etxe bi dagoz Gaintza'n.
Agertu abizen lez Gaintza'n 1399n. urtean.

•••

Ellakuri(a): Zeanuri'n etxea. Audio'n be bai.
Ella- bedar lekua da eta -uri aldapa.

•••

Enbil: Aizarna'n. Enbe "gamon" edo lili-antziko landarea da. -il, ugaritasun agertzeko atzizkia.
Aizarna'n 1601n. urtean.

•••

Emerando: Mungia'n auzoa.
Ama- bedar lekua eta -ar- atzizkia. Izan leiteke amar- arte-txikiak dagozan lekua be.

Enparan: Azpeitia'n torrea.

Adierazpena ez dago argi: Anbi- lili-antzeko bedarra eta -aran okaranen lekua. Azpeitiar batek dau abizen au 1348n. urtean.

•••

Enparantza: Oñate'n eta Bergara'n etxeak. Enparan bera izan leiteke -tza gaiñerartuta: Lili-antzeko bedarrak ugari dagozan arana.

Berba onek aspaldion "plaza" esan nai dau, "donde paran".

•••

Endemaño: Meñaka'n dago etxea.

Enda- bedarlekua da eta -maño muño edo menditxiki baten moño litzake. Bedar-lekua dan muñoa.

•••

Enderika: Laukariz'en etxe bat eta Kortezubi'n beste bat. Mungialdetik Gipuzkoa ta Naparroa'ra igaro dira.

Endera "yezgo" edo lur-gaiñeko bedarra da. -ika toki-atzizkia.

Bilbao'n dago idatzita 1688n. urtean.

•••

Epelde: Azkoiti'n eta Naparroa'n.

Ezpel- erderazko boj da. -de: ugaritasuna.

Azkoitiar baten atzizkia 1484n. urtean.

•••

Eraso: Lekunberri'n etxea eta Naparroa'ko Urnieta'n iru etxe: Eraso, Eraso Aundia eta Erauso.

Iratzu'tik etorria da eta ira asko dagon tokia esan nai dau.

Tolosar baten abizena da 1346n. urtean.

•••

Erauskin: Arakaldo'n, Beasain'en...

Eraus- lez toki iratzua da eta atzizki bi -ki- eta -in.

Azpeitia'n 1818n. urtean.

•••

Ereño: Galdakano'n, Fruniz'en, Zeberio'n.

Ereñotzak dagozan tokia.

Donostia'n 1791.

•••

Erezkano: Arratia'ko Arantzazu'n. Elezkano'ren aldakuntza da eta au Lazkano'ren aldakuntza.

Bilbao'n agerten da 1782n. urtean.

•••

Eriz: Gabiria'n bi: Garaikoa ta Azpikoa (Suso eta yuso). Guztiena dan lurra esan gura dau, baiña iratza be izan leiteke. Eri ira da eta iz = tza.

Agertu Elorrio'n 1712.

•••

Erletxe: Izan leiteke erleak dagozen etxea edo erla, sasia'tik artua. -itz ugaritasuna.

•••

Ermua: Eremu'tik artua.

1579n. urtean Oñate'n.

•••

Ernani: Izen ori daroan errian etxea, gero Oñate'ra ta Zeberio'ra.

Erna- bedar lekua da. -ni toki atzizkia.

1500n. urtean Sebilla'n.

•••

Ernialde: Tolosa'n agiri da 1625n. urtean.

Erro-erni sasia da. Ortik Ernio mendia eta ondoan ernialde.

Tolosar batek daroa 1346n. urtean.

Erostarbe: Oñate'n sortu.
Irastor ira-lekua. Barreanean.
1424n. urtean Oñate'n.

•••

Erkiaga: Amoroto-aldean. Erki "tilo" da eta ori dagoan lekuan etxe au.
Bilbao'n 1750n. urtean.

•••

Erkizia: Errexil eta Aia'n. Urkiak dagozan lekua. -tzi edo -zi atzizkiak ugari-
tasuna.
1414n. urtean Azpeitian'n.

•••

Errasti: Azkoitia'n sortua. Itsaso'n iru etxe.
Erraz, ote antzekoa eta -ti ugaritasuna.
1446n. urtean Azkoitia'n.

•••

Erreka: 1625n. urtean Tolosa'n. Ibai txikia.

•••

Errekalde: Gipuzkoa'n lenengo eta Mungialdean gero.
Errekearen ondoan esan gura dau.

•••

Azpeitia'n: 1348n. urtean.

•••

Rementeria: Bizkaia'n zabal.
Burdin-lana egiten dan lekua esan nai dau.
1370n. urtean Deba'n.

•••

Rezola: 1625n. urtean Azkoitia'n.
Erraz- otea da eta -ola ugaritasuna.
Azkoitia'n 1468n. urtean.

•••

Roteta: Etxano'n. Errotak dagozen lekua.
1671n. urtean Bilbao'n.

•••

Eskartin: Oska-aldean zabal.
Eskar- arze da eta -ti ugaritasuna ta -in tokia.

•••

Galarraga: Galar- iñarrea, "brezo".
Aduna'n iru etxe, Errejil'en bi.
1429n. urtean Arrasate'n.

•••

Eskauriatza: Eskoriatza'tik urten eta Bizkai'ra zabaldu da.
Eskoriak edo ondakiñak dagozen lekua esan nai dau.
Oñatiar baten abizena da 1388n. urtean.

•••

Eslaba: Naparroa'n sortua eta zabaldua.
Esla- bedar lekua da eta -ba atzizkia.
Kalatraba taldearen artean agertzen da 1622n. urtean.

•••

Espartza: Salazar ibarrean agertu zan 1016n. urtean.
"Boj" edo espelak ugari dagozen tokia.
Kalatraba'n 1676n. urtean.

•••

Espejo: Espel- boj landarea eta -jo = tzu, ugaritasuna.

Espilla: Soraluze'n sortua da eta Boj landarea dagon lekua agertzen dau.
Oñate'n 1596n. urtean.

•••

Eskibel: Ezki- erderaz "tilo" da eta -gibel atzeko aldea.
Gasteiz-inguruan sortua, asko zabaldu da.
Abizen au dau 1621n. urtean Santiago'ko Zaldun batek.

•••

Estonba: Irun'en 1625n. urtean.
Buenos Aires'en kalea dauka Estonba gudalburuak.
Esponda'ren aldakuntza ei da eta Esponda "talud" edo eurbera da.

•••

Estornes: Zuberoa'n eta Erronkari'n.
Estor- artea da eta -etz tokia.
Areta'n, iru beien zergan agertzen da naiko lez abizena, 1615n. urtean.

•••

Esturo: Azur- sasia eta -o tokia.
Abadeño'koa da.

•••

Euba: Uba- irea eta e- gero ezarria.
Amorebieta'n auzoa ta etxea.
1755n. urtean Bilbao'n.

•••

Eugi: Iruña'n jauregia.
Egi mendi-katea.
1664n. urtean Donostia'n.

•••

Eulate: eungillearen etxera sarrera.
Santiago'n 1640n. urtean.

•••

Gabiola: Mendaro'n sortua da eta gabi edo martinete asko dagon lekua
esan gura dau. (martinete = mazo aundia)
Arrasate'n agertu zan idatzita, 1530n. urtean.

•••

Galarraga: Aduna'n dago baiña Errexil'en iru, Angiozar'en bi.
Galar- giñarrea da eta -aga mugatzaille sendoa.
Arrasate'n idatzia 1429n. urtean.

•••

Galaretta: Giñarra edo iñarra asko dagon lekua da eta Azpeitia'n daroa
abizen au batek 1414n. urtean.

•••

Galbarriatu: Sondika'n. 1774n. urtean.
Galbar- burua da eta iartu zikatua.
Mendi-muño legortua litzake.

•••

Galdos: Legazpia'n eta Urretxu'n.
Alda- bedar-lekua da eta g- gero ezarria. -os toki atzizkia.
1659n. urtean Urretxu'n.

•••

Gallarta: -Allar- giñarrea da eta g- gero ezarria. -ta toki atzizkia.
Lenago galarreta izan ei zan: 1025.

•••

Gamarra: Araba'n dago erria baiña Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n asko zabaldu da.
Amar- arte txikia da, carrasca, g- gero ezarria eta -a mugatzaillea.
Elorrio'n agertzen da jatorriz gamarratarra dan bat 1590n. urtean.

Gantxegi: Bergara'n. -anza- bedar-lekua da eta -egi aldapa edo tokia. G-gero ezarria.

1574n. urtean Donostia'n.

•••

Gandarias: -anda edo -andar- barruti-lekua eta g- gero ezarria. -i- eta -as atzizkiak.

Eibar'en 1525n. urtean.

•••

Gandasegi: Zeanuri'n etxea eta bertakoa.

Balladolid'en goi-gotzain bat: 1777.

•••

Gandiaga: Urretxu'tik urtena. Len Andiaga: -Andi- bedar-lekua, -aga mugatzaille sendotua.

•••

Garabieta: Etxea Fika'n. Garo- irea da eta bidetan dagoana.

•••

Garagartza: Garagar asko dagon lekua.

Deba'n auzoa eta Azpeitia'n iru etxe.

1348n. urtean Azpeitia'ko baten abizena da.

•••

Garaikoetxea: Laburdi'n eta Naparroa'n asko.

Garai'goikoa da.

Donostia'n agertzen da 1564n. urtean.

•••

Garaizar: Maruri'n, Gamiz'en eta beste erri askotan etxeak.

1562n. urtean Yurreta'n agiri da.

Garai- goikoa da eta -zar edo aundia eta landu-bakoa.

•••

Garamendi: Gara- irea da eta -mendi ezaguna.

1657n. urtean Arrasate'n.

•••

Garaigordobil: Amaitermin-Abadiano'n agertzen da. Garai- goikoa da eta gordobil: -ordo- bedar-lekua, g- gero ezarria eta -bil batu-atzizkia.

•••

Garaigorta: Goian dan korta edo lur biribilla, abereen atsedenerako.

Orozko'n 1572n. urtean.

•••

Garagorri: Ira gorri asko dagon lekua.

1637n. urtean Aia'n.

•••

Garate: Elgoibar'en iru. Mendiko portua esan gura dau.

Elgoibar'en 1610'ean.

•••

Garaioa: Garai- goian dagoana, -o- tokia eta -a mugatzaillea.

1748n. urtean Naparroa'n.

•••

Garbitzu: Arbizu'tik dator, gero ezarria g-, arbi naboa da, eta -tzu askoreta.

•••

Garziarena: Garcia eta noren atzizkia.

1566n. urtean Donostia'n.

Garibi: Garibai'ren aldakuntza da.

•••

Garita: 1526n. urtean Bizkaia'n, Elorrio'ko Zenita auzoan.

Garramiola: Arro- eta -ama eta -ola. Ama ez da besterik bedar-lekua baiño. G- gero ezarria eta arro sasia.

•••

Gaztañadui: Arrasate'n eta Naparroa'n dagoz etxeak. Eskoriatza'n goikoa ta bekoa.

Gaztaña argi dago eta -dui atzizkia ta -di ed- -ti bardiñak dira. Ugaritasuna agertzen dabe.

1700n. urtean agertzen da Gastañadui bekoaren ikurdia.

•••

Gastea: Gastaña bera da, Elorrio'n laburtua eta Elorrio'n iru agertzen dira 1575n. urtean.

•••

Goenaga: Guipuzkoa osoan zabal.

Goena- gorengoa da eta -aga mugatzaille sendo.

Goian dagoan etxea.

•••

Gogeaskoa: Arbazegi'n eta Fruiz'en. Beste abizen batzuren atzean ipin-ten da. Garaikoa eta goikoa da. Beaskoa da orren aurkakoa.

•••

Goizueta: Naparroa'ko erri baten izena da.

Goizubietatik dator eta goian dagozan zubiak esan nai dau.

Motriku'n agertzen da 1725n. urtean.

•••

Goldarazena: Larraun'go aranean.

Goldaraz'en etxea esan nai dau.

Abizena Naparroa'n agertzen da 1803n. urtean.

•••

Gondra: Mungia'ko Birle'n dago mendi bat. Goian dagoan leun-unea esan nai dau, meseta txikoa.

1546n. urtean Maltatarrak dauke izena.

•••

Goñi: Naparroa'ko abizena da.

Goi- eta -ni goian dagon tokia.

1638n. urtean Alkantaratarren taldean agertzen da.

•••

Gopegi: Opa- bedar-lekua da eta -egi aldapako tokia.

•••

Gorbea: Aiala'n asko. Orbe erderazko "madroño" da eta azpian dagoana -bea. G- gero ezarria da.

Gor utsa da, gorria, Aizgorri.

•••

Gordexola: Ordo, oloa da eta ola asko dagon tokia. Oñate 1449.

•••

Gordoa: "Ordo" edo oloa dagon lekua, 1567n. urtean agertzen da Arrasate'n.

•••

Gordoniz: 1691n. urtean Busturi'n etxea.

Ordo bedar-lekua da, -on- toki-atzizkia eta -itz ugaritasuna.

•••

Gorostiola: Gorosti asko dagon lekua.

1703n. urtean Ondarribi'n.

Gortazar: Etxea Zeanuri'n (Kortazar).

Korta- edo Gorta- abereak lo egiteko landea da eta -zar aundia.

•••

Gorriño: Margoa adierazten da, ez-izen lez eta -ño txiko-atzizkia da.

Gorriti: Iru etxe Larraun'en. Ule-gorria danaren etxea esn nai dau.
Tolosa'n 1346n. urtean agiri da.

•••

Gerrika: Arbazegi'n etxea. G- gero ezarria da, -erro- sasia eta -ika toki-
atzizkia.

•••

Gibelondo: Gibel atzea da eta -ondo alboa.
1632n. urtean Elgeta'n.

•••

Ginea: Araba'n ugari. G- gerokoa, -ina bedar-lekua, -a tokia.

•••

Gurpide (Gurbide): Gurdien bidea.
Naparroa'n asko.
1566n. urtean Donostia'n.

•••

Ibarburu: Ibar- be-aldeko lurra da, vega, eta -buru orren goialdean dagoa-
na.
Ezpelette'n 1633n. urtean.

•••

Ibarguren: Durango'n eta Audio'n eta ugari edonon. 1478'an abizen au
Zumarraga'n agertzen da.

•••

Ibero: Naparroa'n geien.
Ur beroa dagon lekua da.
1619n. urtean Donostia'n.

•••

Ibinarriaga: Pasalekuan dagon arria eta -aga mugatzaille sendotua: Erre-
kan oiñez joateko arrizko bidea.

•••

Ibinagabeitia: Elantxobe'n.
Ibin agina da. Orduan aginak dagozen beeko lekua.

•••

Yeregi: Amezketa'n etxea, eta antxe agertzen da 1409n. urtean. Ireak
dagozan egia edo aldapa esan nai dau.

•••

Igaralde: Igara errotea da eta -alde ondoa. Legazpia'n etxe bi dagoz: Goi-
koa ta bekoa.

•••

Igeldo: Donostia'n eta Gipuzkoa osoan dabil.
Igel- landara txiki ta gozoa da usain onekoa, osasunerako ona. Eta -do toki-
atzizkia.

•••

Igeregi: Iger-, landarea (hinojo) eta -egi aldapea: Igerak dagozen aldapea.

•••

Ilarraza: Araba'n erri bat. Ez da idarra. Otearen antzeko landarea da
(brezo) eta -tza'k ugaritasuna dakar.
1554n. urtean Betoño'n dago.

•••

Ilunberri: Lunbier bera da. Iñarra-antzeko landarea (tamujo) da ilun- eta -
berri olako landarak dagozan zelaia.

•••

Ilundain (Irundain): Iñarra-antzeko (tamujo)ak dagozan lekuaren gai-
ñean. 1807n. urtean agiri da Naparroa'n.

Iñarra: Gipuzkoa'n eta Araba'n dago ugari.
Santiago'ko zaldunen artean 1641n. urtean. Iñarrea edo giñarrean landara ezaguna da.

•••

Inziarte: Intza zia (junco) da. Olakoen artean dagon tokia esan nai dau.
1399n. urtean Beasain'en dauko abizen au erritar batek.

•••

Iñurriaga: Iñur- iñarrea bera da eta -aga tokia edo mugatzaille indartua.

•••

Iñiguez: Antxiñako Eneko'tik dator Iñigo. Ene- nire da eta -ko txikia. -ez abizena osotzeko ezarria.

1399n. urtean Isasondo'n agertzen da.

•••

Ipiñazar: Ipin- mimena da eta -zar izan leiteke zarra edo aundia. Orduan mimen-arlo aundia.

•••

Iraeta: Gipuzkoa'tik Bizkai'ra.

Irak dagozan tokia esan nai dau.

Zestona'n aide nagusi bat 1397n. urtean.

•••

Irala: Antzuola'n etxe bi, goikoa ta bekoa. 1593n. urtean erri onetan torrea egin eben. Bergara'n 1573n. dago.

•••

Irantzu: 1027n. urtean lekaide-etxea Naparroa'n. Iran- irea da eta -tzu ugaritasuna.

Balentzia'ko batek eukan abizena 1730'ean eta leinargi dala agertu eban.

•••

Iraola: Argi agertzen dau dana: Ira asko dagon tokia. -ola atzizkia danean ugaritasuna da.

Gipuzkoa'n zabal agiri da eta Soraluze'n dago 1566n. urtean.

•••

Irastortza: Irastor- irea bera da eta -tza ugaritasuna da.

Gipuzkoa'n dago asko, Zaldibia'n: Emen agertzen da 1399n. urtean.

•••

Irauregi: Barakaldo'n agertua da.

Iraur- irea da eta -egi tokia.

•••

Irazagorria: Gordexola'n dago auzoa.

Goi-aldean dagoan iratza da.

Santiago'ko zaldunen artean 1643n. urtean.

•••

Iribe: Iri- aldapea da eta -be'k barrenean dago etxea dakar gogora.

1380n. urtean Azkoitia'n dago.

•••

Iruin: Idiazabal'en etxe bi.

Iratza da Iru-, -in len -ain izana, gain izan leiteke.

1609n. urtean Zegama'n agiri da.

•••

Irun: Ira- eta -un tokia dala diñoe.

Zegama'n 1609n.'ean agiri da.

Nik Iruña edo Urruñe lez uria dala esango neuke.

Jatorria ira-?

Iruña: Izen onek ba-dau antza Irun eta Urrugne'gaz. Uria esan nai dau, beste barik. Itza nondik datorren? Ira- edo iru- irea da eta -un eta -aga toki atzizkiak.

Elkano'gaz joan zan baten abizena da (1518).

•••

Iruretagoiena: Irureta dagoz iru etxe Aia'n, bata da -goiena. Irura iza-lekua da, irureta- olako asko dagozan lekua eta -goiena arlo aundi orrein goren-go lekua.

Zestona'n agiri da abizena 1608n. urtean.

•••

Iruzubieta: Iru zubi dagozan lekua da eta Markiña'tik urrean dago. Lopez Mendizabal'en ustez ez dauka zer-ikusirik zubiakaz eta, iru- irea dala eta -zuri atzizkia.

•••

Izaba: Iz- edo ziak dagozan lekua (juncal). Edo izai- zugatzak (abeto) dagozan lekua. 1596n. urtean Iruña'n agertzen da.

•••

Isasti: Gipuzkoa'n eta Zornotza'n.

Isats-serukak dauzan landara bat da (retama) eta -ti ugaritasuna.

Errenteri'ko batek dauka abizen au 1376n. urtean.

•••

Isusi: Aiala-inguruan ageri da ugari.

Motriku'n agiri da abizena 1721n. urtean.

Jatorria isats- edo serukadun "retama". Mitxelena'ren ustez, "itsusi" izen-ordea da, motza eta Azkue'ren ustez basoa edo zugaztia.

•••

Iturburu(a): Iturria baiño gorago dagoana.

Oñate'n abizena 1586n. urtean.

Tolosa'n eta Gatzaga'n etxeak.

•••

Iturgaiz: Naparroa'n eta Bizkaia'n dabil.

Joateko gaitxa dan iturria.

•••

Iturmendi: Iturria daukan mendia, Gipuzkoa'koa da.

•••

Iturtza: Zeanuri'n etxea.

Iturriak dagozan tokia.

•••

Iturrate: Gipuzkoa'n.

Iturrira bidea edo atea.

•••

Iturri: Geienez Bizkaia'n. Etxe bi Elorrio'n.

1575n. urtean agertzen da abizena Elorrio'n.

•••

Iturriaga: Bizkaia'n geien, Zeanuri'n, Mungia'n. Mundaka'n. Gipuzkoa'n be bai.

Orio'n agertzen da abizena 1593n. urtean.

•••

Iurramendi: Iurra yezgo da, usain txarra daukan landare txikia, serukaduna.

1346n. urtean Tolosa'n abizena.

•••

Iurrebaso: Arratia'n geien. Yezgo deritxon usain txarreko landarez beterik dagoan basoa.

1688n. urtean Arratia'n.

Izaola: Iz- edo “junco” asko dagon lekua.
Izai asko be izan leiteke eta izai “cedro” da.

•••

Izko: Naparroa'n dago geien eta abizena Aibar'en agertzen da 1265n.
urtean.

Aitzko ez ba'da, iz- zia edo “junco”.

•••

Izurrategi: Ura isuriten dauan egia edo aldapa.
1474n. urtean agertzen da Getaria'n abizen au.

•••

Jainaga: Zaldibar'en eta Elorrio'n etxeak.
Aina- bedar-lekua da eta -aga tokia.
1662n. urtean Elorrio'n abizena.

•••

Juarizti: Arizti'tik osotua da eta gero ezarri Jo-
1700n. urtean Soraluze'n abizena.

•••

Labaien: Berastegi'n etxea.
-abai- bedar-lekua, l- gero ezarria, -ain gaiñean. Labai'ren etxea be izan lei-
teke.

•••

Labeaga (Olabeaga): Labeaga labea dagon tokia eta Olabeaga'tik eto-
rria ba'da, olea baiño berago dagon tokia.
1789n. urtean Aramaiona'n.

•••

Labetxe: Mungia'n dago etxea. Labea dagon etxea esan gura dau.

•••

Labiano: Okaranak dagozan lekua: -abi- arana, l- gero ezarria eta -ano
tokia.
1300n. urtean Aranguren'en.

•••

Laboa: Naparroa'n eta Gipuzkoa'n dau asierea, 1300n. urtean.
Abe- zugatza ba'da. L- gero ezarria eta -o- tokia, -a mugatzaille sendotua
tokia adierazteko: Zugatzak dagozan lekua. -Abi- okarana ba'da, asko dagozan
lekua da.

•••

Laborda (Labordeta): borda da oiñarria: Abereentzat edo gizakientzat
etxea da. La- gero ezarria. Iparraldean erabilten da geiago baiña Naparroa'ra
igaro da eta Aragoi'ra be bai. “Laburdi” izena be orixe ei da.
1579n. urtean Oñate'n daukagu.

•••

Laka: Mendaro'tik Markiña'ra.
-aka sasia da eta -l gero ezarria.
Mendaro'n errementari baten abizena da 1380n. urtean.

•••

Lakarra: Benabarra'n gaztelu bat. -akar- sasia da eta l- gero ezarria.
Iruña'n 1716.

Lamikiz: Mendata'n etxea. L- gero ezarria, -ami- bedarlekua, -ki- eta -z
biak toki-atzizkiak.
Bilbao'n 1740n.'ean.

•••

Landaberde: Fika'n, Arrankudiaga'n eta Ondarribi'n etxeak.
Landabere'tik etorria ei da. Abereentzat landea? Beko landa.
1633n. urtean Kalatraba'n.

Landaguren: Erri askotan etxeak, Bizkaian geien.
Landearen goi-aldea da.

•••

Landaluze: Araba'ko Zigoitia'n eta Aiala'n geien.
Argi dago. Landa ta luzea.
1729n. urtean Bizkai'ko batzarretan.

•••

Landajuela: Urkiola'n eta Arratia'n etxeak.
Landa- eta -jo aundia, -ola ugaritasuna. Landak ugari dagozan tokia. 1768n.
urtean Bilbao'n.

•••

Landazabal: Bizkaia'n asko.
Esangurea argi dago.

•••

Landia: Errigoiti'n.
L- gero ezarria, -andia argi dago.

•••

Landibar: Gipuzkoa'koa da.
Be-aldean dagon bedar-lekua da.
Ernani'n 1731n. urtean.

•••

Lapatza: Gipuzkoa'n etxe asko eta Zeanuri'n bat. 1625n. urtean Lapatza
idatzita agiri da.
Lapa-erderazko "acedera" da, janaria garrastuteko erabilten dan landarea.
Olako asko dagon lekua da Lapatza.

•••

Larandia: L- gero ezarria da eta -aran- okaran-landarea. -di- asko eta -a
tokia, mugatzaille sendoa.
Izan leiteke Larrantia'ren aldakuntza. Bedar-leku aundia.

•••

Larburu: Urnieta'n dagoz etxe bi eta larra- edo bedar-lekuaren burua esan
gura dau.
Ernani'n 1621n. urtean.

•••

Largatxa: Orduña'n eta Gordexola'n etxeak.
Lar- sasia da eta -gatxa txarra.
Izan leiteke -arga- edo -alga- bedar-lekua eta -tza ugaritasuna. L- gero eza-
rria.

•••

Larrabazter: Gamiz'en etxea. Axpe'n etxe bi. Nausia ta txikia.
Larren edo sasiaren bazterra da.
Bilbao'n 1654n. urtean.

•••

Larrabezua: Bizkaia'n erria.
Larra- bedarlekua edo sasia. -be- bean dagoana, -tzu- ugaritasuna eta -a
mugatzaille sendoa.

Larrain: Napparroa'n. Larrain garia joteko zelaia da, baiña larre-gain izan lei-
teke eta orduan sasiaren gaiñean dagoana.
1251n. urtean agertzen da Aranaz'en.

•••

Larrainzar: Emen gari-joterako lekua izan leiteke eta -zar aundia da. Baiña
bedar-leku aundia be izan daiteke, -in- tokia.
1774n. urtean Iruña'n dago.

Larraondo: Orozko'n eta Gordexola'n etxeak.
Bilbao'n agertzen da 1476n. urtean.
Bedarlekuaren ondoan dagoan etxea da.

•••

Larraskitu: Bilbao'n auzo bat. Loiu'n be bai.

•••

Larrasketetik dator: Larra- bedarlekua eta -keta ugaritasuna.

•••

Larringan: Larrain: gari-joteko zelaia, zuriduna. L- gero ezarria, -gan ori baiño gorago dagoana.
Arrazola'n sortua da.

•••

Larumbe: 1625n. urtean Ikaztegieta'n agertzen da. 1281n. urtean be agiri da.

Larre- bedar-lekua da eta -un- eta -be toki-atzizkiak.

•••

Larra: Gipuzkoa'n dago.

Lar- sasia da eta -aga edo -a mugatzaillea ta tokia.

Larre- bedar lekua be ba'da.

•••

Lasarte: Izen au daukan errian etxe bi dagoz, goikoa ta bekoa.

Gero Euskalerrri osora zabaldu da.

Getaria'n 1325n. urtean.

•••

Laskibar: Lats- errekatxua da eta -ko- tokia eta -ibar be-alde zabala.

Tolosar batek dauka 1346n. urtean.

•••

Lastagarai: l- gero ezarria, -asa- edo -aset- sasia da eta -garai goi-aldea.

Gordetxola'n eta Aiala'n zabalaren.

Izan leiteke "lasto" lastategia be.

•••

Lastur: Deba'n auzoa.

L- gero ezarria dala, -asa- sasia eta -ur ura. Sasietatik datorren ura.

•••

Lategi: L- gero ezarria. -egi argi dago: aldapa edo ikuspegia, baiña -at-? atea izan leiteke: Atetik ikusten dan egia, mendi-atetik.

Iruña'n agertu zan 1611n. urtean. 1725n. urtean Soraluze'n.

•••

Lasaga (Latxaga): Etxea Aramaiona'ko Unzaga ta Untzella'n.

Abizena Ituren'en agertzen da 1328n. urtean. Lats-errekatxua.

•••

Laukariz: Mungia'n auzoa.

-Auka- sasia da eta l- gero ezarria. Itz'ek ugaritasuna adierazten dau. Sasia ugari dagon lekua.

Laukiniz: Erria dago Mungialdean.

-auka- sasia da, l- gero ezarria eta -niz ugaritasuna da.

•••

Lazpita: Berriz'en etxea.

-aspi- acerolillo, landara txiki lora, -ita ugaritasun atzizkia. "Azerolo" asko dagon lekua.

•••

Lebario: Abadeño'n etxea ta auzoa.

-ebar- arte txikia edo "carrasca" eta -o toki-atzizkia.

Lezeaga: Arrazola'n etxe bi, zarra ta barria eta Zeanuri'n bat.
Lur-barrura dagoan zuloa da lezea.
1557n. urtean agertzen da Balladolid'en.

•••

Leiba: Bizkaia'n agertzen da 1475n. urtean baiña 970n. urtean Santo Domingo de la Kalzada'n.
Leibar'en aldakuntza da eta Leibar eta -aibar- irea da, l- gero ezarria.

•••

Lersundi: Lersun- erderazko "álamo" da eta -di ugaritasuna.
Azkoitia'n erritar bat 1470n. urtean.

•••

Lesaka: sustraia -iz- da, zia, junco. L- gero ezarria eta -aka ugaritasuna ta tokia.

•••

Lete: Naparroa'n eta Gipuzkoa'n dagoz etxeak.
-elo- bedar-lekua da eta l- gero ezarria, -te barrizugaritasuna agertzekoa da.
1348n. urtean Azpeitia'n dago.

•••

Lizartza: Lizarrak ugari dagozen tokia.
1346n. urtean Tolosar baten abizena zan.

•••

Lizarraga: Naparroa'n asi eta Gipuzkoa osora zabaldu da.
Lizarra dagoan tokia esan nai dau.

•••

Lizarralde: Lizarra dagon aldea.
Deba ibaiaren goi-aldean asko.
1489n. urtea Oñate'n abizena.

•••

Lizaso: Lizar- eta tsu.
Gipuzkoa'n zabaldu da.
1717n. urtea Zestona'n.

•••

Loarte (Loiarte): Lupetza-barruan dagon tokia.
1344n. urtean Bizkaia'n.

•••

Loidi: Errexil-inguruan. Loi- "lodo" edo lupetza da eta -di ugaritasuna.
1383n. urtean Urretxu'n abizena da.

•••

Loinaz: Beasain'en eta Azkoitia'n etxeak.
Loi- lupetza da eta -atz atzizkiak tokia adierazten dau.
Gatzaga'n agertzen da 1628n. urtean.

•••

Loizate: Donostia'n eta Berriz'en.
Lupetzarako atea litzake.

Longarai: Bilbao'n eta Bakio'n.
-On- bedar-lekua da eta l- gero ezarria. -Garai: Goiko-aldea.

•••

Lopetegi: Lope- izena da eta -tegi orren etxea izan leiteke.

•••

Loiola: 1280n. urtean agertzen da lenengoz.
Loi- lupetza da eta -ola ugaritasuna.
Isasondo'ko batek abizen au daroa 1399n. urtean.

•••

Luko: Latiñetik artua da eta oiana esan gura dau.
Erria dago Gazteiz'tik urrean.
Gotzain bat egoan emengoa Letran'go IV Eleiz-Batzar nagusian. Euskeraz
egin eban. 1350.

•••

Luzuriaga: Agurain'en.
Lur zuria dagon tokia esan nai dau.
Tolosar batek dauko 1346n. urtean.

•••

Madinabeitia: Madina baiño beerago dagon etxea eta Madina agina'tik
etorria ei da.
Oñate'n agertzen da 1622n. urtean.

•••

Maguregi: Etxebarri'n eta Barinaga'n etxeak.

•••

Agur- landara gazia da (salicaria) eta m- gero ezarria. -egi ikuspegia.
Arrasate'n agertzen da 1649n. urtean.

•••

Maiz: -aiz zia da "junco" da, m- gero ezarria.
1660n. urtean agertzen da Ataun'en.

•••

Maiztegi: Durango'n etxea.
Mari'ren etxea esan gura dauala diñoe.
Bilbao'n agertzen da 1792n. urtean.

•••

Malax: Arrasate'n sortua baiña Murelaga'n agertzen da 1756n. urtean.
Arrasate'ko baten abizena da 1461n. urtean. Lur emonkorra da.

•••

Mallabia: -allo- bedar-lekua, m- gero ezarria, -bia atzizkiak dira eta tokia
adierazten dabe.
Elorrio'n bateoen liburuan agertzen da 1567n. urtean.

•••

Manzidor: -anzizu bedar-lekua da eta m- gero ezarria, -idor goian
dagoana.
Zumaia'n etxe bi, goikoa ta bekoa.
Zumaia'n bertan agertzen da abizena 1601n. urtean.

•••

Markina: Euskalerra osoan zabal.
-Arka- bedar-lekua, m- gero ezarria eta -na tokia.
Gatzaga'n, 1391. Zumarraga'n 1478. Oñate'n 1461.

•••

Maturana: Araba'n agertzen da.
1080n. urtean Gasteiz'en emote baten. Arrasate'n 1530.

Maioara: Lenengo iparraldean eta Gipuzkoa osoan.
-aiar- otea da, m- gero ezarria eta -a: mugatzaille sendoa.
Ormaiztegi'ko batek dauko abizen au 1462n. urtean.

•••

Mendia: Naparroa'n 1265n. urtean eta Zeanuri'n. Gipuzkoa ta Bizkaia'n
asko zabaldu da.
1373n. urtean Segura'n abizena.

•••

Mendiola: Deba-goienean agertzen da eta Bizkai'ra zabaldu da.
Mendian dagon burdin ola ete da ala mendi asko dagon lekua?
Tolosa'n 1346, Gatzaga'n 1390, Arrasate'n 1461.

Mendiondo: Iparraldean eta Irun'en.
Mendiaren ondoan zer dan argi dago.
Larrabetzu'n 1771n. urtean.

•••

Menika: Morga'n sortua. Meñaka bera da.
-ena- bedar lekua da eta m- gero ezarria eta -ika toki-atzizkia.
1767n. urtean Bilbao'n agertzen da.

•••

Meñaka: Bizkaia'n erria. 1475 urtean Garcia Salazar'en aitatzen dau.
M- gerokoa, -ena bedar-lekua.

•••

Miñano: Meatzak dagozan lekua esan gura dau. Araba'n erri bi: aundia ta txikia.

1429n. urtean Arrasate'n agiri da abizena.

•••

Miota: Elorrio'ko Miota auzoan bost etxek dauke izen au: Aurrekoa, beazkoa, goizeazkoa, zabalekoa, aldekoa...

-ia- zia edo "junco" da. Gero ezarria m-, eta -ta asko dagon tokia: Zi asko dagon tokia.

Elorrio'ko San Agustin'en agertzen da 1053n. urtean.

•••

Miranda: Gipuzkoa'n zabal dago. Enkarterrian be bai gero. Ba-dago bere aldetik erderazkoa be.

-ira irea da eta M- gero ezarria, -an- eta -da toki-atzizkiak.

1319n. urtean Azkoitia'ko alkateak dauko abizen au.

•••

Montoia: Araba'n sortu eta Gaztela'ra joan zan 1609n. urtean.

•••

Muga: itz euskalduna da baiña ba-dago abizena Gaztela'n.

Lurraren ertza esan nai dau, munea. Palaz lurra jaso eta or "palatua".

Balladolid'en agertzen 1580n. urtean.

•••

Mugartza: Oñate'n, Arratia'n eta Durango'n.

Muger sukarria da, -tza ugaritasuna.

Mitxelena'k mugarriak dagozan lekua dala diño.

•••

Mugarra: Bizkaia'n baiño ez. Mugarria baiño ziurrago sukarria.

•••

Mujika: Bizkaia'n erria ta torrea.

-uga- irea da, M- gero ezarria eta -ika toki-atzizkia.

1390n. urtean Arrasate'n agiri da.

Muntzaraz: Torrea Abadeño'n.

Untz auntz-orria eta m- gero ezarria eta -araz ez dakigu.

1212n. urtean erregin-testamentuan agertzen da.

•••

Munduate: Ordizia'n etxea.

-unda- bedar-lekua da eta m- gero ezarria, -ate toki orretarako atea edo sarrera.

Ordizia'ko alkateak dau abizen au 1319n. urtean.

•••

Munibe: Etxebarri'n bi, goikoa ta bekoa.

Munearen barrenean dagoana da.

Balladolid'en 1603n. urtean.

Oria: Abizen oso zarra da Gipuzkoa'n.
Ori-, uri bera da, aldapa eta ura datorren lekua, -a mugatzaille sendoa.
Legazpiar batek daroa abizena 1384n. urtean.

•••

Ormazabal: Euskalerrian egoalde osoan dabil.
Adierazpena argi dago.
1402n. urtean Zegama'n ziñegotzia da.

•••

Orueta: Oloa dagon lekuak izan daitezke.
Oñate'ko batek dauko abizena 1489n. urtean.

•••

Otadui: Oñate'n iru etxe: aundia, txikia ta barria.
Otea zer dan argi dago eta -dui -ti bera da.
1489n. urtean Oñate'n agiri da.

•••

Pagadi (Fika'n Parradi): Pago asko dagon lekua.

•••

Sagastizabal: Sagardia eta zabala.
Gipuzkoa'n geien.
Urretxu sortu zanean, 1383n. urtean agiri da.

•••

Saizar: Sai zarra ez-izen lez ezarria. "Buitre viejo".
Tolosa'n agiri da 1572n. urtean.

•••

Salaberri: Sala- barrutia edo etxe apala izan daiteke. -berri argi dago.
Navas de Tolosa'n agiri da 1212.

•••

Zabaleta: Etxe asko, batez be Gipuzkoa'n. Zabal-une asko dagon lekua
da.
1615n. urtean Bergara'n agiri da.

Olaza'tar Martine'k

EUSKALDUNAK EUROAPAN

(BILBAO'KO EUSKAL-ASTEAN-2002)

AURKEZPENA:

- Arrastion, itzaldi onetara etorri zarien guztioi, eta onen mamitik ulertzen daganak on-egin daigula danoi.

- Zergaitik EUSKALDUNAK-EUROAPAN beti danik edo jaiotzatik, bertan dagozela esan bearra?.

a).- Menperatzaillaren leenengo lana euren asmakuntzak aurrera eroateko, berezitasuna desagertzea da; iñor ez dagon bizi-lekuan eurak bakarrik ba-dagoz arrazoa daukielako "EURAK DIRALA" angoak, esaten dabenean.

b).- Beste aldetik, euren guzurrezko alegiñak ezeztuteko, gure egia azaldu bear eta or! non argitu bear diran, JAINKOA'ren LEGEA'gandik nai-ta nai-ez artutako berezitasunak, sasi-jainko jokoetan dabizenen aurka. Euren asmoetatik berezitasuna menperatu gure dabelako sasi-jainko lez bizitzeko. la lortzen dabiz..., antziñatik sendia`k dakarren beren irudizko-izaera apurtzen dabizelako, dan guztia naaste baten agertu daiten, ainbat kostata sinismenean egindako antolamendua apurtuz.

e).- Eta Olazar'tar Martin`ek, gai onen ulermen azalpena nik bete bear nebala esan ebalako.

d).- Orregaitik, Euskaldunen Nortasuna eta izaera Europan oso ezagunak izan eta dirala argitzeko zazpi zatitan azalduta banatuko doguz, azkenean laburpen baten bidez ikusteko, zelako ondorioak agertzen jakuzan.

- Gai au, ziur nago galdera askokoa dala, eta orregaitik gura neuke, azkenean, bear diran galderak egitea; beren ausnarretik, ulermenean daukaguzan illuntasunak argitzeko. Baita azken baten pozik urten daigun solas-itzaldi onetatik.

Asi gaitezana ba, gai onen mamia ikertzen.

AURKEZPANA

Itzaldi onetan, Euskaldunen Nortasuna eta izaera Europan oso ezagunak izan eta dirala bederatzi zatitan azalduta banatuko dautsuet, azkenean laburpen baten bidez ikusteko, zelako ondorioak agertzen jakuzan

- EUSKALDUNAK EUROAPAN -

SARRERA:

Guzurra dala esan leike, gaur egunean esan bearrekoa izatea, Euskaldunak bizi dirala Europa deritxon lur-nagusi onen ego-sartaldean; eurak diralako zaarrenak lur onetan sendi-aberridun berezi bat lez, edo izaneko leiñuak esku-alde baten batuta bakotxak bere Nortasunarekin eta bakotxaren borondateakin alkartuta batzango baten, danon ardurak lotsagizun aundia-gaz ondoen aurrera eroateko.

Bere edesti luzean, ainbat leiñu-zapaltzaille eta kaizar-erri menperatzailleak igaro dira gure Euskalerrri maite onetatik, gu emen, "gure etxean" geratuta, gero labur-labur ikusiko dan lez

Baiña geien lortu gurako neukena alde batetik auxe zuei erakustea da: zelan asieratik asten dan apurka-apurka gizonen aundikeria igoten, norke-riak daukazan indarrakaz galerazota, eta denboraren etorkizunezko igaroan, gaur gagozan negargarrizko Nortasunaren uzteltasun egon-aldirarte.

Beste aldetik erakutsi: zelan edestitik zear norberena ez dana lortzeko, edo norberaren ardurapean ez dagoana lortzeko, gaiak daukan diztiraz era-karrita eta mozkortuta agertzeagaitik, ibiltzen diran "GUZURRAK", beti bar-diñaK dirala, Ludi onetan ez dagolako beste erarik edo almenik gauza orreik: gizon/emakumeak, lurraldeak, bai daukiezan mozkiñ-eta-eskutarte-koak-menperatzeko.

Bat dalako Ludi onek daukan LEGEA bere izaeran erperatuta, eta nai-ta... era ezberdin askokoak izan guzurraren almenak LEGE NAGUSIA`ren aurka, GUZUR bat bakarrik dalako bere aurrean.

Baita, edestiaren etorkizunean ikusiko doguzan denbora loratsuak izan zirenak ikuspegian, inguru guztietatik lorez beterik agertu gurean eta osteko denboratan ugaritasunezko lore orren edertasunerako egiten ziran lan-erinduagoak, argitsu edo biribiltasun itxura eder baten eginkizunak agertu dai-tezan gizon/emakumea`ren poztasunerako; itxura eder orren azpi aldetik zelan agertzen eta entzuten ziran zigorraren arrantzak, oñaze, min eta nekea ugari, gizon/emakume eta erriak menperatuta eukiteagaitik; gizon/emakume batzuen sasi-jainkotasunaren jokoa poztuteko bakarrik gaurko denborara arte.

SARRERA

- Gaur egunean zelan esan leike Euskaldunak ez dirala bizi Europan?
- Noiz azten garan nortasuna galtzen.
- Lenengo guzurak, gaurko guzurak.
- Zer izan ziran Barroko eta Plateresko Denborak.
- Gaur egunean, guzurak argi eta garbi ikusten dira.
- erriak eta gizonak txarto ibiltzen dira euren izkuntza berezi barik.
- Euskaldunak eta fedea.

Gaur be, ori gura dabe, gizartea mailladuna izan daitela, beti izan diran gai-zaleak olan izan daiten euren poztasunerako.

Baiña neure ustez, geien poztuko gaituna, gaurko denboretan eginkizuna-ren zeartasuna azaltzea izango da, gaur dakigunagaz argi-argi ikusten dala-ko, gauzak txarto egiten ba-dira, Ludi onek daukan legearen aurka dirala.

Menperatzailleak, egin bearrezko gauzak, euren legeakaz eginda joan daitezala gura dabe, Mundu onen berezitasunezko legeari jaramon egin barik, eta ori ezinezkoa da, "GUZURRA" ta gauzak txarto eginekoaren antzera bitzaren lez..., gain-gaiñean doazelako, gaur dagoan jakituriagaz errez eta argi-argi ikusi leikena iñungo alegin barik. Nai eurak, guzur-orreik daukien indarragaz gure aurretik erabili EGI aundi bat izan balitz bezala. "Barregarria" da, baiña olan da !". Noiz arte?. Euren lotseak eraginda naikoa dala esan arte..., baleiteke gure alegiñakaz batera olango egoera baragarri bat agertzea, baiña ekintza ori izkillu barik eta bakez izan bear dan gauza da indarra euki dagian. Izkilluaren indarrak EGIA'ri, neurri berean indarra kentzen dautsolako.

Ba-dago beste arlo bat azalpen guzti oneri(beraren beste garrantzizkoa dana) izaera emoten dautsona, burdindun saltsarri (cemento armado), edo burdin, arri ta areari kare-baltzak (cemento) emoten dautson aukera gorputz burdindun saltsarrikoa izateko bururakisun guztien antzera, eta arlo ori izkuntzarena da, garrantzi aundikoa gure arremanetan aitu gaitezana eta gauza guztiak erreztasun aundiz bakoitza bere lekuan kokatzeko.

Erriak eta gizon/emakumeak txarto ibiltzen dira, ez badabe eukiten zeatzasun aundiko eta ondo zaindutako izkuntza bat. Gauza guztiaren antzera, txarto, erdizka edo beste esangura batzuekin eukiten badabe euren izkuntza, euren gizarteko orekan egon bear diran gauza guztiak, danak! orren akatsakaz agertuko jakiezalako aurrean. Izkuntza, erriaren sinismenean ekintzako-bizitzatik sortuta dagolako. "Zelan-go izkuntza; alangokoak eurak euren sinismenean".

Euskaldunak, gure fedegaitik eta berbakoak izategaitik ezagutzen gaitue Mundu zabalean, eta ori ikertuko dogu azken baten, ikusi daigun zelako garrantzi aundia daukan gure izkuntzak une onetan daukaguzan arazoak eta Munduan dagozan arazoak argitu ta garbitu daitezana.

Asi gaitezana ba zeazten gure Euskaldun bizia Europa'ko Euskal-lur maite onetan, argi ikusi daiten ondo ezagunak garala Europa osoan zalantzarik gabe.

Eta orretarako, Cromañon denboratik asita gaur arte edesti labur baten bidez, ikusi daiguzan zergaitik gaur sortzen diran eta jakuzan ain sinesgarrizko arazo oneik; Izadi onek daukazan legeetatik, batzuen jabetasunezko aburumen, iritzi edo usteagaitik guztiz urrun gizarte-ekintzetan bizi garalako.

AZALPENENKO ZATIAK

- 1'go.-** Sarrera labur bat, idaz-lan au zelako gogoagaz idatzita dagon azaltzeko.
- 2'gn.-** Kromañon denborak.
- 3'gn.-** Erroma'tarrak.
- 4'gn.-** Bisigodo'ak.
- 5'gn.-** Kristautasuna eta Erlijiñoa.
- 6'gn.-** Mauritarak.
- 7'gn.-** Gure Askatasunaren azkeneko denborak.
- 8'gn.-** Laburpena.
- 9'gn.-** Izkuntza.

- KROMAÑON DENBORAK-

Badaukat eskuartean arlo au azaltzeko Arinda'tar Anes'ek azkeneko egun onetan emonda (2.002'an Uztaila'ren 27'an) bere lan batetik, zer esaten dan gaur, jakintsuen ikerketaren bidez, orduko denboratan gertatu ziranari begira: "EL EUSKERA Y LOS GENES BASKOS EN LA RAZA DE LA VIEJA EUROPA" Indoeuropearren aurretik.

Baita nortzuk esaten daben gauza orreik, goimallako ikerketa orde, orreik jakintza arloan: "Hamel'tar Elisabeth, berrien-idazlea; Wennemann'tar Theo, germaniar ele-jakintzaren maixua (catedratiko), eta Foster'tar Peter, Cambridges'ko ikastetxe nagusian genetika'ren irakaslea" diranak.

"Spectrun Wisenschf" Aleman aldizkari jakintsuan argitzen dabe ezagutzera emoteko, eta aldizkari au, Ameriketako "Scientifik Amerikan" aldizkari biurkerazko alakoa da.

Irurak bat egiten dabe, eta baieztatuten dabena auxe da: "Europa'ren oiñarrizko gizartean edo jendearen geneetan %'tik 75 Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea dala.

Onek esan gura dauana, “ Euskaldunak, Europa izateko, Euskal geneak eta izkuntza emon dautsozela «da !. Ez da gutxi, esaten dau Anes'ek.

Altuna'tar Jesus'ek bere maixu-lana dan ikerketaren idaz-lanean “Euskal Edesti-Aurreko 150.000 urteak “ liburua bidez Euskal asierak argitu egiten dauz.

Liburu orretan Josu'k esaten dauana gauza askoren artean “ azkeneko izotzaldia edo Europa'ren “WURM” deritxon izotz-aldian, aberetasunezko gizaizaeraren azkeneko aldaketagaz agertzen dana eta “Cromañon” giza deituten jakonari, gaur daukagun itxuran agertu zana, “Magdaleniese eta Aziliense” arteko denborak dirala, 15.000-10.000 urte Kristo baiño ariñago.

Dana dala, Aleman jakintsu oneik esaten dabena: orduko Europa'ren gezaltzean, eiztariak gezaltze orren ondorioz izotz-oreiñak (Reno) eta Mamutzar (Mamut)'en iges-aldian edo atzerakada egitean euren atsegiñezko giroan egoteko, Euskal eiztariak Europa'tik zabaldu zirala eta orregaitik aurkitzen dirala Europa guztiko baztarretatik Euskara'ren oiñarrizko itzak: “Aran, Ibar, Ur”, eta abar asko.

Emen Zatarain'tar Anbrosio jakintsua izan zana aitatu bear dot, beste zertzelada bat azaltzeko. Euskal-Aleman “DUDEN” iztegia egiten egon zanean (argitu barik dagona, azkeneko zuzenketaren bearrean, denborarik ez ebalako euki), neuri, itz-zerrenda luze bat erakutsi eustan Euskal eta Aleman itzak, esatera eta idazkera bardiñak daukiezanak. Or !! ikaragarritzko Euskal lan bat bertan itzita, eta berrezkuratu bear zana.

Euskaldunak Europa onetan EZ EZAGUNAK eta NORTASUN-GABEKOAK IZATEKO, asiera txikerra da ba !!.

KROMAÑON DENBORAK

- Gaur eguneko giza-ezaeraren agerpena “WURM” deritxon izotzaldian 15000-10000 urte Kristo baiño ariñago.
- Euskaldunen edo Kromañon zabalkuntza European.
- Gaur egunean, europako geneetan % 75 euskaldunak dira.

Arrinda'tar Anes'ek diño: “jakin aundiko gizon bi onein eta emakumeen esanetan, ez daukiela adimen edo ezagumenen gabetasunik, EDESTI-AURRE, ODOLA eta GENEAK, gaur gaiaren inguruan dakigunagaz ikerketaren bidez, ezagutzera alan emoten dabelako.

Or banandu ziran, eta bakardadeko denboraren igaro-bidean leiñu barriak sortu ziran, bakartasun orretan eta tronkaletik urrun, gai-gauzai bakotzak beren ulermeneko sinismenean ulertzen eben itzakaz izena emonda, banazeko berezitasuna gura nai-ez artuta.

Ekintza orren egikeran sortu ziran gaur dagozan erriak gure Europa maite onetan, batzuk andikerira jokatzan eta beste batzuk bakez bizi gurean, arroaren erasoai eusten. Eta garai ortan, joera onetatik Munduan bakea lortzeko gai ziranak agertu ziran, edo erromatarrak alan esate eben beintzat; baiña erromatarraren bakea beste erri guztiak menperatuta euren bakea goitik bera sartuta zan (pax romana), eta orain bi milla ta bosteun urtean era berezi ori sortu zanetik berezko batzangotasunaren aukera guztiak apurtuta, gaur be ekintza bardiñakin gabiltz, arrotasun ori ain zitala dalako, nai-ta, erabilitako erak oso esberdiñak izan sasi-jainkotasunezko gogoaren asmoak ez dira aldatu.

Batera erlijio barria eta barriak sortu ziran orduko urduritasunaren txinpartak geratu ta bakeratu naian, baiña sendoagotu baño ez eben egin, berezitasunezko arduradunai, JAINKOA'ren LEGEA'k erakusten dauskun lez bideak moztuta.

Gaur, egoera bardiñean agertzen gara, ez daukagulako duintasunik erdimendeko asieran artu ziran erabagiak aldatzeko, gaurko jakintasunak agintzen

dauskun lez..., JAINKOA'ren agindua arduraz beteteko leenengo, eta zentzu-
nezko gizon/emakumeak garala bigarren esateko, jarraian ikusiko dogun lez.

-ERROMATARRAK-

Keltiar, Iberoak eta Keltiberoak (La Tene 500-100 k. a.) Euskalerrian egon ziran Roma jaio zan denboretan, iru leiñuen batzangotasunetik 753 urte Kris-
to baiño ariñago: Ramnes, Tizio'ak eta Luzereak. Onein artean eraiki eben,
gero Roma-kuadrata deituko zana Palatino mendian.

Erregetza aukeratu eben danon agintari lez eta lenengoetatik gudarako
asi ziran eratzen edo apaintzen borondate aundiagaz, euren babeserako
leenengo, eta euren taldea indartsu ikusi ebenean, beste inguruko leiñuari
eraso eginda azpiratzeko.

Gure lurretara sartu orduko, III'ko gizaldiaren amaieran Kristo baiño ariña-
go, Keltiar eta Iberoak, gu baiño jakinduri askoz aundiagokoak ziranak Eus-
kalerriaz batzangotu ziran, eta euren nortasuna galdu eben, erromatarren
etsai sutsuak ziralako. Orregaitik oneikaz borrokatu ziran, adibidez: kalagu-
rris'en, leenengo Euskaldunakaz beren lurraren aberastasunagaitik, gero
erromatarrak erreustu edo ezeztatu menperatzeko egin ebena Euskaldunen
laguntzaz, (ortik dator gaztelera esaten jakon "HAMBRE
KALAGURRITANA"; saguetatik asita, abereak, larruak, bai illak be jan egin
ebezalako). Erria eta lurak Euskal eskuetan, andik aurrera geratu ziran, eta
Keltiberarrak euki eben Numantzia azkeneko zaintokian, erromatarrak Kristo
baiño 133 urte ariñago erraustu egin ebenagaz Euskalerria eurakaz bat
eginda geratu zan. Ariñago eta ostean, Euskaldunak ondo ikasi ta ikusi ebe-
lako erromatarren indarra aundia izan zala aurre egiteko, eta gaiñera ikusita
zer egin eben sartaldeko Auñamenditik sartu ziranetik, bakez artu ebezan,
bestela aurre eginda, euki eben antolagabeko indarrakaz erriaren eriotza
izango zalako. Ez zan lenengoena, Keltiarrakaz be, bardin egin ebelako.

ERROMATARRAK

- Etorkizunezko berezitasunean batzangotasunaren amaiera.
- Euskaldunaren trebetasuna Erromatarrekin.

Orregaitik burua guztiz makurtu barik on artu ginduezan, euren gudalozteetan be lerrokatuta. Lurra lantzeko ekarri eben tresneri guztia on artu eta erabilten ikasi, eta era ortan abar asko. Ez eben on artu ekarri eben guztia, nai-ta euren artean bizitzarako erabil bearra izan, baiña bai Euskal ulermenean on artzen zana.

Ainbat erromatar gudalozteetan borrokatu ziran Euskaldunak; eta auek, goiko muturrean egon da Augusto'k bere gudari-talde zaintzalea guztiz Euskalduna izan eban, eta aldatz-beran asi ziran orduan be, beste kaisar jaun edo inperatore'kin ere bai. Galba'k (Servio Sulpicio 68'an K.Ostean) Euskal koorte oso bat euki eben, 300'etik 600'era gudari taldea izan leikena.

Gaur Iruña danak, len Olkairun izena eukan, gero Ponpeyo udako borrokak amaituta, Olkariun'era joan zan negua igarotzeko eta Olkariun gaiñean, Ponpelo andik aurrera izendatuko zana jaso eban, 75 urte Kristo baiño ariñago.

Euskal izkuntzarentzat, ordain aundia izan arren Keltiar, Iberiar eta erromatarren menperatasunagaz, euren tresnerizko jakintzatik izen asko artu bear genduzelako, Euskal-izkeraren oñarria edo beren gorputzeko erraiñondoaren oreka eta antolamendua, osasun aundiagaz geratu zan; nai-ta erriberako erritxo batzuk Ebro-ibai ingurutik, jauntxo' en artean latiñegaz Euske-

ra galdu, Euskal nekazaritzan izan ezik. Erromatar porrot'en ostean, Euskera guztia ostera be berrezkuratuta geratu zan. Eta Euskal askatasunaren egarria iñoz... ez ebalako galdu, gaur aukera aundia daukagu berriz izkera eta izatasuna ostera berrezkuratuzeko, Euskadi ta Askatasuna danon artean arrokeriak alboratuta ELBURU lez artzen ba-dogu.

-BISIGODO'AK-

BisigoDO'ak 409'an sartu ziran, eta 409'tik 415'era erromatarrak euki eben guda-indar guztia amaitu eben erdi-ugarte onetan.

Erromatarrak deseginda, Euskaldunak beren Nortasuna berreskuratzen asi ziranetik (arin egin zana), euki eben borroka nagusia berdintasuna lortzeko izan zan, Euskal-apal eta Euskal-aberatzen artean (gudalozteetan erromanizatutakoak). Erroma'tar izaera ori ez zalako ezkontzen Euskal Askatasunaren Berezitasunagaz. Aberatsak euren norberkerian nortasuna galduta euki ebelako, guztiz erromatarren eritzian egoteagaitik ziran borroka gogor areek, gaurko lez.

Godok 415 urtetik aurrerantza, guda sutsuan borrokatu ziran ugarte-erdi onetan erromatarren kaisar-jauntza euren agindu-pean eukiteko.

Erriak zuzentzeko ekarten ebezan erromatarren jaurkintzazko erak antolatzeko, Godok 476'an guztiz desagertzea lortu eben, eta 481'etik aurrera Euriko'gaz asita, Espaina'ko menperatasunaren billa asi ziran.

Euskalerrian Godo'ekin ez zan gertatu erromatarren aurka gertatu zana, ez da antzekorik be. Erromatarren gudalozteetan ibilita zeozer ikasi gendulako, beti aurka egin geuntson, eta oneik erromatarren antzera gudarako antolamendu aundia euki arren, gure mendietan sekula ez ziran sartu. Bai alderantzis buruko min aundiak artu, gure arbasoak bertatik sasi-gudan ekiten ebela-ko, mendiak etxea lez artuta babeserako.

Godok, Euskalerria menperatzeko ez eben ekarten erromatarren ainbesteko indarririk, eta nai-ta 300 urte luzeetan ekintza gogorrean ibili, gure Nortasunarentzat ez eben garrantzi aundirik euki.

Gure Erriaren edesti lez esan leike: "godo'akaz euki genduzan guda-borrokak iraun ebela, godo'aren erregetzak iraun eban aldi"; nai-ta eurak beti esan bearrezko esatea izan errege bakoitzaren edestian: "ET DOMUIT VASCONES".

BISIGODOAK

- Euskaldunen eta Bisigodoen borrokak.
- Bisigodoen amaiera.

Emen be argi ikusten dana, Euskaldunak nai-ta nai-ez, oso ezagunak izan bear giñela Europa guztian, Batez be, orduan, gure lurak askoz zabalagoak izan ziralako.

-KRISTAUTASUNA ETA ERLIJIOA-

Erromatar kaisar-jaunen sasijainko menpekotasunaren izaera, eta gizartean aberetasunezko eginkizuna ezereen lotsa barik izateak, Kristautasunak ekarren moralai edo ekanduzko zendotasun alegin barriari ezin bestean lagundu eutson, eta kristautasuna jendartean, sutauts'en antzera zabaldu eta onartua izan zan Europa osoan , Afrika'ko iparrean eta danez gain Ekialde erdian.

Gaiñera, ezereztuteko euki ebazan (202'an Septimo Severo) jarraipenak, askoz geiago goratu eben; ez berak indarra euki ebalako, bai erromatarrek berez menpekotasunaren sortzailleak ziralako eta goibera oso baten sartuta egon ziralako.

I Konstantino 306'an igon eban kaisar-jauntzara eta Bizanziora eroan eban erromatarren uri-nagusia, Konstantinopla andik aurrera deituko zana. Baiña leenengo, Galeno'k 311'n Sardika'ko legearen bidez askatu ebazan Kristautasunaren jai-arauak, Konstantino'k 313'an Milan'eko agindua emon ebanagaz Valerio'k baiztatu eban.

Amabi urte beranduago 325'an, Nizea'ko Eleiz-Batzar nagusia batu eben bere agindupean, eta bertan Arriano'ren irakaspidea baztartuz katolikotasuna (latin katholikos'etik datorrena, eta orokar edo guzientzako dana. Eta berau Grekoera'tik: Kata'r= Ulertza esangura dauana eta: Holos= dana, edo dan guztia esangura dauana) besarkatu eben.

KRISTAUTASUN TA ERLIJIOA

- Zelan agertzen diran berezitasunaren aurka.

Eritzi au ez dogu galdu bear ikusmenetik, gero Toledo'ko Eleiz-Batzar Nagusiekin sortu zana VI gizaldian zergaitik izan zan jakiteko, eta XV gizaldiko katolikotasunagaz zer gertatu zan, oraindik eta gaurko askatasunaren bideak debekatzen dauazana.

Erromako kaisar-jaun guztiak Konstantino'tik asita, Juliano eta Eugenio ezin ezik, kaizergo menperatzail aginpidea Eleiza'gaz batera indartu gura eban, eta orregaitik danon buruetatik gaiñeratu eben itz katolikotasun ori, eurak eritzi ori sinestu ez arren. Eta ortik aurrera Eleiza izan da 1453 urtean Europako kaisar-jauntza gorde eta zaindu egin dauana, indarra batzuen eskuetan bakarrik egon daiten, beti asmakizun zikin orren barruan (Espainan'n Rekaredo'kin 589 urtetik onantza Toledo'ko Eleiz Batzar Nagusietan= concilios).

Batera, Konstantinorekin Kaisartzeta eta Eleiza JAINKOA'ren ordezkoa zala Ludi onetan erabagia artu zan, eta ortik aurrera or !! ibili dira sinis-egiakaz gora ta bera dana naastuten.

Euskaldunak erromatarrekin beti konpondu ziran euki eben sinismenarekin, eta alan iraun eben kristautasuna besarkatu arte. Gaur be konpontzen da, bere sinismenean JAINKOA'ren egarri betea daukalako; orregaitik daki, kristautasunak berezitasunaren aurka dagoala, Nizea'n 325'eko urtean artutako leenengo asmakizunak ez diralako alboratu, eta eritzi orren bidetik doalako gaurko Globalizazioa Ameriketako kaisar-jaun barri'en babesean. Orregaitik erlijioaren utstasuna, nai-ta Europa eta erri guztiko gizon/emakumeak JAINKOA'ren egarri izan.

Gaur Europa'k eta Mundu'ko giza guztiak badakigu, danok ardurak zaintzeko jaiio garala lotsagizun aundiz. Baiña betiko lez, badagoz guztiz oker dagozenak, esaten dabelako: "eurak danon ardurak zaintzeko naikoa dirala". Eta ez-badozu gura euren eritzia on-artu: "KURUTZERA".

Lenago asmakizun orreik izkutuan eroaten ziran, erritarren artean gitxik baiño ez ebalako jakin irakurten eta idazten. Baiña gaurko gizarteak asko daki lez..., eta aundiena: JAINKOA'ren LEGEA'kaz beartuta, Nortasunaren egarrizko ardurak eragiten diralako, NORBERKERIKO guzurak, berez, eta agiri agirian danon begi-bistan geratzen dira.

"ORDUA DA MUNDU ONETAN ZUZENTASUNEZKO ERABAGI-ON ETA SENDO BAT ARTZEKO". BESTELA, GAURKO ZIBILIZAZIOA: "-NEGARGARRIZ, BARREGARRIA IZANGO DA".

-MAURITARRAK-

Gure erriaren askatasunarentzat, eta ez guretzat be, arabiarrek ez eben euki gal-zori edo ezetako galbiderik, nai-ta leenengoetan Iruñean zeozer en asmoak euki, baiña gure alegiñekaz gogo ori laster joan jakien.

Nik esango neuke askoz geiago artu genduela eurogandik guk emon baiño; danez gain jakituria, eta ez gaitazan aaztu, gure Nafarroa'ko erreñua sortzeko, Banu-Qasi sendi mozarabe aldetik, Ebro-ibai ur-bastarrean kokatuta egon ziranak, nolako laguntza artu gendun 824'an.

MAURITARRAK

- Mauritarren irakaspina

Eta emen ikusten doguna, Europan bakarrik ez gintzala izan oso ezagunak Iparraldean Loira'tik-Ebro egoalderarte; Auñamendi guztia Sortalde, Eki-alde edo Eguzki-aldetik; eta Burgos ta Gaztelarrak Sartalde, Ospel-alde edo Mendebaldeko lurraldeetan gu izan giñelako, bai Afrikan eta Europa osoan bizi gintzazan guztiak, oso ondo ezagutzen gintzalako. Gaur ikusiko dogun lez, alegin eta indar ikaragarriak egiten diran lekuan berezitasunezko erri-artean ezagunak ez gaitazan izan; iñork jakin ez daian nortzuk diran benetako arduradunak.

Gaur, zelan ostondu leike berezitasunezko Mundu au..., eurak, menperatzaileak, nai dauena egin dagian ?.

-GURE ASKATASUN'aren AZKENEKO DENPORAK-

Orain arte ikusi doguna: nai-ta len Frankoa'k aipatu ez, eta Godoa'kaz batera, amaitzen dala Europa'ren ikas-ekitaldi bat Kromañon'en Euskal denboratik asita eta Europa guztitik zabaldua. Euskal berezitasuna zutik agertzen dala, beren guztizko demokraziagaz, edo askatasunaren ametsarekin, ainbeste borrokaldi ta leiaren ekintza bidetik.

Orain ikusiko doguna, gure erreñua sortu zanetik, norarte iraun eban gure askatasunak, eta gaur zergaitik gabiltzan guztiz borrokan sartuta, batzuk kendu gura dauskuen askatasuna ostera be berrezkuratzeko.

Baiña gaiñera konturatu bear garena, erromatar'ekin asita gaurko egunearte, borroka bat bakarrik izan dala, eten-bako ari bat bezela Europa'ko edestian datorrena apurtu barik, gaur Mundu guztira zabaldu dana: Menperatasunezko indarrak, berezitasunaren askatasuna apurtu gurean.

Eta ekintza orrek esangura dauana: gizon/emakume batzuen asmoak, JAINKOA'ren LEGE'ak kontuan artu barik, eurak agindu edo beartu gure dabela "sasi-jainkoarenak eginda, Mundu onen antzoki edo ezin besteko agertokiko antzerkian gizarte guztiari da.

Baiña danez gain begitu bear doguna, gure erreñua sortu zanetik, Euskal-Nortasuna zelan joan dan berakada txiker batetik lenengoetan asita, eta malda-bera aundi baten borboi'en ezarpenetik, Euskal gizarte oso bananduta geratuz, gaur ikusten dan lez. Ta karlistadaren ostetik, Sabino'ri esker, zelan joan garan gure izatasuna berrezkuratzen, gaurko egunean agertu arte.

Nik esango neuke zalantzarik gabe, Mundu'ko irugarren borroka nagusian sartuta gagozela daukagun" Berezitasunezko eta Menperatzaileen" artean, betikoa dan eztaibadarekin.

781'an, Karlomagno'k bere iru urteko semea "Luis el Piadoso" Akitania'ko errege izendatu eban, bere eskuetan geratu daiten, Euskal-berezitasuna

desagertzekoaren naian, baiña Euskaldunak euren Nortasunagaitik tema-
tsuak izan ziran lez, beti berrezkuratzen eben eurena zana.

Gure erregetza, 824'an Aritza'tar Iñigo'rekin Nafarroan asten da. 852'an "Dukado de Baskonia" argiratu zan Mitarra'tar Santxo leenengo dukea izan da. 870'an, Bizkaia'k Leon'eko erreñutik aske geratu gura dau. Leon'eko erregea orduko denboratan Ordoño izan zana, Bisigodo'aren aginpidea edo kaizar-jauntza (centralismo) berrezkuratu gura ebana, eta beren gudalozte indartsuagaz etorri zan Euskaldunak menperatzeko asmoakaz. Oneik Padura'raiño sartzan itzita, bertan ikaragarrizko triskantza egin eben euren guda-
lozteagaz, Ordoño bera be ilda, andik aurrera "ARRIGORRIA" ga deitukoan erritxoan ixurikatu zan odolarekin.

999-1036'en arteko urteetan, III'garren Santxo Aundiaz agertzen gara, eta beraz gure izaeraren aundienean, Euskal izkuntzagaz lotuta egon ziran leiñu guztiak batera agertzen diralako. Loira ibai'tik, Akitani ta Gaskuña guztiaz, gaurko Euskalerrigaz, Gaztela'tar eta Aragoi'tar en duke-lurrakaz, Iparraldetik Egoaldera, eta Leon-Asturias'etik eurak be barruan dirala, lletarrakaz Lleida'ren amaierararte, Mendebaletik Sortalderaiño. Baiña kontuan euki bear doguna: beragaz eta bertan asten dala gure etenbako malda-beera-
koa, nai-ta lenengoetan txikerra izan bazan be, gero esango dodazan gauzakin aundiagotu egiten dana, ia, ia, gure Nortasuna desagertu arte.

III'garren Santxo Aundiaz, Europa'ko erri aundiena Euskalerrria izan zan, eta 1034'an erregea "Waskonun Gens" "Waskonun Nationen"edo" Nacion Baskona "ren" Imperator" edo Kaizar-Jaun izendatu eben.

Baiña III'garren Santxo Aundia 1.036'an iltzen da, eta orretarako 1.035'an erreñua bere lau semeen artean banatzen dau: Iruña'ko erreñua III'garren Garzia Santxez'eri; Gaztelarren kondetza Fernando'ri; I'go Ramiro'i Aragoi'ko kondetza; eta Sobrarbe-Ribagorza Gonzalo'ri, ostean danak erreñuak egin ziranak eta Euskal-izkuntza guztiaren batasun-politikua andik betirako apurtu ebana, Euskal-legea ez ebalako kontuan euki. Errien gaiñetik euren izaera zala aunditasunean sinisten asi ziralako. Europa'ko erreñu guztietan aundikerien asmo ori, erriaren gaiñetik eurak zirala, bardin bardiña zan, Katolikotasunaren itzak euroi emoten eutsielako arrokerizko aundikeri ori, eta gero ikusiko dan lez ikaragarrizko kalteak Europa'ri emon dautsozenak, gaur be ez garalako gai orko zulotik urteteko, naaste onetan guztiz zikinduta egonda, baktzari berea emon ez arren.

Gure Nortasun eta Izkuntzarentzat, emendik aurrerako denborak dira maldan-beerako aldapa geiago okertzen asten diranak.

XII'garren gizaldian eta 1.150-1.194 urteetan Santxo Jakintsua'ren errege denboran, gure izkuntza aunditasun guztiaz "Lingua Navarrorun" izendatu eben, eta Iruña'ko erreñua'ri "Reino Navarrorun", baiña Euskaraz sekula be ez zan idatzi Nafarroa'ko gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, lateraren indarrak erromantzeraz idazten zalako, latera, berezitasunezko izkuntzaren gaiñetik ezarrita, jaurkintzaren maillan.

Or! geratu bazan, ez zan izango gauza aundirik, gure Euskara'ri sortuko jakona, Gaztela'tarrendik asita Euskera izan zalako danon izkuntza, baiña laterazko izkuntza eta kristautasun ugaritasunen jakintza batera joan ziralako, eta kristautasun erlijioaren siñezbidea danean ezartzeko, premitasun edo ikaragarrizko leia egon zan lez (begitu bestela zelako astokeriak gurutz-gudaldietan egin ziranak, eta gero ta gogoratuagaz inkisizio edo fede-zainengandik ezin besteko zigortasunakaz ezarrita egin ziranakaz), berezitasunezko izkuntzak eta Euskera batez be , siñezgaitzaren izkuntz-lez artu ziran, MARI sinezgaitzaren izkuntzak zirala esan da.

GURE ASKATASUN'AREN AZKENEKO DENBORAK

- Austria erregetzaren askatasunezko denborak.
- V Felipe'ren mempekotasuna ezartea.
- Franco'ren menpekotasuna ezartea.
- Gaurko mempekotasuna.

A ta guzti be, Euskeraren sendokuntza galtzen joan arren, ez zan izan errian, goortetan edo erregetxetan baiño galtzen joan zala, eta errian beranduago, XIV'gizalditik aurrerantz: Euskera , Ebrai-izkuntza eta Mauritarrena sinezgaitezkoak ziralako, euren ta kristautasun egokitasunagaitik erregetxetik bialduta. Ortik agertzen dira, geroago guk be ainbeste bider entzun doguzan gure Euskeraren kalterako azpizkerizko bai maltzurkerizko iruzurtiko esae-rak: "HABLE USTED EN CRISTIANO".

Gauza onekin apur bat kontuan jausteko esan bear dogu: 1.200'engo urtean Gaztela'ko erregeak Ojakastro'ri, Fuero'ak emon eutsozela, epaiketa guztietan Euskara erabiltzeko, beste izkuntzarik jakin ez ebalako Ojakastro'ko erriak.

Emendik aurrera, gero ta argiago ikusiko doguna gure Europa maite onetan, Euskaldunak oso ezagunak ziralako leenengo, eta erriak erregeakaz itzarmen edo elkargo baten antolamenduagaz euren babeserako eratu egiten ziralako, nai erregea nor-bereren errikoa edo atzerrikoa izan, bigarren.

Orregaitik, Araba 1.200'ean guda'ren bidez Gaztelatarren gaitik menperatua izan bazan be, 1.332'an Araba'tarrak beartu ebezan Gaztela'ko erregea euren Jauna izan daiten (Señor).

1.224'an Bizkaia Nafarroa'ko elkargotik banandu zan. Baiña zoritxarrez, 1.379'an gure Jaun Aro'tar Juan'eri buru gaitzean Gaztela'tarren koroia ezarri eutsoen, eta andik aurrera eurak ziran Bizkaia'ko, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa'ko Jauna'k, baiña ez lege- egilleak, 1.839'an Agorrilla'ren 31'n Espartero'k Bergaran, Euskalerra oinpean mendekatuarte.

Emen aitatu egin bear doguna, Gaztela'tarren erregetzak, Nafarroa'ko erregetzak baiño obeto aituten ebala Euskal Askatasunaren egarria, Nafarroa'koak beart-erazle'en batzangotasunezkoak ziralako; orregaitik Nafarroaren erantzuna erregeari: "NI ZURE BESTE, DANOK BATERA ZU BAIÑO GEIAGO". Eta ez gaitzean aaztu, orduan danak Euskaraz egiten ebela. Orregaitik gure Laterrietan "FORUA'k", Euskalerrian batzangotasunezko babesak eta Jaurkintzak, beti izan diralako elkargoaren bidez, gure erriaren berezitasunezko jokabidearen "UNE" beti askatasunen bidezkoak izan diralako.

Baiña Kristau-erlijioa gero ta indartsuago joan zalako, gure erregetza, jauntza, gorte eta jaurkintzaren gizon/emakumeak Euskal giza-barrena guztiz galtzen asi ziran, norkerietan ibili ziralako eleiztarrak bultzatuta, erritarren baiño beste goragoko mailla baten kokatu ziran, Europa osoan bardin sortuta, erregetza guztia senitartetuta geratu zalako, eta errege katolikoetan ikusiko dana, ots-aundiko edo fazakerizko katolikotasun itz ori, aundikeri ortarako ipini eutsielako. Orregaitik, Fernando'ren ekintzan Nafarroa'ri buruz, ikusten da, berak oraindiño euki ebala Euskal arima'ren nortasunezko izaera, Nafarroa menperatu eban ostean, lotsagizunezko ekiña'gaz zaindu ebalako bera bizi zan artean.

1.504'an Isabel katolikoa il zanean, Fernando Aragoi'ko beren erreiniura bigaldu eben, Juana bere alaba Austria'ko Felipe "el hermoso" rekin ezkondu ta egon zana Gaztela'tar en erregetzara igonda.

Oneik, Nafarroa'ko erregeakaz 1.506'an Agorrilla'ren 27'an adiskidetasunezko alkargo bat sinatu eben, Fernando'k ezer jakin gabe, eta ortik ikusiko dogu zelakoak ziran bere asarreak.

Fernando bitartean Foix'tar Germana'rekin ezkondu zan eta seme bat euki eben. Oneik, Frantzia'ko erregetzaren oiñordezkoak ziralako, ortik aurrera, Espaina'ren aberrikoiari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakiela, Felipe "el hermoso" ur apur bat edanda il zan, Juana zoratu eta Germana il zalako, bai semea be, Fernando'ri deitu eutsien Gaztelarren erreñuan errege ordezkoa izateko.

Eta emen, garrantzi aundiko galdera bat agertzen jaku: Zergaitik ez eutsoen Zizneroz Kardinalari deitu?

Felipe erregea il da, Frantzez eta Gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan (alan esan eben beintzat), eta Fernando'k orren egoeraren unetxoia gozatu eban Naparrak zigortzeko. 1.512'an Uztailla'ren 21'an Alba dukearen guda-indarrak Iruña aurrean geratu ziran, eta iñungo borrokarik gabe 25'ean uri'ko giltzak Alba'ri emon eutsoezan.

Fernando'k, nai-ta guda eskubideakaz ezarri beren ekintza, Done Fransizko Xabier'en aitari, legezko Nafar-erregearen aldekoa gorputz eta arima guztiaz izan zanari, euki eban aginpideko lan errege-aolkularitzari, lotsagizunez il arte itzi eutson. Nafarroa'ko Forua'ri zin-egin eutson 1.513'an Epaila'ren 23'an, eutsi egingo ebala Nafartarren jaurkintza guztia, gero 1.515'an Tudela'n sinatu zan alkargoarekin, Nafarroa'ko erregeari andik aurrera antolatzeko bideak moztuteko.

Fernando, 1.516'an Urtarrilla'ren 23'an il zanean, Nafarroa'ko erregeak ostera be gudarako leiatsu agertu ziran, baiña aurrean Jimenez de Zizneros'tar Fransizko, Toledo'ko kardinal nagusia, fede-zain (inquisidor) aundiena eta orain errege-ordea zana agertu jakien, eta atzera egin bear eben. Zisneros'ek koronel Villalba'rekin Nafarroa'ko gaztelu, eleiza eta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat Nafar ilda eta ereiñeko lurak kiskilduta. Triskantza au eginda, Villalba koronelak Zisneros'eri idatzi eutson: "Navarra està tan baja de fantasia despuès de que vuestra señoria reverendisima mandò derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza".

Zisneros, 1.517'an Azaro'ko 8'an il zan, eta Nafartarrak ostera be gudarako aupatu ziran, Noain'en 1.521'ean Bagilla'ren 30'ean guztiz apurtuta geratu ziranak. Andik aurrera, Espaina'ren I'go Karlos, Alemania'ko V'garrena eta Nafarroa'ko IV'garren errege izango zanaren eskuetan geratu zan dana. Onek, Beenafarroako'ak bertan itzi edo ukatu ebazan, eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratzea lortu eban.

Eta emen argi ikusten dana, erregeak elkargokoak izan arren, azpikeriko joko baten bidez, erri-berezien urtutasuna edo suntsitutasuna gura ebela, baiña erri guztiak iltea lortu ezin leikelako..., alkargoan iraun gendun Austria'tarren erregetzaldi guztian. Eta nai-ta denboraldi orretan Euskal gizon/emakume askok nortasuna galdu, apur apurka Madrille'ko jauregiaren lorio-bideetan (pasillos) zatika jausten jakielako eta aundikeri edo norkerizko jokia batzuentzat atsegiñezkoa izan zalako, Euskal erriaren berezitasunezko izaera XVIII'garren gizaldian gorputz oso baten agertzen da, sinatutako alkargo edo itzarmenaren bitartez Espaina'ko erregeakaz gure jaun lez.

Eta aspertu ziralako itxaroten, berezitasunezkoak ez gintzalako urtzen, V'garren Felipe borboia ipini eben, ia gudaren bidez, Ugarte-erdi onen berezitasun guztia desagertzen eban. (Gaur be, ori asi dira egiten alkarteko legearekin, Batasuna'ren aitxakiagaz).

Ortik aurrera indarraren bidez gura eben, berezko erriak eta izkuntzak desagertu daitezcan, eta ekimen orreri laguntzeko, Frantzesak 1.789'an iraulpen gogor bat egin eben, izen bereziak elburu lez ipinita, Europa'ren berezitasunezko erri ta gizartearentzat, azpikerizko edo iruzurrezko joko aundi bat izan zana.

Erregetzaren lillura ta indarra ortik aurrera galdu zalako XIII'garren Alfonso'gaz amaitzen da 1.931'an Jorrailla'ren 14'an, nai gaur ordezeko erregetza euki arren, gudaloztearen indarrak erriaren buru gaiñetan espatak ezarri ebezan Europa guztian, eta ainbat borroka, eriotza, espetxe, negar eta egon-eziñaren bidetik, gaurko egunetan be arazo bardiñekin gagoz, menperatzaillakaz irugarren Munduko borroka nagusienean, ikaragarrian iruzurrezko Batzango edo Globalizazioarekin.

XIX'garren gizalditik gaur-arte, erri berezien askatasuna guztiz menperatuta dago, eta daukiezan izen bereziak ostonduta, oial edo errezelpe antzeko baten. Baiña nai-ta izena ikusi ez arren, "guzurrezko ESTADUA"ren estalkipean dauan mugialdia eta ataraten daben arrabotsagaz Europa guztian erkidetu egiten gara, eta ekimen orrek, nai izenak apuribat aitzuta euki arren, ez diralako ikusten, gogora beti etorriko dira.

Orregaitik European, Euskaldunak eta erri-berezi guztiak oso ezagunak gara, Europa'ko erri berezitasunezkoak lez.

Baten batek esan dau..., Euskalerrria European ez dala bizi?.

-LABURPENA-

SARRERAN: ikusi dogu, zelako zentzutasunaren gogo-zabalean idatzita dagon idaz-lan au, itaun arrigarritzko bat askenean egin bearrezkoa izanda: "gaurko egunean, zelan egia izan leike, Euskalduna'k Nortasunezko Berezidunak izanda, Europa'n beti danik bizi dirala, esanbearra izatea?".

Bai-ta gure aldetik edo berezitasunezko erriaren seme aldetik salatuaren edo erakutsiaren bearra, gizon ta emakume batzuen sasijainkotasunaren norkerizko jokua asieratik asita, apurka apurka igoten dauala mailladunezko menperatzaillak biurtu arte. Eta zelan euren guzurrak edestian zear lotuta dagozan eten-bako eritzi bategaz gaur arte, leenengo guzurrak gaurko guzurrarekin bardiñak eta bat dirala, lotuta dagozelako esan bearra: JAINKOA'ren LEGEA'k len eta gaur bardiñak diralako.

Eta bide onetatik iraun ezkerro, gaurko Mundua'ren egoera edestian zear barregarritzkoa izango dala.

Bai, erri baten Ariman, zelako garrantzi aundia daukan bere izkuntzak, Nortasuna sendotzeko.

LABURPENA

- Zer ikusi dogun: Kromañon, Erromatar, Bisigodoak, kristautasuna, Mauritarrak eta gure askatasunaren azkeneko denborak.

-KROMAÑON DENBORAK-

Zelan European, oiñarrizko gizartearen geneetan, %'etik 75 Euskaldunak dirala, oiñarrizko izkuntza Euskara izan da. Eta Kromañon giza deituten jakonari, Europa guztitik gezaltze denboratan zabaldu ziralako izotz-oreiñak eta mamutzar'en atzetik, gaur Europa'ko izkuntzetan agertzen diran "Aran, Ur, Ibar" eta abar asko itzak, Euskal izkerakoak dirala.

Eta Arrinda'tar Anes'ek zelan esaten dauan egia dala: "edesti- aurre, odola ta geneak", gaur gaia'ren inguruan dakigunagaz ikerketaren bidez, alan emoten dualako.

-ERROMATARRAK-

Emen ikusi doguna, Keltiar eta Iberoak aienatu, alden du edo urtu egin zirala, erromatarrak etorri ziranean, eta oneik desagertu ziranean gure artean ainbeste denbora egon da gero, bereala berrezkuratu genduzala gure Euskera ta Nortasuna.

-BISIGODOAK-

Oneik, etorri ziran orduan, naiko lan euki ebala leenengoetan, erromatarren menperatzail aztarnak edo oiñatzak gizarteko jaurkintzaren antolamendurako legeak ziranak arlo guztietan ezeztuten, euren berezitasunezko menperatzail eritziagaz xabartu edo gain-marratu arte, Euskalduna'k bitartean gure sedokuntzan aleginduta.

Eta gure borrokak eurekin iraun ebala, Godo'en erregetzak iraun eban aldian, nai-ta "ET DOMUIT VASCONES" esan, erregetza amaitzen eben bakoitzean.

-KRISTAUTASUNA eta ERLIJIOA-

Emen ikusten doguna, erromatar menpekotasunaren izaera, izatez-kontrako edo jatorriz besteko oso gogorra eta zakarra izan zanak, Kristautasunezko moral edo ekandua'ri, asko lagundu eutsola.

Baiña zelan IV'garren gizaldian, Konstantino erromatar kaisar-jaunak Eleiza eurenaganatu eben Mundu onen gizartea indarkeriaz eta beldurrez euki eben menperatzail asmakizunagaz, andik aurrera batzangotuta bizi gaitez an gaitolikotasunaren itz-erreñuan. Non geratzen dira..., JAINKO sort-arazlearen LEGEA'k eta Kristau morala?.

Orregaitik kristautasuna, erri ta izkuntz bereziaren aurkakoa biurtu ebalako, beti danik daukaguz eten-bako borroka latzak.

Oraintsuarteko gudak, beste asmo batzuen gandik sortutakoak zirala gogoratzen giñan, baiña ez da egia, beti izan diralako sasijainkotasunaren menperatasunezko indar-aginpideagaitik. Orregaitik "POR LA GRACIA DE DIOS" "-DESTINO EN LO UNIVERSAL" en ametsak eta " HABLE USTED EN CRISTIANO " bai abar asko be, MENPERATZAIL-ERITZI" orren LORAK baiño besterik ez dira, berezitasunaren aurka.

-MAURITARRAK-

Emen ikusten doguna, oneik be menperatzail zaleak zirala, baiña gure Euskalerrian ez ebela kalte aundirik egin. Euregandik mesede geiago artu gendulako ikasiakaz eta gure Nafar'tar-erreñuaren sorkuntzarako Banu-Qasi sendi gandik artu gendun laguntzagaz.

-GURE ASKATASUNA'ren AZKENEKO DENBORAK-

Emen ikusten doguna, zelan gure erregetza jausten dan katolikotasunaren sare-artean eta erriagandik urrunduta, ortik aurrera Europa'ko erregetzaren kaisar-jaunen aundikerietan ezarri zalako, Euskal-Nortasuna galtzen joaten dala, gero III'garren Santxo Aundiak Euskal legearen aurka egin eban astokeriagaz.

Austria erregeakaz, gure alkargo ta Foruak zaindu genduzala, baiña XVIII'garrengo gizaldian Espainola'k V'garren Felipe borboia erregetzan ezarri ebenetik, zelan alegindu ziran, Frantzian 1.789'ko iraultzaren eredu artuta eta izugarritzko guzorra izan zana: "Frantzia'ren erregea , Frantze-sa'ren errege biurtu zalako", bere muga barruan euki eban erri berezitasu-nezko guztia frantzez biurtuta; gogortasun guztiaz erdi-ugarte au mendeka-tzen gudaloztearen bidez, gero 1.839'an Espartero'k guzur aundi bategaz oinkatu ebana.

Ortik aurrera Europa'ko berezitasun guztia daukagu estalki aundi bat gure buru gaiñetan, berezitasunaren Nortasuna ostontzeko.

Eta jakiteko leenengotatik asmakizun bat dala, erregetza desagertuarren, nai-ta oraindiño zeozer geratu, espatak gure buru-gaiñetan ezarrira dagozala "ESTADOS DE DERECHO" estalkipean ostonduta eukiteko.

Euskalerrria ortik aurrera eta orren estalkipean, borroka bizian irauten dau, bere gizon/emakumeen ta erri arduradunaren askatasuna lortu arte.

-IZKUNTZA-

Erri baten ekanduzko eraikintza da !, bere azalpenean Erria'ren siñismena erakusten daualako.

Orregaitik, Itza, Arimaren otsa biurtzen danean, JAINKOA'ren seme-ala-bak berba egiten dabe edozein izkuntzetan, eta batez be Ludi onen Euske-ra izkuntz zaarrenean, bere mamian ikas-bide aundiena daukalako beti JAINKOA'ri begira.

IZKUNTZA

- Zelan dan erri baten ekanduzko eraikintza, bere azalpenean erriaren siñismena erakusten daualako.

Ortik aurrera, ARDURAK zentzunezko egi-zendotasunean bete egiten diralako, dator: " EUSKALDUN'en ITZA ". JAINKOA'ren ABERRI'rako bideak zabaltzen dauana gizarteko erri-berezien ekintzatik.

JAINKOA'ren LEGE'en bidetik: " NEURRIAN ARDURADUN IZATERA BEARTU GAITULAKO " .

- EUSKALERRIA BETI DANIK BIZI DA EUROPA ONETAN-

ORREGAITIK EZAGUTU BEAR GAITUE EUROPA'N GURE IZAERA BEREZIAN, BORROKA BARIK, BAIÑA INDARTSU, ELBURURA BEGIRA, JOKO-ON BATEN BIDEZ.

OHARRA

- Gai au, ziur nago galdera askokoa dala, eta orregaitik gura neuke, azke-nean, bear diran galderak egitea; beren ausnarretik, ulermenean daukaguzan illuntasunak argitzeko. Baita azken baten pozik urten daigun solas itzal-di onetatik.

**- ATUTXA'tar PAUL:
ZORNOTZAN 2.002'an URRILLA'ren 12'an**

“36’KO GUDAN SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK”



Mari Karmen Garmendia, Jose Maria San Sebastian (Latxaga), Paul Atutxa eta Martin Olazar, aurkezpenean.

GURE LIBURUAREN AURKEZPENA

Oraintsu argitaratu dogu, Euskerazaintza’k talde lez egindakoa dan eta idazpuru au daroan liburua: “36’ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak”.

Mitxelena Kultur-gunearen aretoan izan zan aurkezpena: Aretoa bete-beterrik, txistularia, aureskua, bertsolaria eta zer ez?

Liburua asmatu eban eta taldea zuzendu eban Latxaga’k egin eban lenengo aurkezpena eta urrengo Mari Karmen Garmendia’reu itzalditxu egokia entzun gendun pozez.

Liburua egiteko askoren lanak batu ziran: Ardantza’tar Jose Antonio, Kortajarena’tar Andoni, Elozegi’tar Alberto, Arrinda’tar Anes, Urionabarrenaetxebarria’tar Jose Antonio, Atutxa’tar Paul, Latxaga, Arzeluz’tar Amale, Olazar’tar Martin, Garmendia’tar Mari Karmen... eta aurkezpen onetan iru itzaldi egin ebezan eurak egindako lana aurkezteko, Atutxa’tar Paul’ek Lurgorri’ri buruz, Olazar’tar Martin’ek Lauaxeta’ri buruz eta Latxaga’k Josu Peña (Aitza)’ri buruz.

Aretora sarreran liburu au saltzen zan eta 50 batek erosi eben.

Pozik amaitu zan aurkezpena, alboan egoan jatetxe baten bazkaria alkarregaz egiñaz.

Gure irakurleai pozik emoten dautsegu barri zeatzagoa zenbaki onetan eta liburua bera amaitzeaz dago eta liburutegi guztietara bialdua izan dala iragarren dautsegu.

Olazar'tar Martin'ek.

1.- "EGUNKARIA"K DIÑOANA

HISTORIA. Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza idazleei buruzko informazioaz gain garai historikoko datu ugari bildu dute

36ko gerran hildakoen idazkiak berpizturik

Latxaga, Olazar eta Atutxak egindako liburua aurkeztu dute: '36ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak'

Ainara Gorostizu DONOSTIA

"Baditugu guretarrak beren bizia eman zutenak Euskal Herriaren alde, eta zerbait bagara, haiei esker gara", esanez hasi zuen, atzo, Jose Maria San Sebastianek Latxaga-k 36'ko Gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak liburuen aurkezpen ekitaldia. Martin Olazar eta Paul Atutxarekin elkarlanean, Estepan Urkiaga Lauaxeta (1905-1937), Jose Mari Azkarraga Lurgorri (1616-1937) eta Josu Peña (Aitza) (1915-1937) idazleen garaiko egoera, obrak eta euskaltzaletasuna ekarri dituzte gogora. Horrez gain, 36ko gerrako xehetasunez jantzia dago liburua: hildako gudari anitzen izen zerrendak, gerrako espetxeratuen azken hitzak eta gerra garaiko gertakizunak biltzen ditu bertan, beste berri ugariaren artean, Euskerazaintzak, Euskeraren Erri Akademiak.

Memoriaren aldarrikapena dakarren liburu honen egileek Euskal Herriaren historian "ahaztu ezin den" pasarte zabaldu nahi izan dute: "Guk nahi genuen azaldu Euskal Herriak dituen goi mailako balioak, gure azkeneko gerran bizia eman zuten gazteek ez zutela inon erantzunik izan ikusi genuen-eta. Orain 66 urte dira hori gertatu zela eta orain da garaia jasotzeko gazte horien emaitza".

Txistularia lagun zuela Daniel Agirretxek agurra dantzatu ostean, Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohiaren ostean, Euskerazaintzako hiru kideek Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza ekarri zituzten gogora.

Euskerazaintzako buru eta Zer aldizkariaren egilea den Martin Olazarrek Laukizen sortu zen Lauaxeta izan zuen hizpide, kultur jazarpenaren inguruan gogoeta egin zuelarik: "Diktadorek aurretik eramaten dute kultura, eta gure idazleek eta kultur gizonen izugarritzko jazarpena jasan zuten", esan zuen. Lizardi eta Orixeren parean, Lauaxeta gerra aurreko euskal poeta handienetakoa zela gogoratu zuen. Geroago fusilatuak izango ziren idazle horien "konpromisoa" nabarmendu zuen: "Beste leku askotan bezala, olerkariak ezpata-dun bilakatu ziren hemen ere" eta egun, Lurgorri eta Aitzarekin batera bizirik balego zer egingo ote zuten galdetu zuen.

Paul Atutxak, berriz, 21 urterekin fusilatu zuten Lurgorriren bizia ezagutarazi nahi izan du; horretarako, Euskal Herriko "goi mailako" jendearekin ibiltzen

zen gazte honen gaztelerazko lanak euskaratu ditu Atutxak, "Euskal Herriko hizkuntza euskara delako". Euskaraz oso ondo ez zekien mutil honi "bihotz ikara eman zion "lurgorri" gan ikasitakoak eta harrigarria da Euskal Herria nola maitatzen zuen, gure herriarekin zuen senidetasuna".

Gerraren inguruko galderak

Latxagak "euskotar idazle ezezagun bati" egin nahi izan dio ohore, Aretxabaletako langile familiako semeari, Josu Peña Aitza-ri. 22 urterekin fusilatu zuten gazte honek 70 artikulua idatzi zituen, "22 urterekin Euskal Herriko aldizkari guztietan idatzi zuen". Aitzak 36ko gerrari buruz zituen galderak argitu zizkion Latxagari: "Nire eskuetara iritsi ziren liburu guztiak irakurri nituen, baina ez nuen ulertzen borroka hura zertan zegoen oinarritua, zergatik hiltzen zuten euskaldunek beren artean? Aitzak eman zidan erantzuna: Euskal Herrian daude anaiak oso urruti elkarrengandik. Batzuk daude Madrilekin lan egin nahi dutenak eta besteak euskaldunak", adierazi zuen Latxagak.

Txomin Garmendiak bi bertso abestu ostean, ekitaldira inguratu ziren 50 bat lagunek Agur Jaunak kantatuz amaitu zen liburu aurkezpena.

OROIMENAREN ALDE

MEMORIA BIZIBERRITZEAREN GARRANTZIA

Emakume Abertzaleen Batzari buruzko lana osatu du Mari Karmen Garmendiak Euskerazaintzaren libururako, eta bertan "emakumezkoek euskalgintzan eta aberrigintzan egindako lana" ezagutarazi nahi izan du. "Euskararen eta hezkuntzaren alde zer egin zuen ez baikenekien, memoriarik gabe geundelako". Sailburu ohiak Euskerazaintzaren lanaren garrantzia goratu zuen: "honek eta honelakoek gure memoria bizirik edukitzen eta biziberritzen laguntzen dute, memoria gabeko belaunaldia izateko arriskua baikenuen". Euskaldunek gerra aurretik hezkuntza mailan egindako lan izugarria nabarmendu zuen, baita ere: "Hemengo lagunek hezkuntza sistema bikaina moldatu zuten, Piaget-en maisuarekin, esaterako, harremanak izan zituzten euskaldunek". Garmendiak liburuan atondu duen pasartean euskal emakume idazleen zerrenda ere badakar, baina "dauden guztiak diren arren diren guztiak ez daude", adierazi zuen sailburu ohiak.

- LUR-GORRI NOR DOGU? -

Donosti'n: Mitxelena aretoan "36'ko GUDALDIAN, SU-IZKILLATUTAKO IDAZLE GAZTEAK" liburuaren aurkezpenean.

Azkarraga eta Mozo'tar Joxe M^a "LUR-GORRI"

-Nor dogu?.

Esan bear dot, poz aundiz arritu nintzala gai au ezarri eustenean eta benetako biotz-ikara emon eustala, ikusiz, gazte areik LUR-GORRI'gandik asita

euki eben Euskalerrigaitik ainbeste "SINISMENeko MAITASUNA" eta zelan maitatzen eben oiñarrizko senditik asita Euskalerriak daukan senidetasun guztia.

Kontuan euki bear dogu, maitasunean ain malla aundia lortzeko, bera bete egiten daben osotasunezko oiñarrian..., osagarriaren izaerak, sinismenean neurri bardiñean euki bear dirala, leenengo ulertuta eta bigarren on-artuta, beren borondateagaz ainbeste eta ain ikaragarrizko ekintza egitean, beren Erri-bidetik JAINKOA'ri eskeintzeko.

Nortasunezko izaeran, ikaragarrizko zentzua eta zeaztasuna ikusi dot euren borondateetan. Eta kontuan euki bear dogu ABERTZALETASUNA ez dala: "MAITASUN" orrek daukan indarraren zabalkuntza baiño besterik, ez!, nor-beraren ekintzetan.

Bakarrik?, esango leuke ez dakian batek.

BAI!, BERA dalako dana!

Gaur, menperatzaileak apurtzen dabiltzana. Eta eurak daukien indar guztiaz nai dabena..., gure gazteak naaste orretan sartzea da, eurak garaille agertzeko, daukien sasi-jainkotasunezko asmakuntzan irauin dagien.

Menperatzaile orreik eta batez be Espainola'k, legearen erak! Zorotasunezko aldakuntza baten dabiz naaspiltzen, baiña dan guztiori alperrik, Mundu onek bere EGILLEA'gandik daukazan LEGEA'k ez daukielako aldamenik.

Gure gazte gizartea, bai gazte ez diranak be, gaur naastetasunezko era orretan errez jausten dira, gezi pozoitzu orreik, era askotan mozorrotuta datozenak, eta zeaztasunezko ardurak itxuragabetu egiten dabezanak geien, iruntzi egiten dabezelako, eta olan dala ikusteko, ez da bear besterik gure senidetasunari begitutea baiño.

LUR-GORRI ez zan jeusten xautzailletasunetan (konsumismoetan) eta lege itxuragabeko era orreitan. Ori erakusteko, liburuan datorren adibide batzuk esango dautsuedaz: 1934'ko urte orretan, Espaina'ko gobernuak, leiaketara atara ebazan legebildumaren talde teknikoetan lan egiteko, eta 4.000 naikideren artetik leenengoa izan zan. Danak arrituta geratu ziran. Madril ametsgarriaren leen-maillako lan-bideak alboratu, eta Oñatin zan bigarren maillako ikastetxera etortea eskatu ebenean, bere aberriko ardurak maite ebazalako.

Beren etxeko ardurakaz guztiz bat eginda egon zalako, ez eban euki atsedetik Euskal Alderdi Jeltzaleak bear eban guztirako: berriketarako, biltzarretarako, ainbat aldizkarietara beren idaz-lanak argitzeko, aolkari eta lagun lez..., eten-bako ekintza baten.

Ondo baiño obeto jakin ebana, Mundu eta Euskalerrri onetara, ez zala agertu eten-bako opor, ikast-arte, edo lan-uztera izan zan. Ain MAITASUN aundiko mutil onek JAINKOA'gan sinismen osoa euki ebalako, eta ondo baiño obeto ulertu ebalako, Mundu oneta JAINKOA'ren LEGEA'k beteteko etorri zala.

LANKIDE, ENTZULE ETA ADISKIDE MAITEOK:

Agintaritzak bakarti-gogorrek edo diktadurak toki guztietan erabilten dabe aurrean jakintza edo kultura. Orixe jazo jakon euskal jakintzari 36'ko gudaren aldiak eta ostean. Ikaragarria izan zan gure idazleak eta jakintza-gizonak izan eben jazarpena, Barandiaran erbesteratutik asi eta su-izkillatutako Aitzol'egaz jarraitzen dogula.

Guk olako gizonak ez doguz aitzu bear, naizta bekerako bide lez amnistia artu izan. "Bere Edestia gogoratzen ez dauan erria, edesti ori bariro bizi izatera beartuta dagoala" ondo esana dalako.

Orretarako laguntza izan nai dau gaur aurkezten dogun liburuak: Orduko giroa gogoratu nai izan dogu, aldi aretako idazleak alde batetik eta zapalkuntzaren lekuko diran zigortuak bestetik. Arlo orretan aurkituko doguz abade ta lekaide-lekaime zigortuak, Bizkai'ko, Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko zigortuen zerrendak, Elgeta'koa, Aitzol'en eta Bilbao'ko espetxeetako egoera larriak, zenbat gudari il ziran eta abar, baita emakumeak egin eben lan txalogarria ta euren jazarpena.

Baiña lorategi odoltsu ta eder orretatik iru lore artu doguz: Lauaxeta, Lurgorri eta Josu Peña (Aitza).

Lauaxeta'ri buruz zerbait esatea dagokit niri.

Guztiok ezagutzen dozuez idazle ugari eta mamintsu onen bizitzako albisteak. Ona emen labur: Bizkai'ko Laukiniz'en jaiotako ta Mungia'n azi, josulagunen artean ikasle, gero idazle eta gudaldian gudari. Gernika erre-ondoren izparlari bateri uria erakustera joan zan eta antxe arrapatu eben arerioak. Gasteiz'ko karmeldarren etxean euki eben espetxeratuta ille pare baten eta goizalde baten Santa Isabel illerriko orma-ondoan su-izkillatu eben.

Espetxean, lenagotik ezaguna eban Alfonso Moreno aita josulagunak lagundu eutson, berak orretarako deituta.

Espetxean, il aurrean, ainbat olerki eder eta eskutitz idatzi ebazan, baiña gogoangarria da berak il-aurrean idatzi eban azken-naia edo testamentua, naizta erderaz idatzia izan. Guda ankerra amaitzeko eskatzen dau eta argi ta garbi alkartzen dau Abertzaletasuna ta Jainko-zaletasuna. Benetan gizon santu baten berbak dira.

Eskutitzak be biotz beroz idazten dauz, batzuk bere sendikoai gaur be bizi dira, beste batzuk adiskideai eta alderdikideai. Irudi edo zirriborro batzuk be aurkitu doguz Artea'n Sabino Arana Kultur Elkartean: bi une aretan bere buruari egiñak, bata "El home bien barbado e bien arrebinado" eta bestea irakurten agiri dana.

Beste arazo bat da agiri oneik zelan eldu diran gure artera, Aita Alfonso Maria Moreno'k idazpuru au daroan liburua idatzi eban ezker: "Los papeles que yo rompi". Beste alde batetik entzuna dogu Lauaxeta il ebenean lekaide batek bere gelatik idazki moltzoa atera ebala. Kaputxinoa zan au.

Eta besterik ez. Jarraitu daigun ekiñaldi onetan aurrera, une garratz eta sendo areek gogoratzen doguzala.

2.- GIPUZKOA'KO DEIA'K DIÑOANA

Lauaxeta, Lurgori eta Peñaren lanak jaso ditu Euskerazaintzak

EUSKERAZAINTZAK "36ko gudaldian su izkilatutako idalze gazteak" liburua ondu, Lauaxeta, Lurgorri eta Peñaren idatziak jasoaz, herri honen memoriari bizirik eusteko asmoz. Liburuan Mari Karmen Garmendiak, Martin Olazar, Paulo Atutxak eta "Latxaga" k hartu dute parte, «euren pentsakera agertarazko»

Mari Karmen Garmendiaren esanetan, «bazen garaia gu baino bitarteko gutxiagorekin bidea urratzen saiatu ziran lagunak omentzeko». Bere ekarpena liburua gauzatzeko orduan, abertzaletasuna eta emakumea uztartzea izan da.

Martin Olazar'ek Lauaxetak espetxean eginiko marrazkiren bat edo hil aurretik idatzitako testamentua jaso ditu. «Olerkariak pistolari bihurtu ziren gerrarekin eta Gernikako bonbaketaren ondoren, Lauaxeta atxilotua izan zen. Gasteizko


karmeldarren etxea izandako espexera eraman zuten, geroago fusilatzeke». “Zer” aldizkariaren egileak, Lauaxeta edo Lurgorri bezalako gizonak ez direla ahaztu behar adierazi zuen. “Ikaragarria izan zen gure idazleek jasandako jazarpena. Batzuk erbesteratuak, besteak fusilatuak. Guk ez ditugu ahaztu behar. Zelako lana egingo ote zuten gaur arte bizi izan balira!».

Oso gazterik fusilatu zituzten hirurak, 21 edo 22 urterekin, baina bai Lauaxeta eta bai Lurgorriren irudia ezagunagoa da, Peñarena baino. Halere, Paulo Atutxak zeharo harrিতa geratu dela Jose Maria Lurgorriren bizitzarekin adierazi zuen. Berak euskaratu ditu idazlearen lanak, liburu honetan argitaratu ahal izateko. «21 urte zituen espainolek izkilatu zutenean. Ni harrিতa geratu nintzen. Orduko abertzletasunaren antzerakoa eduki behar dugu eta orduko urrezko denbora berreskuratu, oraingo gazteak izan daitezen Lauaxeta edo Lurgorri».

Liburuan jasotzen den hirugarren idazlearen, Josu Peñaren (Aitza), 70 bat artikulua aurkitu dira. Latxaga bila dabil ganbaretan baina baliteke erreta izatea. Bere lanak liburutegietan eta Aretxabaletar batzuen laguntzarekin eskuratu dituzte. «“Patxistak” deitzen ziren bere etsaiei. Euskal Herriko aldizkari guztietan idazten zuen eta oso garbi esan zuen 22 urterekin zein zen arazoa: “Batzuk Madrilekin batera jokatu nahi dute eta besteak ez dute Madrilekin ezer jakin nahi”».

Ordukoak eta oraingoak

“LATXAGA”K NOSTALGIAZ beteta gogoratzen du 36ko gudak galduarazi zituen lagunek bizi zuten abertzaletasuna. “Ez dugu nahikoa ezagutzen garai hartan jendeak zuen abertzaletasuna. Orain zer da? ez da nazio baten mentalitatea. Zatikaua dago eta Euskal Herria zatikatzen bada, galduak gaude”. Garai haietako agintaritzaren ezaugarrietako bat Latxagaren esanetan batzarre irekia zen. “Oraingo agintzaritza erabat bestelakoa da, baina batzerre irekia bizirik dago oraindik Errioxan, Gaztelako iparraldean, Araban eta Nafarroan. Oso zaila da horretara bueltatzea euskaldunen artean, inperialistak dabilta bitartean. Eredu bateko jarraitzaileak dira. Eta Euskal Herriko ezaugarritasuna zen, ezberdintasunaren barruan, batuta hartutako erabakiak ontzat hartzea”. Paulo Atutxaren esanetan, “orduko urrezko denbora berreskuratu behar da”.



3.- "GEU"ALDIZKARIA DIÑOANA

Historiaren gara ilunak gogoratzen

Euskerazaintzak pentsatu, idatzi eta argitaratutako liburuak gerra garaiko giroaren berri emateaz gain, Francoren aldeko armadak hildako hiru idazle gazteren bizitza eta lanak gogoratzen ditu, bi helburu lortzeko: Lauaxeta, Lurgorri eta

Josu Peña, Aitza, ezagutzera eman eta beraien idazlanak zabaltzea. “Egungo gazteek bisigodoen garaiko historiak bezala ikusten dituzte gerra zibileko kontakizunak, baina guk horiek bizi izan ditugu”, azpimarratu du Euskerazaintzako kidea eta liburuaren egileetako bat den Martin Olazarrek, 36an gaztea zen belaunaldia oraindik era bizirik dagoela gogoratuz. “Eta badakigu zer esaten den,” historia ahazten duten herriek hori errepikatzen kondemnatuak daude”, dio.

Hiru izen propio

Hiru izen propioetatik abiatutua ekin diote liburuaren egileek historia berreskuratzeari. Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza euskal kultura eta euskararekiko kezka berezia zuten hiru gazte abertzale ziren 1936an. Guda hasi eta urte eta erdira hilik zeuden, faxistek fusilatuta.

Asko eta asko izan ziren urte ilun eta latz horietan fusilatutakoak –edo su-izkirlatuak, liburuaren egileek erabiltzen duten hizkeran- eta horiek guztiak gogora ekarri nahi izan dituzte Euskerazaintzakoek, liburua “omenaldi bat egiteko asmoarekin” sortu baitzen. Orriak eta orriak beteten ditu fusilatutako idazle, abade eta lekaiemeen zerrendak; atal berezi bat dago Gateizko Elizbarrutiko apaiz eta mojen deiturekin; eta hilabetez hilabete et gudaldi eta espetxe bakoitzean izandako hildakoen kopuruak ere agertzen dira. Liburuaren azken zatian aipaturiko izen guztiak agertzen dira, alfabetikoki ordenatuta, irakurleak erraz aurkitu eta irakurri ahal izateko.

Eleizgizon eta emakumeen zerrenda luzea da, eta gainera Errepublika edo Eusko Jaurlaritzaren aldeko apaiz eta lekaiemek jasan zuten errepresio eta zigorrei buzuzko atal bat dauka Euskarazaintzako lanak. Zergaitik? “Zeintzuk dira santu, zeintzuk izendatu dituzte santu? Gorriek hildakoak! Eta besteak?, galde-tu du Martin Olazarrek, 1936an legalitatearen aldekoekin egindako injustiziak gizartearen arlo guztiak hartu zituela eta oraindik ere dirauela gogoratuz.

Ezberdintasunak

Historiak, edo historia kontatzen dutenak, ez dituzte berdin tratatu Lauaxeta, Lurgorri eta Aitza. Lauaxetaren bitzta eta lana guztiok ezagutzen doguz, baina Aitza eta Lurgorri nahiko ezezagunak dira.

Horregatik, Aitzak idatzitakoak, orduko aldizkarietan argitaratutakoak, hitzez hitz jasotzen ditu liburuak, eta Lurgorrik utzitako lanaren berri zehatza ere ematen du.

Aitzak idatzitakoa hitzez hitz jaso du liburuak, esan bezela; horrek esan nahi du orduko gira eta idazle gaztearen lana ezagutzeko aukera izateaz gain, garai horretako euskaraz irakurtzeko parada ere daukala irakurleak.

Liburua beraz ez dago 36ko euskaraz idatzia, baina ezta batuan ere, “Euskaltzaindiak batuaren alde egin baino lehenago erabilitako arauen arabera bai-zik”, Olazarrek azaldu duenez. Izan ere Euskaltzaindiak euskara batuaren aldeko apustua egin zuenean sortu zen Euskerazaintza, Eskeraren Erri Akademia, hartutako bidearekin ados ez zeudenen laguntza eta babesarekin.

Erabilitako hizkera den liburua ulertzeko oztupo dio Martin Olazarrek: “Gehiago dira batua ulertzen ez duten euskaldun zaharrak, liburua ulertuko ez

duen gazteak baino". Hala ere, "hasiera batean batzuek eragozpenak izan ditzakete irakurtzeko" onartu du, baina gero aberasgarri izango dela gaineratuz.

Lauaxeta

1905an Laukizen sortu eta 1937an Gasteizen hil zuten poeta eta kazetaria dugu. Esteban Urkiaga zuen benetako izena, baina idazkiak sinatzeko gura-soek Mungian zuten etxearena hartu zuen.

Apaiztegia ikasi zuen arren, apaiz bidea utzi eta EAJrentzako ageriko eta isileko lanak egiten hasi zen, literaturgintzan murgiltzen zen bitartean. Kazarteritza lanak "Euzkadi" eta "Gudari" aldizkarietan egin zituen, eta "Bide barrajak" eta "Arrats beran" olerki bildumak argitaratu zituen. Orixe eta Lizardirekin batera poeta klasiko bihurtu zen Lauaxeta, maitasauna, aberria eta askatasunari buruzko lanekin.

Gerra hasita batailoietakako intendentziako komandante izendatu zuten. 1937an. Alemaniarrek Gernika bonbardatu eta hurrengo egunetan, kazetari frantses bat eraman zuen bertara egindako suntsipenak ikusteko. Han atxilotu zuten faxistek eta ekainaren 25ean fusilatu.

Lurgorri

Aguraingoa zen Jose Mari Azkarraga, Lurgorriren aita. Bera Erreterian jaio zen 1916an.

Aitaren lanak behartuta Madrilera joan zer familia osoa, baina Lurgorri Gasteizera itzuli zen 1935ean. Dagoeneko politikan sartuta zegoen, EAJ eta ELAN ibilia zen. Gerraren hasierak Aramaion harrapatu zuen eta Eusko Jaurlaritzaren agindutara jarri zen.

Azken gudariekin batera zegoen Lurgorri gerra galduta armak entregatu zituztenean. Larrinagako espetxera eraman eta epaitua izan ostean hiltzera kondenatu zuten. Auzitegiak errepublikarrek atzitu zuten soldadu faxista batengatik aldatuta libre uztea proposatu zion, baina berak adaketa-prozesu kolektiboa baino ez zuela onartuko erantzun zuen. Derioko hilerriko hormaren kontra hil zuten 21 urteko mutila.

Aitza

1915ean Aretxabaletan jaio zen Josu Peña, Aitza.

Idazki ugari utzi zituen 22 urterekin hil zuten arren. "Gure mutilak", "Euskadi", "Argia" eta "Eguna" Aldizkarietan lan egin zuen. lehenengo herriko berriak ematen eta gero ikuspegi zabalagorekin.

Egindako lana ez zen Errepublika eta demokraziaren aurka altxatu zirenen gustuko eta hiltzera kondenatu zuten epaiketarik eta defendatzeko aukerarik gabe. 1937ko neguko goiz hotz batean etxetik isilik atera zuten Aitza eta herriaren kanpoaldean tiro batez hil.

Euskerazaintza´ren izateko arrazoia

Euskerazaintza Erri-Euskeraren Akademia zergatik eta zertarako sortu zen azalduz idazlantxo labur bat. «Fax» ez len-bait-len bidaltzeko, eskatu didate Donosti´tik biar, Irailak 5, an Batzar batean irakurria izen dedin. Gudatean ildako euskal-idazleetaz Euskerazaintzako akademilari batzuek idatzitako liburu baten aurkezpena omen dute ba. Auxe da, irazean idatzita, bidali die-tena:

«Euskerak bazituan bi Erakunde. Gutxi-gora-bera, bata bezain zarra bes- tea: Euskaltzaindia eta Kardaberaz Bazkuna. Betiko Euskera Zarraren serbi- tzura biak.

«Orduan, bi erakunde aietako batek, Euskaltzaindiak, betiko euskera zarra utzita, Euskera Batua izeneko izkuntza berri ori artu zuan beretzat.

«Arantzazu´ko Batzar baten egin zuan ori. Une artan. Euskaltzaindian, Eus- kera Zarraren aldekoak geiago ziran Euskera berriaren aldekoak baiño. Ez zuten itzegiterik izan. Batzar zaratatsu lotsagarria izan bait zan ura. Betiko Euskera zarraren aldekoak, «zarrak etxera», oiukatuz isillerazi zituzten. Ez zan auteskunderik izan. An zeuden, bezperaz Ermu´n Euskaltzaindiarekin edo Euskaltzaindiaren aurka, Euskera Batu Berria aurrera ateratzea zin egin zuten gazte iraultzalariak. Auen oiuketa izan zan Euskera Berria onartuerazi zuena.

«Bere eginkizun berrian eragozpenik gabe lan egiteko, Lendakari berri bar aukeratu zuan Euskaltzaindiak, lengoa, On Manuel Lekuona, baztertuz, «leio- tik beera jaurtiz», Lekuonak berak esan oi zuan bezala.

«Amar urte geroago, Euskaltzaindiak, Batzar Nagusi bat egin zuan, legeak zuzentasunerako eskatzen dituan baldintza guztiak urratuz.

An, baliorik gabeko oiñarritan tinkoturik, Euskera ofiziala egin zuan Euske- ra Batua: ondorioz, Euskadi osoan, Euskera Berri bat. Euskaltzaindia Berriak, Lendakari Berri bat.

«Batzar artan aurkeztu zuan Karberaz Bazkunak –Euskaltzaindia, Betiko Euskararen Akademi izatez utzita Euskara Batuaren Akademi biurtu zalako– Akademi berri bat sortu bearra ez ote zalako kezka: Akademi ori Arantzazu- aurreko Euskaltzaindi onuragarri aren jarraile izan zedin.



«Berealaxe, Tolosa´n Batzar oro- kor baten altzoan, Akademi ori sor- tzea erabaki zuan Kardaberaz Baz- kunak. Orrela jaioko zan Euskera- zaintza.

«Zertarako? Erriaren Betiko Eus- kera salbatzeko, eta al zuan guz- tian, Euskera ori lantzeko, bizkortze- ko eta edertzeko».

Salaketa gogorak egiten dizkiot Euskaltzaindiari eta Salaketa oiek denak, banan-banan egiztatuz, era egozkian argitzeko. Liburu bat idatzi dogu euskeraz eta erderaz.

LATIEGI´TAR BIXENTE´K

(“Dirario de Navarra´n agergua)

